

Zu hemen zaude.

goiena

2017-11-17 EGUBAKOITZA / 750. ZENBAKIA / 17. URTEA
DEBAGOIENeko DOAKO ALDIZKARIA GOIENA.EUS TOKIKOM



ZER DAKIGU AZKEN HARRIBITXIAZ?

Andoni Gorosabel arrasatearraren gainean dihardute Igor Arenaza entrenatzaileak eta Rafa Mungia kazetariak / 38



Argazki nagusian, Gorosabel, Vardar taldearen kontrako Europa Ligako partiduan; txikietan, goian, entrenamendu saio batean Zubietan, eta behean, UDA taldearekin.

OSCAR ALONSO ALGOTE

Mondragon Taldea, deklaratzera

Korporazioko buruek lekuko gisa deklaratu dute Fagor Etxetresnetako bazkide ohiek ezarritako demandan / 2



ETXEBIZITZA & DEKORAZIOA / 21



Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak 'El caserio' zarzuela taularatuko du aste bukaera honetan / 40

Baigorriko Etxauzia gaztelua erosteko ekimena diruz lagunduko du MUko Huhezi fakultateak / 4

Abenduaren 24an irekiko ditu ateak Seminarixoa aretoak Olentzerorekin eta Mari Domingirekin / 29

SINADURAK



Oskar Martínez kayak-surfean munduko txapeldun

Errespetuz eskalatzeko araudia egin dute



Udalaitz

Gipuzkoa etorbidea, 36 • ARRASATE • 943 71 18 70





Eguaztenean, epaiketa aurreko entzunaldian, Bergaran. IKER OÑATE

Mondragonen kontrako epaiketa, udaberrian

Ordainduk eta Eskuratuk Mondragonen kontra ipinitako demandaren epaiketa aurreko entzunaldia egin zen eguazten goizean Bergarako auzitegiko Lehen Auzialdiko 1 zenbakiko epaitegian. Epaiketa 2018ko maiatzan egingo dela espero dute

Miren Arregi BERGARA

Besteak beste, epaiketan lekuko gisa zeintzuk deklaratu duten adostu zuten bi aldeek eguazteneko epaiketa aurreko entzunaldian. Hamaika lagun deituko ditu epaileak deklaratzera, guztiak ere, Mondragoneko zuzendariak edo zuzendari ohiak. Tartean daude, Jose Mari Aldekoa, Txema Gisasola, Javier Sotil, Javier Retegi, Agustin Markaide eta Xabier Bengoetxea.

Epaiketa Donostian edo Bilbon egingo da, demandatzaile kopurua -900 pertsonatik gora dira- eta gaiak izan dezakeen interes mediatikoa kontuan hartuta, Bergarako epaitegia txiki geldituko litzatekeelako. Oraindik ez dago data zehaztuta, baina 2018ko maiatzan egitea espero da.

Demandaren argumentua

Ordainduko eta Eskuratuko abokatuek orain arteko estrategia berretsi zuten eguaztenean. Alegia, Mondragonek ez zituela langileak Fagor Electrodomes-

ticos eta Edesa lantegien benetako egoeraren jakitun egin eta "engainatu" egin zituztela. Abokatuek erantsi zuten kooperatibako arduradunek bazekitela enpresa biak itxi egingo zirela eta engainatu egin zituztela aurrezkiak bertan mantendu zituzten. Honela azaldu zuen entzunaldiaren bukaeran Ordainduko eta Eskuratuko abokatu Raul Tenesek: "Gutako edonork entzungo balu, telebistan edo irrastian, aurrezkiak gordeta ditugun bankuak zailtasunak dituela, aurrezkiak atera egingo genituzke. Pertsona horiek guztiek ez bazuten jokatu edonork norbere aurrezkien aurrean jokatu lukeen moduan, izan

EZ DAGO DATA ZEHATZIK, BAINA EPAIKETA 2018KO MAIATZEAN EGITEA ESPERO DA

zen norbaitek esan zielako lasai egoteko, zainduko zituztela".

"Faltsua" dela dio Mondragonek

Mondragoneko abokatuek, bestetik, demandaren planteamendua, alegia, Mondragonek demandatzaileak engainatu zituela dioen hori, erabat faltsua dela adierazi dute eta berretsi dute kooperatibak autonomoak eta subiranoak direla eta horietako bakoitza dela bere erabaki enpresarialen erantzule. "Engainu hori oinarritzen da Mondragoneko urteko txostenetan, aldizkari bateko artikulua baten eta Gisasola jaunaren adierazpen batzuetan. Eta horretaz, gaur arte ez dago inolako probarik; argi esanda, ez delako egia. Aurkeztu diren dokumentu guztietan, eta ehunka aurkeztu dira, ez dago bakar bat ere hori agerian uzten duenik. Beraz, eta horregatik bakarrik, demanda ezetsi egin beharko litzateke", esan zuen abokatu Arantza Estefaniak.



Parte hartzaileak Seber Altube plazan, Antiprekarietatearen gunea-n. TXOMIN MADINA

LABen ekimen ibiltariak Arrasaten egin du geldialdia

Hainbat sektoretan bizi diren egoera prekarioak azaldu eta salatzeke ekimenak egin zituzten eguaztenean

M.A ARRASATE

Duela zenbait aste hasi zuen bere ibilbidea, Iruñean, prekarietatearen kontra egin nahi duen LAB sindikatuaren ekimen ibiltariak, eta eguaztenean Arrasaten egin zuen geldialdia.

Egun osoko egitarauaren barruan, esaterako, sindikatuko hainbat delegatuk tailerra egin zuten, prekarietatearen aurka osatu nahian dabilta gidaren inguruan. Urtarrilerako gida prest izatea espero dute LABekoek, eta horren helburua izango da alor ezberdinetan dauden prekarietate egoerak identifika-

tzen laguntzea eta horiei nola aurre egin azaltzea.

Giza katea

Eguerdian partean, bestalde, giza katea egin zuten Eroski merkataritza-gunetik BM eta Lidl supermerkatuak dauden tokira, *Merkataritza lan baldintza duinen alde* lelopean. Arratsaldean, Seber Altube plazan jarritako *Antiprekarietatearen gunea-n* izan ziren ekintzak. Materiala eta informazioa banatzeaz gain, Edesa Industrialeko langileek euren prozesuaren berri eman zuten bertan.

Arcelor Bergarako komitea eta zuzendaritza batuko dira gaur

Astean egin ditu batzordeak bilera bana Bergarako Udaleko Gobernuarekin eta oposizioarekin

M.A BERGARA

Arcelor Mittal Bergarako langile batzordeak hainbat bilera izan ditu asteon. Lantegiko zuzendaritzarekin elkartu ziren astelehenean eta gaur egingo dute beste bilera bat. Bestetik, Bergarako Udala Gobernuarekin eta oposizioarekin ere batu da asteen komitea, "enpresak aurkeztu berri duen 41 langile kaleratzeko espedientea azaltzeko, Bergarako lantokiaren etorkizunari buruz hitz egiteko eta Udalarri herriko enpleguaren alde inplikazioa eskatzeko". "Bi

bileren balorazio positiboa" egin du enpresa batzordeak eta "aurrerantzean ere harremanak mantentzeko konpromisoa" hartu dutela adierazi du.

CCOOk aktibitatea exijitu du

CCOO sindikatuak, bestetik, Arcelor Mittalen zuzendaritzari Bergarako lantegian aktibitatea eta enplegua bermatuko duen plan bat exijitu dio. Langileen eta zuzendaritzaren arteko gaurko batzarrean, langileendako neurri traumatiko bako bideragarritasun plana exijituko du.

Biziak salba ditzakeen aplikazioa 7.000 eskutan

Osasunaren alorra ere murgildu da interakzioaren munduan. Bihotz-birika geldialdien aurrean zer egin jakiteko lagungarri izan daitekeen aplikazioa du Osakidetzak. Bergarako Zientzia Berrikuntza eta Teknologia Jardunaldietan aurkeztu dute

Iker Oñate DEBAGOIENA

Bihotz-birika geldialdi kasueta-rako lagungarri izan datekeen aplikazioa aurkeztu dute Bergaran. Elkarlanean sortu zuten Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak, Osakidetzak eta emergentzia alorreko adituek. Bada, gaur-gaurkoz, bultzatzaileak "pozik" dira egitasmoak izan duen harrerarekin. 7.000 pertsona inguruk dute aplikazioa euren mugikorrean. "Mundu osoko jendea dago erabiltzaileen artean", azaldu du Karlos Ibar-gurennek, Osakidetza-ko emergentzia arduradunak.

Ibar-gurenen esanetan, "gaixoak ahalduz" bidean bultzaturiko egitasmoa da. Bihotz-geldialdien kasua, gainera, ez da nolana hain. "Erreakziorako tarte murrizta dago; beraz, lekuko laguntza beharra egoten da normalean, larrialdi zerbitzua heldu bitartean, behintzat", dio. Kasu horietan nola jokatu jakiteko informazioa biltzen du aplikazioak.

Hain zuzen, lekuko garrantzia azpimarratu du Ibar-gurennek: "Egin ditugun ikerketen arabera, bihotz-geldialdia dutenen %80k norbait dute inguruan. Dena den, kasuen %33an besterik ez da lortzen biktima berpiztea". Horri buelta emateko



Pertsona bat bihotz suspertzea egiten, ikastaro batean. ITZIAR LARRAÑAGA

bitarteko ere izan gura du aplikazioak, beraz.

Lau ataletan banatuta

Lau ataletan banatu dute aplikazioko edukia: bihotz-geldialdien bueltako informazio orokorra, kasua identifikatzen jakiteko argibideak, berpizten laguntzeko jarraitu beharreko urratsak eta desfibriladoreen kokapenak. "Urratsez urrats egin beharreko prozesua da. Eta horietako bakoitzari buruzkoak aurki daitezke aplikazioan", azaldu du Ibar-gurennek.

Urratsez urrats

Esan bezala, urratsez urratsezkoa da bihotz-geldialdia duenaren erreanimazio prozesua. "Larrialdi zerbitzuetara deitzea da lekukoak egin beharreko lehen gauza. Ostean, masajeak eman beharko dizkio ondoezik dagoenari; horretarako, argibideak emango dizkio telefonoaren bestaldean dagoenak, eta aplikazioak ere eskaintzen du prozesu horretarako informaziorik. Horrela jardun beharko du larrialdi zerbitzuak heldu artean", dio Ibar-gurennek.



AP-8 errepideko irteeraren egokitze planteamendua. GIPUZKOAKO ERREPIDEAK

Zirkulazioa hobetzeko obrak hasiko dituzte Maltzagan

AP-1 eta AP-8 errepideen lotunea zabaldu gura dute, eta zortzi hilabete inguru iraungo dute lanek

I.O. DEBAGOIENA

Datorren astean obrak hasiko dituzte Maltzaga inguruan; AP-1 eta AP-8 errepideen lotuneko auto-jarioa hobetzea da helburua. Hain zuzen, bi bidetara zabalduko dituzte Gasteizera eta Behobiara doazen bide zatiak. 2,7 milioi pasako aurrekontua onartu du Gipuzkoako Foru Aldundiak horretarako –BEZa gehitu behar zaio kopuruari–. Aurreikuspenen arabera, zortzi hilabete iraungo dute lanek.

2017ko urtarriletik irailera bitartean eginiko zirkulazio neurketen arabera, egunean, batez beste, 34.800 ibilgailuk erabiltzen dute errepide zati hori; uda giroan, ostera, gorantz egiten du kopuruak, 38.200 ibilgailuko batez bestekora iritsi arte. Gauzak horrela, lotune inguruko errepidea zabaltzeko beharra ikusi du Aldundiak. Azaldu dutenez, "zirkulazioa

arintzeaz aparte, bide segurtasuna hobetuko luke horrek".

Zehatz esanda, bi epe tartetan zatitu dute obra planteamendua. Eta Gasteizera bidean doan errepidearekin hasiko dituzte lanak; errei bat gehituko dute –380 metro luzeko errepide zatian–. Bestalde, 2018ko urtarrilean ekingo diete Behobiara noranzkoan dagoen lotuneko obrei. Hor ere errepidea zabalduko dute.

Zirkulazioan hainbat aldaketa

Lanek iraun bitartean, errepide zatian nabariko da aldaketarik; bidearen zabalera murriztu egingo da. Horrez gain, aldi-aldi ezohiko moldatzeak ere egingo dituzte. Besteak beste, Gasteizera doan errepideko lotunea ez da erabilgarri egongo azaroaren 24ko asteburu tarte batean. Eguraldi txarra eginez gero, aste-bete atzeratuko lituzkete itxiera egunak.

BIODIBERTSITATEA BIZIAREN ETORKIZUNA

ERAKUSKETA

2017.10.20 - 2017.12.10



www.laboratorium.eus

Laboratorium museoa, Juan Irazabal Pasealekua, 1. Bergara. 943 76 90 03

Bisita gidatuak familia eta helduentzat



Baigorriko herritarrek Etxauzia jauregiaren aurrean. ETXAUZIA ELKARTEA

MUK babesa eskaini dio Etxauzia proiektuari

Baigorriko gaztelua erosteko proiektuari laguntza eskainiko dio Mondragon Unibertsitateak, gaur Huhezin sinatuko duten akordioaren bidez. Etxauzia gaztelua euskaldunen ikerketa, berrikuntza, harreman eta sorkuntza gune bihurtu nahi dute

Josu Bilbao ARRASATE

Baigorri dagoen Etxauzia gaztelua "Nafartarren etxea eta euskaldunen sarea" izan dadin diru-biltze kanpaina jarri zuen abian Etxauzia Nafartarren Etxea elkarteak. Eraikinaren jabetza Miamin bizi den familia batek du, eta erosteko 1.500.000 euro behar ditu elkarteak. Horretarako, herritarrei, enpresei eta

elkarteei laguntza eskaintzeko egin du elkarteak. Kanpainaren lehenengo fasean 400.000 euro batzea lortu dute, eta orain, gaztelua erosteko behar diren 1,5 milioi euroak lortzeko lanean jarraitzen du elkarteak.

Helburua lortzeko asmoarekin, gaur, Mondragon Unibertsitateko Eskoriatzako fakultatean egongo dira Etxauzia elkarte

kideak, proiektuaren nondik norakoak azaltzen, eta ostean, bien arteko akordioa itxiko dute sinadura baten bidez.

Iaz, 6.890,66 euro bideratu zituen MUK Etxauzia proiektura, eta aurten partida antzekoa izatea espero dute Mondragon Unibertsitateko ordezkariak. Gaur Eskoriatzan sinatuko duten hitzarmenaren helburua, bi

erakundeen arteko lankidetzahitzarmena baieztatzea da, elkarren arteko harremana egonkortu eta sendotzeko asmoarekin. "Hitzarmenari esker, Huheziko ikasleek hobeto ezagutuko dute Ipar Euskal Herriko barnealdeko errealitatea eta bizitza", azaldu dute MUKtik.

Gaur egun, 215 kide dira elkartearen, horietako asko baigorriarrak, baina Euskal Herriko txoko ezberdinetakoak beste hainbat. *Euskaldun bat Euro bat* kanpaina abian jarri zuten, eta 2.500 sustengatzaile baino gehiago lortu dituzte dagoeneko. Gurekin dira ere Euskal Herriko izen eta izan ezagun ainitz: sortzaile, elkarte, enpresari, instituzio eta laguntzaile ugari. "Etxauzia erosi eta herriari itzulita, proiektua gauzatzen hasiko gara, eta, gure heinean, Baigorri eskualdea eta Ipar Euskal Herri barnealdea biziagoa eta erakarriagoa egiten".

Kultura munduko hainbat kidek dagoeneko eman diote babesa proiektuari. Eñaut Eloorrieta eta Anari abeslariak, Maialen Lujanbio eta Sustrai Colina bertsolariak, Miren Gaztañaga eta Mireia Gabilondo aktoreak eta Bernardo Atxaga eta Itxaro Borda idazleak dira horietako batzuk.

Kultura, ekonomia eta diaspora Iparraldeko barnealdeko eta, kasu honetan, Nafarroa Beherko ekonomiak indartzeko "beharra" du. Horregatik, Etxauzia "tokiko ekonomia sustatzeko zentroa izango da, eta bertako enpresa eta kooperatiben bilgune", elkarte kideek aurreikusituz dutenez. "Enpresen arteko elkartasuna eraiki, tokiko garapena bultzatu, interes kolektiboaren defentsan aritu, euska-

raren erabilera lantegietan sustatu eta Euskal Herri osoko egitura ekonomikoekin saretuko da bertan kokatuko den lantegi elkartearen", Etxauziako arduradunek azaldu duten moduan.

Horrez gain, kultur zentroa ere izango da Etxauzia gaztelua, "Euskal Herrian dauden beste kulturgune handi eta ekimeneekin saretuko dena eta sormen nahiz emanaldi mailan erreferentia izango dena". Baigorrialdeak "erreferentziatzeko leku bat behar du" euskara eta kulturarentzat.

Etxauzia "mundu osoko euskaldunen bizilekua" ere izango da, diasporakoendako bilgune. Euskal Herriko zortzigarren lurraldearen hiriburu bilakatu nahi dute Baigorri, eta Etxauzia bere bizitoki. "Baxenabarre eta, bereziki, Baigorrialde izan da emigrazio masiboena sufritu duen euskal eskualdea. Euskal Herriko eta munduko euskaldun guztien zerbitzuko lanean ari izanez, ama lurrera datozen euskaldunentzako aterpe eta harrera leku, eta haien sustraiak ikertzeko gunea izango da", azaldu dute elkarte kideek.

"Gure iraganaren lekuko izan diren gazteluko horma zaharrek hura azaltzeko gune bat aterpetuko dute orain. Ondarearen interpretazio zentro bat izango da; Baigorriko ibarretik Nafarroako erresuma zaharra esplikatuz", azaldu dute Etxauzia Narfarterren Etxea elkarte kideak.

MONDRAGON UNIBERTSITATEAK 13.000 EURO INGURU BIDERATUKO DITU PROIEKTURA

Elikagai-kontserbak batzeko kanpaina, martitzenera arte

Juan Ciudad erakundeak bultzatu du 'Eman-Txapa-Lata' kanpaina Arrasaten, Aramaion eta Eskoriatzan

J.B. ARRASATE

Gutxienez urtebeteko iraungitze data duten kontserbak jasotzeko helburuarekin, *Eman-Txapa-Lata* elikagaiak jasotzeko kanpaina martxan jarri du Eskoriatzan, Aramaion eta Arrasaten

Juan Ciudad garapenerako gobernu kanpoko erakundeak.

Afrikako, Asiako eta Latinoamerikako herrialde txiroetako ospitaleetarako eta gizarte eta osasun zentroetarako kontserbarako elikagaiak jasotzeko

kanpainarekin bat egin du Juan Ciudad erakundeak, eta, horretarako, hainbat gune egokitu dira bailaran kontserbak batzeko: Iturbide zaharren egoitza, Feli janari denda eta San Juan de Dios ospitalea, Arrasaten; Jose Arana zaharren egoitza Eskoriatzan; eta Kintal denda Aramaion. Kontserba-latak gogorak direnez, beharra duten herrialdeetara eramateko produktu egokiak dira, eta azaroaren 21a, martitzena, izango da elikagaiak batzeko azken eguna.



San Juan de Dios ospitaleko langileak elikagaiak batzen. MIREIA BIKUÑA

'A gripea'**JOSU GARITAONANDIA**

'OPARITU ZUHAITZ BAT' EGITASMOAREN
ARDURADUNA
BERGARA

Badaude txertoa hartzeak kalte egin dien pertsonak.

Pentsamendu kritikoa bultzatu nahi dut, ez beldurra, eta, ondo egindako estatistikarekin, pertsona bakoitzak erabaki dezala txertatu edo ez. Esandakoaz gain, gauza asko daude hobetzeko, eta, adibide bezala, 2009-2010 urteetan gertatu zen *A gripea*-ren pandemia gogoratuko dizuet. Azken finean, ez zen pandemia izan; Erresuma Batuko gobernuak Pandemrix txerto asko erosi zituen, Glaxosmithkline laborategiak eginikoak.

60 pertsona narkolepsia gaixotasunak jota gelditu dira, bizitza normala egiteko arazo handiekin, eta, urteetan epaitegian egon ondoren, bakoitzarendako 1,3 milioi euroko kalte-ordaina lortu dute.

Nork ordaindu du? Erresuma Batuko Gobernuak ordaindu zuen; izan ere, txertoa erosteko orduan, sinatutako baldintza bat zen arazoak egonez gero Gobernuaren kontura joango zirela arazo horrek ekar zitzakeen ondorio guztiak.

Ikusten duzuen moduan, negozio borobila farmazia-entresa handientzat; asko saldu, baina ondorioez arduratu ez.

Hobe zuhaitz gehiago, txertoak baino.

Hondakinen trataeran erlaxatzeak zeharkako arazoak larriagotzen ditu**PIITER ENCINAS**

ARRASATEKO EH BILDUKO ZINEGOTZIA
ARRASATE

Hondakinen sailkapen eta tratamenduan erlaxatu egin garelakoan gaude. Urteotan esfortzu handia egin dugu herritarrekin batera gauzak ondo egiteko, baina sumatzen dugu azkenaldian badela utzikeria hastapen arriskutsu bat.

Hori dela eta, OZMA batzordean eskatu diogu Udal Gobernuari arreta gehiago jar dezala arlo honetan eta jarrai dezala sentsibilizazio eta behaketa lanekin. Guri ez digu balio gaia Mankomunitatekoa dela esateak; izan ere, Udala bera izan behar da Mankomunitatean ere eragin behar duena gaia konpontzeko.

Hondakinen sailkapen ezegokia ez da ona, jarrita ditugun birziklapen helburuak betetzeko. Eta hondakinak zabor kontainerretatik kanpo uzteak beste arazo batzuk larriagotu ditzake; esaterako, arratoiaren arazo. Hainbat kexa jaso ditugu herriko zona ezberdinetatik arratoiaren inguruan eta uste dugu arazoaren onarpena dela lehen urratsa. Badakigu BAZen eskaera gehiago egon direla, baina ez dizkigute batzordean eman nahi izan. Guk gaia denon artean lantzea nahi genuen, merezi du eta, baina esaldi hau erantzun ziguten:

"No os vamos a dar esos datos, porque nos vais a crucificar". Zerbaiten beldurra dute, ala?

Guk jarraituko dugu OZMA batzordean gaiari jarraipena egiten eta proposamenak eramaten. Hondakinen sailkapenean gauzak ondo egiten jarraitzea garrantzitsua da EH Bildurentzat, erlaxazioak ez baitigu batere onik egiten. Ala Zubietako erraustegiari egiten dio on?

Berriz ere frankismoaren biktimen duintasunaren aurka**JUAN RAMON GARAI**

FRANKISMOAREN KRIMENEN AURKAKO
KEREILAREN EUSKAL PLATAFORMAREN
IZENEAN
DEBAGOIENA

Erakundeek Memoriaren Eguna ospatu duten egunetan, benetan hunkitu gaitu Legebiltzarrean PNVk eta PPK epaitegi frankisten sententziak desegitearen kontra bozkatu dutela jakiteak, PSE-EEren abstentzioarekin batera, Elkarrekin-Podemosek proposatutako eskaria eragotziz. Sinetsita geunden alderdiek xede hori onartua zutela, euskal gizarte gehiengoak bezala.

Frankismoaren kontrako Plataformak ezin du ulertu, ezta onartu ere, PNVren, PPren eta PSE-EEren jokoa. Horrekin, frankismoaren inpunitate gaiztoa sostengatzera datoz.

Zeharo ustelak dira PNVk emandako argudioak; PPri aurpegia ez ematearren

aitzakia dela esango genuke. Behin eta gehiagotan irten da PNV bere kompetentziatik kanpo dauden auzien alde, Gobernuak helegitea jarri liezaiokeen ardura gabe. Hala izan da Polizien Abusuen Biktimen aldeko lehen dekretuaren kasuan. Helegitea izan badu ere, xede bera duen lege berria ari da prestatzen Jaurilaritza 1978-1999 denboraldirako. Orduan, zergatik ez da ausartzen epai frankistak baliogabetzera?

Demokrata garenok aho batez aitortzen dugu diktaturako epaimahai militarrek eta TOPenak, hain krudel eta gaitzesgarriak, ez zirela legitimoak, ez zirela demokratikoak. Izatez, Espainiako Kongresuak agindutako 2007ko Memoria Historikoaren Legeak espresuki adierazten du lege frankisten legitimitasunik eza, eta horien derogazioa agintzen du. Beraz, beren epaiak baliogabetuak izan beharko lirake. Horixe erabaki du udaberriaren Kataluniako Parlamentuak, guztion adostasunez, PP barne. Espainiako Estatuaren instantziak ez diote inongo helegiterik aurkeztu.

Justiziazko aitortzen hori ez diogu zor bakarrik frankisten altxamenduaren aurka borrokatu ziren milaka eta milaka biktima kondenatuak, fusilatuak eta hainbat eratan errepresaliatuak izan zirenei, baizik eta diktadurak kartzela sistema ankerrenaz zanpatu nahi izan zituen milaka gazteei ere zor diegu,

belaunaldi oso bati. Eusko Legebiltzarra behartua dago Estatuak bere legetan barneratuta dituen hainbat betebeharren haustura nabarmenen aurka agertzera; besterik ez bada, Kataluniako Legebiltzarrekin batera Espainiako Legebiltzarra horretara behartzeko.

Inoiz ez dugu ulertu Jaurilaritzak bere dekretuetan frankistek espetxeratuei atal bat eskaini ez izana. Eta ez dago inongo justifikaziorik diktaduraren epaitegiak eta bere sententziak ez arbuiatzeko. Ardura gabeko jokaera horrek milaka biktima umiliatzen ditu. Bakea eta Elkarbizitzarako Egitasmoa nahiko makala bilakatzen zaigu, baldin eta berrogei urte ondoren hainbeste zigortuarentzat erreparazio judiziala bultzatzen ez badu. Bidezko erreparazioak, gutxienez, epaitegi horien sententziak arbuiatzea eta baliogabetzea agintzen du.

Euskal Plataformak PNVk eta PSE-EEk duten jarrera koldar eta txepela salatu nahi du, ez dutelako aldarrikatu frankismoaren eraso bortitzak jasandako hainbeste militante eta kideren duintasuna, beraien borrokaren kontrako inpunitatearen aztarna guztiak desagerraraziz. Eusko Legebiltzarrek eta Gobernuak bere erabakietan burujabetza eta askatasuna zaindu behar lituzke, gobernu zentralaren kompetentzia trikimailuetan jausi gabe, zeinek ez dituen frankismoaren kutsuak oraindik garbitu.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 2.000 (hutsuneak barne). GOIENAK eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunak ezin izango dira kapituluak bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluak erantzun; gutun bakarrek erantzun beharko dio. Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena, herria, harremanetarako telefonoa eta nortasun agiriaren zenbakia. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate / gutunak@goiena.eus

HAUXE BAI JENEROA!**GARBINE UBEDA**



ZABALIK

BEÑARDO KORTABARRIA

Belarrondokoa ala ipurdikoa?

Bi aukera ematen dizkizute, biak txarrak, baina bat aukeratzera behartuta zaude.

Horixe da, hain zuzen, autobusen gaiarekin guri gertatu zitzaiquina.

Aldundiak bilera batera deitu gintuen, eta, gutxi gorabehera, hauxe esan ziguten: zerbitzua optimizatzeko, egokitzapenak egin behar ditugu autobusen ibilbideetan eta ordutegietan.

Bi aukera mahai gainean: ordu-erdian behingo zirkularra ordubeteko bihurtzea, batetik; bestetik, zirkularra etetea eta maiztasuna mantentzea.

Giro horretan, erabiltzaileengan pentsatzen duzu eta jokoan sartzen zara, maiztasuna mantentzea nahiago duzula esanez, autobusak sarriago ibiltzea hobea delakoan.

Eta ez zara konturatzen egokitzapena murrizketa bihurtu dela.

Giro horretan, herritarrak gogoan, eskaera ere egiten duzu:

Bergarara doazen autobusen lehen geldialdia Ibargarai izan dadila.

Eta bileratik gustura ere irteten zara:

"Transbordoak egin beharko dira, baina maiztasuna mantendu da eta Zumarraga-Bergara-Zumarraga linea

motza denez, ez da atzerapenik egongo. Eta, gainera, antzuolarrok Bergarako lehen geldialdian jaisteko aukera izango dugu".

Gerora datoz herritarren kezak udaletxera, eta orduan jabetzen zara zelako garrantzia duen jendearentzat Eskualdeko Ospitalera autobusetik jaitsi barik joan ahal izateak, edo unibertsitatera edo Aretxabaletako egoitzara; orduan konturatzen zara adinekoentzat zelako zaila den autobusera igo eta jaisten ibiltzea, zelako gogorra egiten den hurrengo autobusari itxoiten egotea...

Dagokizuna eginez, bideratzen diozu erreklamazioa dagokionari, eta denbora badoa.

Murrizketa egokitzapenez jantzi, amua irentsi, eta dagoeneko ondotox dakizu belarrondokoaren eta ipurdikoaren artean aukeratzera behartu zintuztela.

Konpontzen den bitartean aukerarik ez dago: belarrondokoak eta ipurdikoak, denak Udalarari opari.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Bolanderak

MIKELE LANDA

[HTTPS://LABUR.EUS/VNPLJ](https://labur.eus/vnplj)

Bihotz gorridun erregea erreginarene gainean jartzea baino ez da falta jokoa amaitzeko. Kartak ordenatzeari eskaini diozun denbora guztia bere saria ematear da. Azken mugimendua egin eta hara hor horrenbeste esperotako bolanderak. Bizitza karta joko batekin alderatu beharko banu, Solitarioa aukeratuko nuke. Ez izenburuaren esanahiagatik, horrek ere emango lukeen arren Larrepetit bat idazteko beste mami; horrenbeste esperotako bolanderengatik baizik.

Ezina ekinez egina eta Ametsak betetzea bezalako zoriontasunik ez dago munduan esaldiak ondo ikasita dauzkagu etorkizunera begiratzeko gaitasuna eskuratu genuen egunetik. [...]

Hasteko espektatibak sortzen dizkizute: zoriontasuna hegan egitearekin pareka daitekeela sinetsarazi, orgasmo zerutiar bat izango omen da. Sutsuki borrokatutako helburua eskuratzean poztasuna sentitzen da, noski; baita satisfazioa ere, zeure buruarekin harro senti zaitezke. Baina sentipena espektatibek markatutako distiratik urrun egongo da. Oinak lurretik aldentzen ez

direla ohartzean, egikaritu berri duzun helburua agian ez zela benetan desira zenuena otutzen zaizu. Beraz, gorago dagoen izar batean jarriko duzu itua. [...]

Lortu nahi diren helburuekin amestea zilegi da.

Ordea, komeni da kontuan izatea azken karta ipini osteko saria ordenagailuko pantailan eztanda egingo duten pixel koloretsuen zaparrada baino ez dela izango. Poztu egingo zaitu, baina ez zaitu orgasmo zerutiar batek zeharkatuko, eta sentipenek espektatibekin talka egin bezain laster saihetsezina izango zaizu "Hau da dena?" pentsatzea.

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Aitor Izagirre.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.

Eduki zuzendaria

Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Ubane Madera,
Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.

Administrazio zuzendaria

Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna

Marta Leturia.

Sailletako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).

Maketazioa

Imanol Soriano, Aitor Lagoma.

Publizitatea

Amala Mundiñano,
Ziortza Martin,
Imanol Eiorza.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31

Tel.: 943 25 05 05

harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31

Tel.: 943 25 05 05

Faxa: 943 25 05 00

publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31

132 posta-kutxa

Tel.: 943 25 05 05

Telegram eta WhatsApp:

688 69 00 07

berriak@goiena.eus

Lege Gordailua:

SS-965/2014

ISSN: 2174-369X

Tirada: 19.000 ale

Difusioa: 18.723 ale

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta
Hizkuntza
Politika Sailak
(Hizkuntza
Politikarako
Sailburuordetzak)
diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Ideologia bat bera ere zapaltzen ez duen liburua da"

IÑAKI AZKOAGA SOZIOLOGOA ETA IDAZLEA

Mireia Bikuña ARRASATE

Vasco, ¿cómo se llama tu país? galderari erantzuna ematen saiatuko da Iñaki Azkoaga arrasatearra, izen bereko liburuan. Aste honetan aurkeztu du, eta dagoeneko eros daiteke, paper formatuan eta formatu elektronikoan.

Eta, nola esaten diote gure lurraldeari?

Segituan, hainbat berba etorriko zaizkigu burura: Euskal Herria, Euskadi, Pais Vasco, Vasconia, Basque Country... Izen asko daude.

Eta, zein da egokiena?

Aproposena?

Izen horien gainean berba eta eztabaida egin izan dugu etxean, lagunekin, kalean...

Eta konturatzen gara gehienok gure hautua eginda daukagula. Gure iritziak eta sentsibilizazioak ditugula.

Orduan, irakurleak baldintzatuta egon daitezke?

Edonork irakur dezake liburua, baina nork bere ideiak eta iritziak alde batera utzi beharko ditu, liburua



Iñaki Azkoaga, Arrasaten. MIREIA BIKUÑA

irakurtzen hasi aurretik. Hutsetik hasi beharko luke. Gomendio bat da. Buru irekiarekin hurbildu beharko litzateke arazora. Horregatik, liburuaren lehen kapituluaren izenburua *Zergatik, ez?* da.

Buru zabalarekin eta borondatearekin errazago hurbilduko gara arazora, eta errazago izango da soluzio bat topatzea. **Eta soluzio hori posible dela uste duzu?**

Bai. Alternatiba bakarra egon barik, badaude aukerak. Berbak, banaka-banaka, zatikatu egiten badira, aukera ezberdinak topatu daitezke. Ni ez naiz historialaria edo filologoa. Soziologoa naiz. Kazetaritza munduan ibilitakoa, eta liburuak ikuspuntu hori dauka. Historian oinarritutakoa, baina ikuspuntu horrekin. **Liburua aurretik atzera eta atzetik aurrera irakur daitezke.** Bai, baina buru irekiarekin. Bukaeran, nire proposamenak daude. Horietara nola heldu naizen jakiteko, hasierako kapituluak irakurri beharko dira. Nire asmoa izan da liburu irekia idaztea. Ideologia guztietara zabalduakoa, eta ideologia bat bera ere zapaltzen ez duen liburua. Izen bakarra topatzeko bidean zer egin daitekeen aztertu gura izan dut.

Non erosi edo irakurri daitezke liburua?

Lehen edizio mugatu bat kaleratu dut eta laguneren artean banatu dut. Orain, zabalago bat egingo dut, guztien eskura ipintzeko, Tttukun inprimategian. Era berean, Internetez ere erosi ahal izango da, paperean edo liburu elektronikoetan irakurtzeko.

HAU BE BADOGU!

Futboleko Euskal Selekzioa, Ipuruan



Gizonezkoen Euskal Selekzioak ez du Gabonetan partidurik jokatu, erabiltzaileen haserretarako, baina emakumeek Txekiar Errepublikaren kontra jokatu dute azaroaren 25ean.

@sdeibar: "Emakumezkoen Euskal Selekzioa Ipuruan! Txekiar Errepublikaren aurka jokatu du eta sarrerak salgai dira jadanik".

Aitor Arregi oñatiarra, 'Cuarto Milenio' saioan



Altzoko handia-ren eta *Handia* filmaren beraren inguruan mintzatu zen zinemagile oñatiarra Iker Jimenez aurkezlearekin *Cuatro* kateko saioan:

@navedelmisterio: "1818. urtean Miguel Joaquin Eleizegiren historia eraikitzen hasi zen, gero Altzoko handia bezala ezaguna izango zena. 'Cuarto Milenio' saioan gertutik ezagutuko dugu bere istorioa" (itzulita).

Altsasu, berriro hizpide urtebeteren ostean

Taberna bateko liskar batengatik Altsasuko hiru gaztek espetxean 365 egun daramatela salatuzko, #Altsasu eta #altsasukoakaste traolak erabili dituzte hainbat erabiltzailek asteon, eta gaia *rending topic* izan da Estatuan ere.

@altsasugurasoak: "Oztopoz betetako urte ilun bat izan da. Zuen elkartasuna, gure itsasargia. Behar zaitugu! #Altsasu #EH."

ITURRI ONETIK

'Kantari' karaokea Seminarixoa

Bergarako Errege Seminarioko kultura aretoa, Seminarixoa, abenduaren 24an irekiko dute. Olentzerok eta Mari Domingik udaletxean egin ohi duten harrera eta gutun jasotze unea areto berrian egiteaz bat, baliatu nahi dute Seminarixoa areto ireki ekitaldia egiteko herriararen aurrean. Horren ostean, abenduaren 30erako, zapatua, Sutargi eta Gabero abesbatzen emanaldia iragarri dute. Eta otsailaren 3an eta 4an *Kantari* grabatuko du Goiena telebistak, Zabalotegin beharrean. Izan ere, karaokea bueltan dator.

GORA ETA BEHERA



Harriei eusteko hesia Arrasateko Otalora kalean

"Oso erabaki ona; aspaldi behar luke jarrita, baina ondo etorria izan dadila". Halaxe hasten da irakurle batek bidalitako mezua. Hain zuzen, Santa Barbaratik Otalora kalera jausi ohi diren harri-koskor eta lur zatiei eusteko edota espaloira ailegatu ez daitezkeen azkeneko erroi ziren joan zen astean, euriteen ostean. Arrasateko Udalak jarri duen hesia dela-eta pozik dago.





GI-627 errepideko zati horri buruzko datuak eskatu zituen EH Bilduk. XABI GOROSTIDI

2015etik hona 100 istripu Epele-Eroski tartean

EH Bilduren ustez, kopuru "kezkarriak" dira, eta istripuak gutxitzeko neurriak jartzeko eskatu die Batzar Nagusiei; Azpiegitura Sailak, berriz, dio tarte horretako arrisku-indizea ez dela handia, ez baita istripu ugari bide-zati izatera heltzen

Xabi Gorostidi ARRASATE

EH Bilduk Batzar Nagusietara eramane du Kataideko bihurtu-nearen gaia. Arrasateko Udal taldearen ekimenez aurkeztu zuen gaia Iban Asenjok, EH Bilduko batzarkideak. Puntu horretan istripuak ohikoak direla ikusita, datu konkretuak eta konponbideak eskatu zizkioten Foru Aldundiko Azpiegitura

Sailari. Euren iritziz, gune hori berriz asfaltatzeak, peralteak jartzeak edota abiadura neurtzeko radar bat jartzeak istripu kopurua gutxituko luke.

Aldundiaren erantzuna

Foru Aldundiko Azpiegitura Sailaren lehen erantzunak zioen EH Bilduk aipatutako bihurtu-ne horretan istripu bakarra izan

zela, eta ez zela neurriak hartzeko moduko datua.

Baina datua okerra zen, eta Aldundiak beste erantzun bat emango zuela jakinarazi zuen. Batzar Orokorretako azken osoko bilkuran landu zuten gaia berriz, eta bertan, Herrizaingo Sailak emandako datuak landu zituzten. EH Bilduren eskaria Kataideko bihurtu-ne konpre-

tuari buruzkoa izan arren, Azpiegitura Sailak Epeleko eta Eroskiko biribilguneen artean emandako datuekin erantzun zuen. Horien arabera, 2015etik 2017ko abuztura arte 100 istripu izan dira GI-627 errepide tarte horretako bi noranzkoetan.

EH Bilduren ustez, 100 istripuko zifra hori "kezkarria" da, eta, hain zuzen ere, ondorengo bi ebazpen proposamenak egin dizkiote Foru Aldundiari: lehen, Arrasateko GI-627 errepidean gertatzen ari den istripu kopuru handiari aurre egiteko, bere eskumenen barruan, lehenbailehen, neurriak har ditzala, hala nola asfalto egokia jarrita edota peralte berria sortuta. Eta bigarrena, bere eskumenez gain egon litezkeen beste neurri batzuk Arrasateko Udalarekin eta Eusko Jaurlaritzako Barne Sailarekin adostu eta koordina ditzala.

"Arrisku indizea ez da altua"

GOIENAK datuak kezkarriak iruditzen zaizkien galdetuta, hauxe erantzun du Azpiegitura Sailak: "Errepideen arrisku maila neurtzen duen *istripu ugari bide-zati* indizearen arabera, arrisku-indizea ez da handia zati horretan". Ertzaintzaren esanetan bertako istripuen eragile nagusia gehiegizko abiadura dela esan zuten.

Datuak aztertu ostean, ondorengo neurriak iragarri dituzte: "Bide zati hori 2017ko zoruak auskultatzeko kanpainan sartu da, zoruak benetan zer egoeratan dauden egiaztatzeke. Lortzen diren datuen arabera, 2018ko zoru-kanpainan sartuko ahalko da. Edozelan ere, aipatu beharra dago 2016ko uztaillean, 38. eta 39. puntu kilometrikoen artean zoru birgaitu egin zela".

Zeintzuk dira arrisku indize nagusiak?

Puntu beltza eta istripu ugari bide-zati izendapenak dira erabilienak, eta honela definitzen ditu RACEK.

Puntu beltza: Urtebeteko epean zauritua hiru istripu edo gehiago izan dituen gunea. 100 metroko tarte izan daiteke, gehienez, eta ez du zauritu larrien, arinen eta hildakoen artean bereizten.

Istripu ugari bide-zatia: Beste bide batzuekin alderatuta istripu maiztasun handiagoa duten bideak, non, esku hartze bat eginez gero, istripu maiztasuna jaitzi daitekeen. 1 eta 3 kilometro arteko tarteak dira, eta hiru urteko epean neurtzen dira. Bi faktore hartzen ditu kontuan: zaurituak eragin dituzten istripuen kopurua eta egunean zehar igarotzen den auto kopurua. Formula bat aplikatuz, antzeko ezaugarriko errepideen batez bestekoaren gainetik dauden horiek dira.

Istripuak urteka:

- **2015:** 29 istripu eta 14 zauritu arin.
- **2016:** 45 istripu, bi zauritu larri eta 26 arin.
- **2017:** 26 istripu, lautan izan dira zauritu arinak

Herriko ikastetxeetako patioak, eskola orduetatik kanpo zabalik

Hori egiteaz bat, 22.597 euroko inbertsioa egingo du Udalak jolasleku horietan hobekuntzak egin daitezen

X.G. ARRASATE

Herriko ikastetxeek eta Udalak akordioa egin dute, ikastetxeetako patioak eskola orduetatik kanpo zabalik egon daitezen. Horren truke, Udalak jolasleku horiek atontzeko konpromisoa

hartu du, eta 22.597 euro bideratuko ditu zeregin horretara. Institutuan, patineteentzat hamabost aparkaleku, lau banku eta aterpea jarriko dituzte. Erquinen, bizikletentzat sei aparkaleku eta patineteentzat 30, eta

ping-pong mahaia. Horrez gain, Muralart taldeak hiru jolas margotuko ditu lurrean.

Bedoñaben bi banku jarriko dituzte. Arizmendiren Arimazubi gunean, sei aparkaleku bizikletentzat, 15 patineteentzat, sei banku eta ping-pong mahai bat. Arizmendiren Gazteluondo gunean, bizikletentzat 6 aparkaleku, eta bi frontoiak margotu egingo dituzte. Arizmendiren Santa Teresa gunean patineteentzat 15 aparkaleku, banku bat, eta frontoia margotu egingo dute.



Erguingo Herri Eskolako jolaslekuak. LARRAITZ ZEBERIO



Amaia
Txintxurreta
Kantari
aurkezlea.

6. ALDIA

Kantari

BADATOR!

- Goiena Komunikazio Taldeak KANTARI karaoke-ikusizuna antolatu du 6. aldiz.
- Urtariletik aurrera egingo dugu KANTARI. Beraz, Debagoiengan bizi bazara, 2006-2010 urteen artean jaio bazinen (biak barne) eta euskal kantuak abestu eta dantzatzeko prest bazaude, animatu eta eman izena.
- Gutxienez, hiru laguneko eta gehienez bost laguneko taldeak osatu beharko dituzue. Abestiak zozketa bidez banatuko ditugu.

Izena emateko epea: azaroaren 20tik 24ra.

- Aurten, Goiena.eus atarian sartu eta bertan eman beharko da izena.
- Gogoratu helbide elektronikoa eta telefono zenbakia ongi jarri dituzuela ziurtatzeaz. Zuekin harremanetan jartzeko bide horiek erabiliko ditugu eta.

Informazio gehiago: 943 25 05 05 / 688 69 00 04 /
blogak.goiena.eus/kantari

goiena[™]





Txaboletako erabiltzaileetako bat ortuan, eta parez pare Agerre kaleko etxebizitza blokea. XABI GOROSTIDI.

Agerre kaleko txabolak, desagertzeko bidean

Txaboletako kanalizazioek eragindako uholdeengatik, zaratengatik, usainengatik eta zikinkeriatatik kexu dira bizilagunak, eta 400 sinadura batu dituzte txabolak kentzea eskatzeko. Hori gauzatzeko, txosten juridikoa egiteko zain dago orain Udal Gobernu

Xabi Gorostidi ARRASATE

Santa Marina auzoko Agerre kalearen atzealdean txabola eremu handi bat dago, duela 50 urte inguru erabiltzen dena.

Hainbat erabilera dituzten txabolak dira: ortuak lantzeko, oilategi txikiak jartzeko eta ehi-zaraku txakurrak edukitzeko.

Lurzoru hori pribatua da, ez da udal lur publikoa. Bertako erabiltzaile batzuen arabera, bere garaian lurren jabeekin akordiora heldu ziren partzelak diru truke erosteko, baina jabetze horiek ez daude legalki jasota.

Arrasaten badaude antzerako txabola eremu gehiago Makatzenan eta Erguinen, eta Zigorrolan ere egon zen, egun Mojategi dagoen inguruan. Baina Agerre kaleko txabola eremuak badu berezitasun bat: etxebizitza blokeetatik oso gertu dagoela.

Bizilagunen kexak

Bertako bizilagunek urteak daramatxate txabolak gertu iza-

tearen eraginak jasaten. Askotariko kexak dituzte. Zikinkeria arazoak daude, eta, horrez gain, arratoi asko erakartzen dituen gunea da, besteak beste, bertako animalien pentsuagatik. Hori gutxi ez balitz, uda partean intsektu pilaketa handia izaten da inguru horretan.

Zikinkeriak eragiten dituen usainez gain, suak piztu eta

barbakoak egiteko ohitura izan dute txaboletako erabiltzaileek, eta ke horrek zuzenean du eragina bizilagunengan. Txakurrek gauean ateratzen duten zarata da beste kexa iturri bat.

Baina aipatutako arazo guztiez gain, badago Udalaren eskuhartzea eragin duen beste kalte bat: txaboletako ur-kanalizazioek eragiten dituzten ur-uholdeak.



OSCAR GARCIA
PSE-EE

"Bizilagunek arazo ugari dituzte. Sinadura bilketa garrantzitsua egin dute, eta arazoari konponbidea bilatzen ahaleginduko gara".



ANTONIO LOZANO
TXABOLA ERABILTZAILEA

"Ortuek gauza asko ematen dizkigute. Hauek ez balira egongo, dena sastrakaz beteta geratuko litzateke. Nire uestez, inbidiagatik bota nahi gaituzte".

SINADURA BILKETA EGINDA, LKS TXOSTEN JURIDIKOA EGITEN ARI DA KALERATZEAK NOLA EGIN IKUSTEKO

Aldapa baten gainean eraikitako txabolak direnez, euri jasa handiak daudenean urak zuzenean jotzen du etxebizitzaren aurka, eta bertako garaje eta lokalak urez betetzen dira.

Horren harira, otsailaren 28an, ur-uholde handi baten eraginez emergentziazko esku hartze bat egin zuen Udalak, ura bideratzeko hormigoizko kanalizazio bat eginda. "Larrialdia konpontzeko neurria izan zen, baina momentu hartan konturatu ginen arazoa ez zela ur kanalizazioa, txabolen presentzia baizik. Uholdeez gain, bazeudela bizilagunei zuzenean eragiten zizkien beste hainbat arazo", azaldu du Obra, Zerbitzu, Mantentze eta Auzoetako batzordeko buru Oscar Garcia zinegotzi sozialistak.

400 sinadura batuta

Txabolek sortzen dituzten kalteak amaitzeko, auzoko bizilagunek sinadura bilketa hasi zuten 2016an, eta 400 sinadura batzea lortu dute. "BAZen jarritako kexa indibidualak ikusita, sinadura bilketa bat egitea proposatu nien bizilagunei. Kexei izaera kolektibo bat emanez gero, Alderdi Sozialistak arazoa konpontzeko konpromisoa hartuko zuela esan genien", azaldu du Garcia.

"Orain, LKSri eskatu diogu txosten juridiko bat egin dezala, txabolak kentzeko prozesua nola egin daitekeen ikusteko. Bestalde, hori egin aurretik, txaboletako erabiltzaileekin bilerak egingo ditugu, eurekin irtenbideak jorrazteko. Garagartzako ortuak erabiltzea izan daiteke irtenbideetako bat".

Erabiltzaileak, arduratuta

Txaboletako erabiltzaileen artean ardura eta haserrea dira nagusi. Eurenak botaz gero, Erguingo txabolak ere botatzea eskatzen du Angel Vargas erabiltzaileak.

Bertan ortua duen Antonio Lozanorentzat, aldiz, euren ortuek ez dute kalterik egiten, eta euri jasetako urei eusteko balio dutela gaineratu du.

Azaroaren 25aren baitan hiru ekintza antolatu dituzte

Ekin Emakumeek, Pottogorriek, Arrasateko Emakumeen Mundu Martxak eta Berdintasun Sailak antolatu dituzte. Zapatuan, autodefentsa feminista tailerra, azaroaren 25ean manifestazioa eta ekitaldia eta abendaren leian indarkeria matxistari aurre egiteko esku hartze komunitarioen hausnarketa. Informazio osoa Goiena.eus webgunean.

Hondakinen trataeran erlaxazioa igarri du Arrasateko EH Bilduk

Gai horretan "urteetan esfortzu handia" egin arren "erlaxatzeak" ez duela onik eragiten aipatu dute komunikabideetara bidalitako oharrean. "Hori dela eta, OZMA batzordean eskatu diogu Udal Gobernuari arreta handiago jar dezala arlo horretan, eta jarrai dezala sentsibilizazio eta behaketa lanekin. Guri ez digu balio gaia Mankomunitatekoa dela esateak; izan ere, Udala bera izan behar da Mankomunitatean ere eragin behar duena gaia konpontzeko".

Horrez gain, batzorde berean arratoiekin lotutako kexen informazioa eman ez zaiela aipatu dute. Oharra Goiena.eus atarian dago ikusgai.

Urteko azken baserritar azoka postre lehiaketarekin

Azarokoa izango da hileko hirugarren zapatuan egiten diren baserritar azoken azkena, abendukoa Santamas egunean bertan egiten delako.

Zapatu honetan, gainera, tailer berezi batekin dator azoka: sa-soiko eta bertako produktuen postre lehiaketarekin.

Postrearen formatua librea izango da, baina, gutxienez, honako osagai hauetako bi izan beharko ditu: hurra, intxaurra, kalabaza, sagarra, ezti edo gazta.

12:30ean ekingo diote sarituak aukeratzeari, eta Seber Altube plazara gerturatzen direnek postre sarituak dastatzeko aukera izango dute.

"Garaiko ikonografiak presentzia izango du"

MIKEL ALBERDI ZUMALAKARREGI MUSEOKO ARTXIBO ARDURADUNA

'I. Karlistada Euskal Herrian. Udalatxetik begirada bat' izeneko hitzaldia eskainiko du azaroaren 22an, Kulturaten, AZEK antolatu duen 'Iragana astintzen' zikloaren barruan

Xabi Gorostidi ARRASATE

Karlistaldietan aditua da Alberdi, eta, hain zuzen, ez da gai horri buruz hitz egitera Arrasatera datorren lehen aldia.

Lehenengo Karlistada Euskal Herrian. Udalatxetik begirada bat du izena eskainiko duzun hitzaldiak. Zer landuko duzu bertan?

Lehenik eta behin, onartu beharra dago hitzaldia erakargarriago izate aldera jarri diogula *Udalatxetik begirada bat* esaldia tituluan. I. Karlistaldian zehar ez zen gertakari nabarmenik izan Arrasaten bertan, baina bai inguruko herrietan: Oñatin eta Bergara, adibidez. Orduan, begirada goraxeago jarrita, Udalatxetik, bertatik ikusten diren guneetan gertatukoak landuko ditugu.

Arrasate inguruan jarriko duzu fokua, baina zein gertakari aipatuko dituzte bertan?

Lehenik eta behin, errebaso orokorra egingo diogu testuiguru historikoari. Frantziako

Iraultzatik hasi eta I. Karlistaldia hasi bitartean gertatutakoak jorratuko ditut. I. Karlistaldia ondo ulertzeko 40 urte atzera egitea garrantzitsua da, nire ustez.

Zumalakarregiren figuran aditua zara. Ahalegina egingo al duzu hari buruzko jakintzan sakontzeko?

28 urte daramatzat museoan lanean, eta duela ia 18 urte argitaratu nuen hari buruzko liburua. Karlistaldia azaltzeko ezinbesteko pertsonaia da; are gehiago, gerrak Gipuzkoan izan zuen eraginean zentratuz gero. **Aipatuko al duzu Arrasaten konkretuki gertatuko zerbait?**

Arrasateko gertakaririk ez, baina arrasatearrek gerran izan zuten presentzia aipatuko dut. Arantzazu erre zuteneko pasarte landuko dut, eta, Arrasaten ez gertatu arren, bertako herri-tarrengan eragina izan zuen.

Zumalakarregiri buruz asko dakizun arren, ba al dago tarterik, gaur egun, orain dela 200 urteko per-

tsonei buruzko gauza berriak jakiteko?

Bizitzako beste edozein arlotan bezala, zenbat eta gehiago sakondu, orduan eta gutxiago dakizula ohartzen zara. Historia kontuetan, gainera, are gutxiago. Arrasate Zientzia Elkarteko kideei berdina gertatzen zaielakoan nago.



Mikel Alberdi, Zumalakarregi museoko artxibo eta ikerketa arduraduna. MIKEL ALBERDI

Euskarri bisualik erabiliko duzu?

Karlistaldia amaitu arte ez zen argazkilaritza jai, 1840an asmatu baitzen. Beraz, garaiko ikonografia erabiliko dugu, mar-

golanak eta grabatuak, batez ere. Horietako interesgarrienak britaniarrek eginikoak dira, 10.000 bat soldadu etorri baitziren, baita hainbat irudigile ere.

BASERRITARREN AZOKA ETA POSTRE LEHIAKETA



Azaroak zapatua 18

Arrasateko Seber Altube plazan (08:00 - 14:30)

Postre Lehiaketa

11:00 Postre lehiaketaren hasiera

12:30 Sari banaketa

Ondoren, lehiaketarako postre dastatzea.



Xiberoako ikastolak laguntzeko saskiak eskuragarri daude

Goiena komunitatea

AED / ARRASATE

Beste urte batez, Xiberoko ikastolei bultzada ematea helburu duen *Ikaskoli* kanpaina dakargu. Aurtengoan ere hango ekoizleen produktuekin osatutako bi saski eder jarri dizkigute aukeran: Ahuzki (40 euro) eta Irati (52 euro). Otarreak eskatzeko, jo AEDra edo Ereindajan-era abenduaren 11 baino lehen.

Horien salmentatik jasotako dirua Alozoko eta Sohütako ikastoletara bideratuko da. Bertako ikastolen finantziazioan %30 jartzen dute gurasoek eta %20 administrazioek. Gainerako %50a horrelako gizarte ekimenen bidez finantzatzen dute.

Txatxilipurdiren 'Jostailu truke' merkatua laster

Erabiltzen ez diren jostailuei bizi berria emateko asmoz dator berriz Txatxilipurdik antolatzen duen *Jostailu truke* merkatua.

Helburua oso garbia da: erabiltzen ez diren jostailuak berrabiltzea, eta trukean beste jostailu interesgarriago bat aukeratzea.

Horretarako, bi hezitzailek azaro eta abendu bitartean jostailuak bilduko dituzte Arrasateko auzo eta txoko ezberdinetan. Horien truke, txartelak banatuko dituzte, ostean, abenduaren 16ko jostailu merkatuan beste bat hartzeko. Jostailuak eraman nahi dituztenek *Goiena.eus* webgunean ikus ditzakete ezarritako hitzorduak.



Josu Larreategi aginduak ematen jokalariei, La Flecharen kontrako norgehiagokan. IMANOL SORIANO

Inflexio-puntua, behetik gorako bidea hasteko

SASKIBALOA MUK azken-aurreko postuan dagoen Valle de Egues taldearen kontra jokatu du bihar (18:30, Iturripe); lesioek eta egutegi zailak ez dituzte gauzak erraztu; hemendik aurrera euren benetako maila erakusten hasteko esperantza dute


Xabier Urzelai ARRASATE
Orain arteko zortzi jardunaldietan, hainbat motiborengatik, Mondragon Unibertsitateak ez du kantxan egiteko kapaz dena erakutsi. Zaleek bi garaipenekin gozatu ahal izan dute, eta, aparteko protagonismorik eman gabe, Justin Satchell-en lesioak -kluberari iritsi eta berehala- balio du erakusteko arrasatearrek izan dituzten zailtasunak. "Martxel arazo fisikoekin dabil, eta, hala ere, kantxan taldeari lagundu gura izan dio. Diegok giharretako arazoak ditu, Gorka Arejori aste barruan baieztatu diote orkatilan ebakuntza egin beharko diotela -agur denboraldiari- eta Justin Satchell-ek lesionatuta egin du azken hilabete luzea", adierazi du taldeko ordezkari Juankar Davilak. "Eta, hala ere, taldea moralki ondo ikusten dut, gazte hauek entrenatzen ikustea besterik ez dago, gauzak ondo egiteko gogotsu daude. Baina bai, lesionatuak lehenbailehen errekuperatu

behar ditugu, eta gure benetako maila erakusten hasi".

Egutegia aldeko

Liga hasiera honetan izan dituzten kontrarioetako asko taularen erdialdetik gorakoak izan dira, eta Gabonak bitartean, Santurtzi salbu, gainontzekoek ez dute aparteko sendotasunik erakutsi: "Baina ezin gara ho-

rrekin fidatu; kontuz sailkapenak zer erakusten duen. Izan ere, esango nuke gure partidu txukunenak goian dauden taldeen kontrakoak izan direla. Esaterako, Zornotza lider dago, eta euren kontra egindako partiduaz oso arto gaude [131-97]". Badaezpada, biharko kontrario Egues azken-aurreko postuan dago, izan dadila inflexio-puntua.



IKER BABERO
MU-KO JOKALARIA

"Pozik nago etxera bueltatzeaz. Valentzian egindako urtea oso positiboa izan zen, baina Cuencan ez nengoen gustura. Taldeari laguntzera gatoz".



JOSU LARREATEGI
MU-KO ENTRENATZAILEA

"Easoren kontra mentalizazioan egon zen gakoa, ez genuen sinistu partidua irabazteko kapaz ginenik. Hori hobetu behar dugu aurrera begira".

Lider dagoen Basauriren kantxan jokatu du Ford Mugarrik

ESKUBALOA Bi partidu jarraian galdu eta gero, Arrasatekoek Donibaneren lepotik zuzendu dute bidea

X.U. ARRASATE

Ez da oso ohikoa Ford Mugarrik Arrasate bi partidu jarraian galtzen ikustea. Horrek erakusten du azken urteotan non jarri duten listoa, baina azken partiduetan, Txikipoliten (23-17) eta Urdanetaren (28-31) kontra alarimak piztu ziren, beste batzuetan aprobetxatu izan dituzten aukeak pasatzen utzi dituztelako. Baina, bi jardunalditako kontua baino ez da izan, txakalaldi labur bat; joan den astean, Donibane mendean hartu zuten, kanpoan gainera (23-39), eta arrasatearrek ostera ere aurrera begira daude.

Basaurik ere beherakada

Arrasatekoak ez dira, baina, liga hasiera honetan makalaldi bat izan duten bakarrak, denak despistatu dira pare bat jardunalditan. Esaterako, asteburuan Ford Mugarriren kontrario izan-



Jaurtiketa egiteko gertu. GOIENA

go den Basaurik -zapatua, 16:30, Basauri- badaki aurtan ez dagoela lorik hartzerik, Txikipoliten eta Corazonistaren kontra galdu egin zuten eta. Nahiz eta egia den, baita ere, segituan zuzendu zutela bidea: lau garai-pen daramatzate jarraian.

KIROLDEGIA Astebetez itxita egongo da igerileku handia

Desinfekzio sakona egin behar dela eta Musakolako barruko igerileku handia itxi egongo dute astebetez -txikia erabilgarri egongo da-. Hala, Aretxabaleta, Bergara eta Eskoriatzako udalekin adostu dute Arrasateko igerilekuko abonatuak bertara joan ahal izatea kosturik gabe. Aurreikusten dute azaroaren 23an zabalduko dutela igerilekua.

ARETO FUTBOLA Ligako lehen garaipenaren bila Mondratekoak

Euskal Ligan malda gora jarri zaio liga Mondrateri, arrasatearrek aurreikusitako baina zailtasun handiagoak izaten dabilta eta kategoria berrira egokitzeko. Sei jardunaldi jokatu dituzte, eta oraindik ez dute punturik batu. Hala, egoera horri buelta eman gura diote zapatuan (Musakola, 17:30) Gora Bilbao taldearen kontrako partidua irabazita.

KARATEA Arrasateko hiru ordezkari Presidentes Sarian

Joan den asteburuan Gallartako kiroldegian jokatu zuten Presidentes Sariko VII. edizioa. Kantabriako ordezkariekin batera EAeko karatekak ere izan ziren, eta tartean Saioa Karate Taldeko Aitor Lasagabaster, Jokin Martin eta Ane Garcia -kadete mailan-. Azpimarratzeko lana egin zuen Ane Garciak, finale-raino iritsi zen eta.

KARATEA Aitor Lasagabaster, Euskal Selektioarekin

Gaur hasi eta domekara bitartean egingo dute, Santiagon (Galizia), Espainiako Karate Txapelketa. 21 urtez azpikoak, juniorrak eta kadete mailakoak lehiatuko dira han, eta Euskal Selektzioa ordezkatzeko ibiliko da Arrasateko Saioa Karate Taldeko Aitor Lasagabaster. Hain zuzen ere, kadete mailakoekin lehiatuko da hura.

"Zirikatzeko eta adarra jotzeko da rock-and-rolla"

JOSU ARTEAGA LA BANDA DEL ABUELO

Bost urte diskorik atera gabe egon ostean, 'Rockanrolla mailu bat da' izeneko CD-liburua grabatu berri du rockaren ghettoan bizirauten duen hirukoteak

Xabi Gorostidi ARRASATE

2012an kaleratu zuten azken diskoa *-La sed del fuego-*, eta lan berria besapean dutela datoz orain, betiko izaera zirikatzaileari uko egin gabe.

Azken lana 2012an atera zenuten. Zer gertatu da taldean ordutik hona?

Duela bost urte laukotea ginen, baina taldeko *showman*-ak lana aurkitu zuen. Taldeak exijitzen dituen konpromisoei eusteko zailtasunengatik, hau uztea erabaki zuen eta hirukote moduan gelditu gara. Egia da laukote erara errazagoa dela agertokia betetzea, baina, musikalki, Motorhead bezalako hirukoteen soinua betidanik gustatu izan



Arteaga behetik lehena da. TXEBI CC-627

zaigu, eta abesti berriak konposatzeari ekin genion.

Hirukoteek beti dute meritu handiagoa, ezta?

Zuzenekoetan, batez ere, zailagoa da hirukote moduan jotzea, akatsak igartzeko tartea asko zabaltzen delako. Baina diskoan gitarra mordo sartu ditugu. Grabazioa beste mundu bat da.

Rockanrolla mailu bat da CD-liburua zer aurkitu dute zaleek?

Nahiko arrakasta izan duen nobela bat atera nuen, *Historia universal de los hombres gato* izeneko. Berriki argitaratu da bigarren aldiz, Mexikon ere salduko da laster, eta frantsesera itzuli dute. Bigarren pasarte bat

argitaratzeko eskatu zidaten argitaletxeek, baina, familieren, taldearen eta bestelako gauzen artean, ez dut astirik. Orduan, liburuko pasarte batzuk atera ditut, eta CD barruan sartu ditugu. Zertarako? Nagusiki, Rajoyk eta konpainiak %21eko BEZa jartzen dietelako CDei, eta liburuei, aldiz, %4koa. Beraz, CDa liburu barruko opari gisa salduko dugu, eta %4ko zerga izango du.

Mailuek gauzak apurtzeko balio dute. Zer apurtu nahi duzue zuek?

Rock-and-rolla industria hutsa bilakatu da. Baina, hastapenetan, zirikatze eta adarra jotzeko bidea zen, eta guk horretan sinesten dugu.

Zuen azken lanak oihartzuna izan zuen Amerika aldean. Ba al daukazue han jotzeko asmorik?

Oraingoan, irteeratxoak lotu ditugu Madrilerako eta baita Andaluziarako ere. Bartzelonan ere kontzertu bat lotu nahian gabilta. Aurreko diskoarekin, Kuban jotzeko aukera eskaini ziguten, baina ezinezkoa izan zen data aproposa aukeratzea. Aipatutako irteerez gain, inguruko bazterretan ere joko dugu.

Julio Galartaren erakusketa bihar amaituko da

Margolaria jaio zela ehun urte bete direla baliatuz, Kulturategoko paretek haren lanekin osatutako erakusketa hartu dute, eta bihar amaituko da. Alvaro Arregi izan da erakusketaren antolatzaileetako bat, eta "oso positibotzat" jo du izan duen harrera maila.

"Etorri den jende gehienak ezagutzen zuen Galartaren lana, baina, beste batzuentzat, aurkikuntza moduko bat izan da. Baina aurrez ezagutu edo ez, jendea oso pozik atera da behin erakusketa ikusita, eta hori ona da guretzako".

Inventarioari dagokionez, urte amaiera arte koadroak jasotzen jarraituko dutela iragarri du Arregik, eta hasieran jarritako helburua bete dutela adierazi du. "Galartak 3.000 koadro egin zituela kontuan izanda, erdiak katalogatzea jarri genuen erronka gisa, eta jada lortu dugu. Orain, koadroak itzultzeko lanetan gaude, eta kontu handiz egin beharreko lanak dira".

Bidebarri

LANERATZE ENPRESA

20 urte uending zerbitzua eskaintzen

"Eskaintza bereziak bidezko merkataritzako kafe eta txokolatean enpresa txiki eta ertainentzat"

Eskatu aurrekontua inolako konpromisorik gabe:
Tel. 943 716 479 • Mug. 617 677 913 • bidebarri@terra.com

merkatu
Soziala

FAIRTRADE
INTERNATIONAL



www.bidebarri.org

"Benetako arazoa dugu gaizki aparkatzearekin"

Aparkalekuak, oinezkoentzako guneak, parke publikoa, bidegorria egiteko proiektua eta saneamendua Epeleko araztegiara eramateko proiektua izan ditu hizpide, besteak beste, Lierni Altuna Aramaioko alkateak Goiena telebistako 'Harira' saioan

Eneko Azurmendi ARAMAIO

Harira saioan egon da Altuna aste honetan, eta herritar batek helarazitako kezka batek zeresana eman du. Hain zuzen ere, jendeak autoa espaloï ganean, zebra-bidean eta plazan bertan aparkatzen duela zen kexu herritarra. Altunak adierazi du benetako "arazoa" dela, eta Udalak jakitun dela. "Marra zuriak eta horiak berritzen ari gara, pixkanaka, eta Nardeagan eta plazan pibote batzuk jarri gura ditugu. Lehenengo, ondo definitu behar dugu non aparkatu daitekeen eta non ez, eta, behin hori eginda, serio jarri beharko dugu. Hala ere, guztiok dakigu espaloian ezin dela aparkatu, kontzientziario kontua ere bada", azaldu du alkateak.

Oinezkoentzako gunea ere izan du hizpide. "Berez, harlauza dagoen lekua oinezkoendakoa da, baina ez da errespetatzen, eta autoak azkar ibiltzen dira hor, gainera. Hala ere, etorkizunean oinezkoentzako gune gehiago egotea gurako genuke. Udalak arazotzat dauka kontu hau".

Parke publikoa

Parke publikoaren egoerak ere eman du zeresana. Hainbat herritarrek euren kexua adierazi dute, esanez parkeak hobetu beharra daukala –lurzorua egokitu, apurtuta dagoen kulunka konpondu, egurraren egoera txarra...–, eta alkateak ere bat egin du herritar horiekin. "Parke publikoak hobetzeko premia daukala argi dago. Aurreikusita daukagu, eta 2018ko aurrekontuan sartu gura ditugu konponketa lanak", azaldu du.

Bidegorria eta saneamendua

Agintaldia bukatu baino lehen bi proiektu lotuta utzi gurako lituzke alkateak. Alde batetik, saneamendua Arrasatera bideratzea, hau da, Aramaioko ur zikinak Edar-Epeleko araztegi-



Lierni Altuna, Goiena telebistako platoon. E.A.

"ARRASATERAINOKO BIDEGORRIA ETA SANEAMENDU LANAK BIDERATUTA UTZI GURA DITUGU"

ra bideratzea. Alkatearen esanetan: "Gipuzkoako Urak partzuergoarekin berba egin dugu eta proiektua bideragarria dela dio". Bestalde, Arrasaterainoko bidegorria ere lotuta gura luke. Hala ere, zail ikusten du agintaldia bukatu baino lehen bukatuta izatea. "Foru Aldundi mailan proiektatuta daude bi gai horiek. Hala ere, luzerako kontuak dira, eta zaila izango da agintaldi amaieran errealtate izatea", azpimarratu du.

Biomasa

Biomasaren proiektuari dagokionez, Altunak adierazi du Energiaren Euskal Erakundearen (EEE) erantzunaren zain daudela. "Gertatzen dena da Eusko Jaurlaritzaren eta EEE-aren esku dagoela proiektua. Iaz gasaren prezioa jaitsi egin zen eta esan ziguten birplanteatu

egin behar zela. Txikitik handira egitea gura dugu. Hau da, eraikin publikoak biomasa bidez asetzen hasi –eskola, kultura etxea, udaletxea, eta abar– eta zabaltzen joan, pixkanaka. Bidal diogu planteamendu hori EEEri eta ea laster plan berria egiteko prest gauden", dio.

Zabola eta Untzilla

Udalak Adif enpresa publikoarekin gorabeherak izaten jarraitzen du. Izan ere, enpresak konpromisoa hartu zuen AHTren lanen ondorioz kaltetutako Zabolako eta Untzillako auzoak konpontzeko, baina oraindik ez dute konpondu. "Beti atzeratzen dituzte lan hauek, oraindik ulertzen ez dudana arrazoiarengatik".

Beste kontu batzuk

Abenduaren 15ean Maider Undari omenaldia egingo diote kiroldegian, olinpiadei bukaera emateko. "Emakume kirolari askorentzako eredu da, eta izena eta aitortza eman nahi diogu omenaldi horrekin".

Bestalde, Tellamendiko gertaeren gaineko liburua Gabonetan aurkezteko asmoa dute –Sabin Aranburu idazten ari da–.

Autodefentsa tailerrak egingo dituzte asteburuan kiroldegian

Emakumeen Nazioarteko Egunaren –azaroaren 25ean izango da– harira, hainbat ekintza antolatu dira herrian

E.A. ARAMAIO

Azaroaren 25ean Emakumeen Nazioarteko Eguna da. Hori dela eta, emakumeen aurkako indarkeriaren aurkako aldarrikapena egiteko helburuarekin, hainbat ekintza egingo dira Aramaion.

Lehenengoa gaur, egubakoitza, izango da. Hain zuzen ere, Zirkua Zirkus konpainiak *Pantxika Lamur* umorezko antzezlanaren eskainiko du kultura etxean, 21:00etan.

Bestalde, bihar eta ezi, autodefentsa tailerrak egingo dira kiroldegiko gimnasioan, 16:00eta-

rik 20:00etara, Gorbeialdeko Kuadrillak antolatuta. Horrekin lotuta, Kuadrillak jakinarazi du haurtzaindegi zerbitzua egongo dela, baina aurrez eman behar dela izena horretarako, *berdintasuna@gorbeialdea.eus* helbidera mezu bat idatzita. Hogei pertsonarendako lekua zegoen, eta dagoeneko ez da lekurik gelditzen. Gainera, adin-tarte ezberdinetako emakumeek eman dute izena.

Azkenik, azaroaren 25ean elkarretaratzea egingo dute herriko plazan, 13:00etan.



ARAMAIO PELOTA ELKARTEA

Arabako txapelkun buruz buru

Asier del Campo Arabako buruz buruko txapelkun berria da kadete mailan. Izan ere, pasa den zapatuan Gasteizko Ogeta pilotalekuan jokatu zen finala irabazi zuen, Asier Picon audioarraren aurka (22-11).

Bestalde, San Martin Pilota Txapelketako finalak jokatu ziren zapatuan eta hiru finaleratik bi garaipen eskuratu zituzten bikote aramaiorek.

Drogen arriskuak aztergai, azaroaren 25eko ikastaroan

Droga-mendekotasunari buruzko ikastaroa egingo dute Ondategin, hilaren 25ean, gazteekin lan egiten duten profesionalen zuzenduta. Saioa 10:30etik 14:00etara eta 15:30etik 17:00etara izango da. Izena emateko, 650 47 17 18 zenbakira (Koldo) deitu edota *epmaraba@yahoo.es* helbidera idatzi, azaroaren 22a baino lehen.

Ehizako hondarrak batzeko edukiontzia jarriko dute

Arabako Foru Aldundiak iaz martxan jarri zuen ehiza hondarrak jasotzeko edukiontzia sistema –animalien azalak, tripak, hezurak...–, eta Aramaion ere jarriko dute; Induspeko bidegurutzean, hain zuzen.

Oilgor ehiza elkarteak kudeatuko du edukiontzia zerbitzua eta ehiza-barrutiko kideek erabili ahalko dute soilik.

Autobus zerbitzuarekin kezkatuta alderdiak

Agintaldian lehenengoz elkartu ziren udalbatzako kideak udaletxeko osoko bilkuren aretoan eta hainbat mozio eta adierazpen instituzional izan zituzten mahai gainean. Kale garbiketa zerbitzua Serbitzu enpresari ematea onartu zuten

Mirari Altube ARETXABALETAK

Hainbat mozio eta adierazpen bat izan ziren bilkurako gai nagusiak, baita eztabaida eragin zutenak ere. Hasteko, baina, Hector Prieto Rosado udalbatzako kidea izan zuten gogoan; egindako lana eskertu gura izan zioten EH Bilduko zinegotzi zandakoari.

Autobus zerbitzua kezka iturri

Kale garbiketa zerbitzuaren ardura eman zion udalbatzako Serbitzu enpresari datozen lau urteetarako. EH Bildu abstentitu egin zen, orain dela hilabete batzuk berak egindako planteamendua "zentzuzkoagoa eta bideragarriagoa" zela esanaz; Irabaziko zinegotzi Luis Mariano Gomezek, oster, aurka bozkatu zuen: "Zerbitzu publikoa izan beharko litzateke. Eta Mankomunitateak kudeatu beharko luke, hondakinen bilketarekin egiten duen moduan".

Eztabaida, baina, garraio publikoaren gainean EH Bilduk eta Irabazik elkarrekin aurkeztutako mozioak eragin zuen. Ion Albizu zinegotziak adierazi zuen ordutegi batzuetan "gutxiago erabiltzen" zelako "egun osoko zerbitzua murriztu" dutela: "Gure eskualdean %8ko igoera izan zuten DG03 eta DG04 zerbitzuek; eta hala eta guztiz, %35 murriztu dute". Hala, mozioaren bidez jasota utzi gura zuten Udalaren konpromisoa garraio publikoarekin, baita hori hobetzeko eta bultzatzeko ardura ere. Inbertsioek "emaitza positiboa" eman dutela ere esaten zuten mozioak: "Irailean indarrean zegoen zerbitzua oinarri hartuta, hobetzeko neurriak har ditzala eskatu gura diogu Aldundiari". Herriarren parte-hartzea bultzatzea ere eskatu gura izan zuten. Irabaziko zinegotzia ere kezkatuta agertu zen gaiarekin: "Azpiegitura handiak egiten dira, baina hirietan. Badirudi dirua aurrez-



Udalbatzako kideak, eguaztanean, udaletxeko osoko bilkuren aretoan. MIRARI ALTUBE

KATALUNIAREN ALDEKO MOZIO BI JARRI ZITUZTEN MAHAI GAINEAN, ETA BIAK ONARTU

tu gura dutela Donostian metroa edo topoa egiteko...".

Jeltzaleak ez ziren mozioaren alde agertu, nahiz eta Unai Elkoro alkateak onartu arazo batzuk badaudela: "Herriarren kezak jaso ditugu, baina ez dut uste Udala sinadurak batzen hasi behar denik". Eta jakinarazi zuen Eskoriatzako eta Arrasateko alkateekin batera Mugikortasun diputatuarekin egotekotan direla: "Datorren astean elkartu gurako genuke, eta lehengo eta oraingo datuak eskatuko ditugu. Ea lehenbailehen konpontzen den arazoa". Aurka bozkatu zuten eta ez zen onartu.

Kataluniaren aldeko mozioak

Beste bi mozio ere izan zituzten mahai gainean, horiek Kataluniaren aldekoak. EH Bilduk aurkeztutakoan eskatu zuten Kataluniako errepublika aitor-

tzea eta errespetatzea eta Generalitateko ordezkariak lehenbailehen aske uztea. EAJ, PSE-EE eta Irabazi abstentitu egin ziren, eta mozioa onartu egin zuten. Ondoren, jeltzaleek euren mozioaren berri eman zuten: "Kataluniako herriak erabakitzeke eskumena duela aitortu gura dugu", zioen alkateak. Hori ere onartu egin zuten, Irabaziren eta PSE-EEren abstentzioarekin.

Irabazik, oster, Madrilgo Udalarik elkartasuna adierazteko eta toki autonomiaren defentsaren gaineko mozioa aurkeztu zuten: "Gastu-arauaren erregulazioa aldatzea eskatzen dugu". Aho batez onartu zuten hori udalbatzak.

"Indarkeria matxistatik libre"

Indarkeria matxistatik libre egongo den gizartearen alde izeneko adierazpen bateratua ere onartu zuten, azaroaren 25aren atarian. Eta hainbat konpromiso onartu zituzten, besteak beste, biktimekiko erreparazio-eskubidearen aitortza, eta berdintasun-unitatei beharrezko baliabide tekniko eta ekonomikoak ematea 2018ko aurrekontuan. *Indarkeria matxista* adiera erabiltzea ere adostu zuten.

Emakumeen aurkako indarkeria, hausnartzeko eta salatzeke gai

Azaroaren 20tik 25era bitartean trebakuntza saioa, filmak, tailerra eta elkarretaratzea izango dira

M.A. ARETXABALETAK

Emakumeen Kontrako Indarkeriaren Nazioarteko Eguna gerturatzearekin batera, hausnarketari eta salaketari egingo diote lekua datozen egunotan. Udalak aste osoko egitaraua gertatu du eta herritarrek bat egin dezaten gurako luke.

Bi film emango dituzte (19:00); martitzenean, Emakundek sus-tatutako *Volar* dokumentala; eta eguenean, Iban Gonzalezek zuzendutako *Ama, nora goaz?*

Bestetik, udal agintariak berdintasun politiketan trebatzeko

formakuntza saioa jasoko dute astelehenean.

Autodefentsa feminista tailerra

Azaroaren 25ean, oster, auto-defentsa feminista tailerra egingo dute, *Bizipen eta emozioak konpartituz erasoei aurre egiteko estrategiak landu* lelopean, eta Emagin ikerkuntza zentro feministako kideek gidatuko dute. Izena emateko epea zabalik dago, hilaren 23a arte (Arkupen). Elkarretaratzea ere izango da (19:00), eta ondoren, *La máquina del Dueño* antzezlanak Arkupen.



M.A.

Mujikaren lanak Taberna Berrin

Udazken eta negu sasoiak erakusten duten pintura lanak eraman ditu Gurutze Mujika pintoreak Taberna Berri jatetxera, baita natura hil batzuk ere; eta hilabetez izango ditu han ikusgai. Azken urteotan egindako inguruko paisaiak dira koadroetan jasotakoak –Aretxabaletan inguruko txokoak, Urbia...– eta herritarren begi-bistara jarri dituenak.

Bertso eskolaren urteurrena ospatzeko ekitaldiak bihar

Iñaki Viñaspre eta Beñat Ugartetxea bertsolariak lagun hartuta ospatuko dute bertso eskolaren hamargarren urteurrena bihar, zapatua –Lekaixoka izena jarri aurretik lanean hasita zeuden–. Bertso-poteoa egingo dute, Herriko Plazan hasita (19:00), eta, horren ondoren, Mitarte kalean jarritako oholtzan kantuan izango dira.

Gazta egiten erakutsiko dute bihar Azatza gunean

Gazta zelan egin irakatsiko dute bihar, zapatua, Ugala gaztandegiaren eskutik, Aozaratzen dagoen Azatza gunean (11:00-18:00). Mami, gazta freskoa eta izozkia egingo dituzte goizean, eta gaztanbera eta fonduea arratsaldean. Bazkaltzeko babarrun-jana izango da. Izena emateko bideak: 943-79 06 03 edo Facebook (*Azatza gunea*); prezioa 35 euro da.



Copreciren gainerko erakusketan, Jose Migel Uribarren –Kultura zinegotzia– eta Copreciko bi ordezkari. ARANTZAZU EZKIBEL

Copreciren gaineko erakusketa, zabalik

Agustindarren komentuan Copreci lantegiaren gaineko erakusketa zabaldu berri dute, eta bertan; etxetresna elektrikoaren osagaiak ikusteko aukera dago, panel informatiboak jarri dituzte, eta bideo proiektzioa ere badago

Imanol Beloki ARETXABALETA

Aretxabaleto Udalak Copreciren gaineko erakusketa zabaldu zuen eguaztenean, agustindarren komentuan. Herriko kultura industria herritarren artean ezagutzera emateko helburuarekin jarri dute, eta hila-betea amaitu arte egongo da ikusgai, azaroaren 30era arte, hain zuzen ere.

Komentuko erakusketan, Aretxabaleto lantegian eta mundu osoan egiten dituzten osagaiak ikusteko aukera dago: indukzioa, lehengo suak, egiten dituzten pieza ezberdinak... Panel informatiboak eta bideo proiektzioa ere badaude.

"Kultura oso zabala da, eta kultura industrialak Aretxabaletan badago. Ikusita Copreci dela momentu honetan Aretxabaletan dagoen enpresa handiena eta garrantzitsua eta mundu osoa zabaldua dagoena, asmoa da herriari eta ingurukoei herrian zer daukagun eta bertan zer egiten den erakustea", adierazi

du Jose Migel Uribarrenek, Kultura zinegotziak.

Ibilbide luzeko enpresa

1963an sortu zuen Copreci kooperatiba 40 laguneko talde batek eta ordutik hona asko handitu da etxetresna elektrikoetako osagaiak egiten dituen lantegia. Egun, 1.900 langilek osatzen dute taldea, eta Coprecik bederatzik ekoizpen-planta ditu mundu osoan.

Copreci etxetresna elektronikoen osagaien fabrikatzaile nagusietako bat da mundu mailan, eta etxetresna elektrikoaren sektoreko marka handiak ditu berez: Bosch Siemens, Whirlpool, Electrolux, General Electric, Miele, Haier, Samsung, Midea,

ERAKUSKETAREN HELBURUA HERRIARI ZER EGITEN DEN ETA ZER DAGOEN ERAKUSTEA DA

Weber eta Char Broil, besteak beste.

Dagoeneko zabalik dago erakusketa, honako ordutegi honetan: 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Azaroaren 30ean itxiko dute erakusketa. Gainera, asmoa da ikastetxeekin lankidetzan bisitak egitea komentura, Coprecin egiten den lana ezagutzeko.

Hurrengo erakusketa, Ederlan

Herriko kultura industria ezagutzera emate horretan, beste zenbait erakusketa egitea ere aurreikusten dute antolatzaileek. "Beste enpresa batzuekin ere egongo gara; adibidez, Ederlanoekin egon gara, eta hurrengo erakusketa Ederlanen gainekoa izatea nahiko genuke, baina abisatuko dugu noiz izango den eta egiten dugun edo ez". Erakusketa honekin, eta datozenekin, gainera, agustindarren komentuari erabilera bat eman gura diotela nabarmendu du Uribarren zinegotziak.

"Pakistandarren garapena eta bizi kalitatea hobetu nahi dugu"

IRATI SANTXO BALTISTAN FUNDAZIOKO KIDEA
Aretxabaletan fundazioarekin bat egin dute

I.B ARETXABALETA

Pakistan iparraldean, Euskal Herriko gobernuz kanpoko erakunde bat dago lanean, Baltistan fundazioa izenekoa. Aretxabaletan kanpaina bat jarri dute martxan, haiei laguntzeko, eta, kanpainaren barruan, ikastetxeetan egindako bertsoak eta marrazkiak saritzeko ekitaldia egingo dute, astelehenean, azaroaren 20an, komentuan, 18:00etan.

Fundazioaren sorreran, Aretxabaleto lantegi anaien ere izan zuten protagonismoa?

Orduan hasi zen dena, 90eko hamarkadan; Inurrategi anaien eta Jose Carlos Tamayo eta Jon Lazkano mendizaleek sari bat jaso zuten espedizio baten, Hego Amerikako mendizale bati lagundu ziotelako, eta sari hori Baltistango mendi eskola bati eman zioten. 2000n, Felixen heriotzaren ondoren, eskola horri *Felix Inurrategi Climbing School Machulo* izena jarri zioten.

Nolakoa da Baltistan?

Hushe bailarako eskualdeko herri ezberdinetan egiten dugu lan, bailara menditsua da, altuera handian dagoena. Duela gutxi egon nintzen han, irailean, eta bizi baldintza oso gogorak dituzte. Errepideak egiteko zailtasunak dituzte, komunikatzeko arazoak izaten dituzte...

Han hainbat proiektu burutzen dituzte, ezta?

Arlo ezberdinak landu ditugu urteetan zehar. Gaur egun, hiru lantzen ditugu: hezkuntza, ge-



Irati Santxo. GOIENA

nero berdintasuna eta osasuna. Formakuntza eskaintzen diegu, informazioa emanez, prebentzio neurriak irakasten dizkiegu, eta abar.

Hango garapen endogenoa bultzatu nahi duzuela adierazten duzue, ezta? Zer esan nahi du horrek?

Baltistan Fundazioa gara, eta Euskal Herrian gaude, baina Machulo herrian bulego bat dugu. Garatzen lagundu nahi diegu, gu ez goaz zer egin behar duten esatera. Euren errealitate azaltzen digute, guk ulertzeko, eta proiektu eta ideia ezberdinak proposatzen dizkiegu, eurek onorioak atera ditzaten.

Egindako lanak eman ditu fruituak?

Zorionez, hori da politena. Esaterako, gure baliabide, formakuntza eta diru laguntzei esker, azken urtean haundun egon den emakumerik eta jaioberririk ez da hil...

Frontenis txapelketa mistoa azaroaren 25ean eta 26an

Aretxabaleta kirol elkarteak frontenis txapelketa mistoa antolatu du, eta izen-ematea astelehenean irekiko dute; hona bidea: udafrentenisa@gmail.com. Partiduak Iturrigorri pilotalekuan jokatu dira eta bikoteak 10 euro ordaindu beharko du. Txapeldunek eta txapeldunordeek bertako produktuekin egindako saskiak jasoko dituzte.

Zinema eskaintza zabala asteburu honetan Arkupen

Zapatu eta domeka honetan, 17:00etan, *Tadeo Jones 2: El secreto del rey midas* filma ikusteko aukera izango da Arkupen; hurrei zuzenduta dago. Horrez gain, *La reina Victoria y Abdul filma* hainbat egunetan ikusi ahal izango da: azaroaren 17an eta 18an, 22:00etan; azaroaren 19an, 19:30ean; eta azaroaren 20an, 16:00etan.

Hirugarren murala Kurtzebarri eskolan

Gu Haziak Gara elkarteko kideek hirugarren murala egingo dute, aurreko biak baino erronka handiagoa: Kurtzebarri eskolaren aurrealde guztia margotzea. Abenduan abiaraziko dute prozesua, eta asmoa da uda partean atzeko horman hastea lanean

Mirari Altube ARETXABALETA

Lehenengo murala Ilargi plazan egin zuten, herriko feministekin elkarlanean. Bigarrena, Durana kalean, Basotxoko erretiratuekin. Eta hirugarrenak "herri proiektua" izan gura du. "Kurtzebarri eskolako aurrealdea oso-osorik margotuko dugu. Erronka handia, ezta?", dio Gu Haziak Gara elkartearen sortzaile Paloma Martinezek, eta gaineratu du: "Erronka handiena, baina, herri proiektu bihurtzea da, ez izatea eskolarena bakarrik".

Aurretik konponketa lanak

Bigarren murala egin ondoren, Udalaren aldetik diru laguntza "polita" jaso zuen elkarteak, eta ondoren, Aldunditik ere iritsi zitzaizen beste laguntzatxo bat: "Horrek indarra eman digu bide horretatik jarraitzeko, eta egitasmo handiagoari heltzea pentsatu dugu". Lehenengo, Kurtzebarri eskolan aurkeztu zuten asmoa, eta gero, udaletxera jo: "Eskolan oso pozik hartu zuten, eta udaletxean ere baietza eman ziguten, inolako trabarik jarri barik".

Eraikina aztertzen hasi zirenean etorri zen traba. Fatxadaren goiko partetik ura pasatzen da eta hezetasun arazoak daude: "Teknikariek aztertu, eta arazoak fatxada guztiak duela jakinarazi dute. Alkatearekin eta Hiri-gintza Saileko ordezkariarekin egon gara eta esan digute datoren urteko aurrekontuan sartuko dutela horren konponketa; hortaz, aurrera egingo dugu".

Prozesua hastear

Emaizta garrantzitsua dela argi dute, baina Gu Haziak Gara elkarteko kideek garrantzi handiago ematen diote prozesuari berari: "Herri proiektu bat izan dadin gura dugu, herritar guztiei emanda parte hartzeko aukera". Egunotan jakinaraziko diete Kurtzebarri eskolako gurasoei,



Gu Haziak Gara taldekoak murala margotzen Ilargi plazan, iaz. MIRARI ALTUBE

ESKOLAKO FATXADAREN HEZETASUN ARAZOA KONPONDUKO DUTE MARGOTZEN HASTEKO

baita herritarrei ere, komunikabideen bitartez. Eta abenduan abian jarriko dute prozesua. Orduan, hogeitaz lagunekoa lantaldea eratuko dute, honako hauek osatuta: bost ikaslek, bost irakaslek, bost gurasok eta eskolarekin zerikusirik ez duten bost herritarrek. Hori izango da talde eragilea.

Lehenengo lana muralaren gaia hautatzea da, eta horretarako ekarpenak herritar guztiek egin ahal izango dituzte; kutzak egongo dira herriko hainbat gunetan. Proposatutako gaien artean, gero, aukeraketa egingo du talde eragileak: "Eta aukeraketakoen zerrenda horretatik, herritarrek gustukoena hautatu ahal izango dute".

Gaiarekin batera mezua zehaztuko da, eta ondoren, mezu horri zein irudi egokitu hautatu. "Iru-di zaparrada eskatuko dugu

orduan, hau da, irudien eta marrazkien ideiak. Ideia horietatik, hiru eta bost artean hautatuko ditugu berririo, guztion artean". Ondoren, zirriborro osoa egingo da, eta, horretarako, artistei egin diete dei: "Izaro eta Kepa aretxabaletarrak eta Joana eta Helena arrasatearrak inguruan ditugu, baina ahal den artista gehien gerturatzea gurako genuke". Eta lan horiek ere bozkatu egingo dira behin betikoa aukeratzeko.

Herritarren inplikazioa

Abendu eta maiatz artean burutu gura dute prozesua, eta 2018ko uda partean eskolaren atzealdeko fatxada margotzen hasi. Aurretik, esandako moduan, konpondu egin behar da hezetasun arazoa. "Hiru urterako kontua izango dela uste dugu guk, baina udal ordezkariari luzea iruditu zaie. Ikusiko dugu...", dio Martinezek, eta gaineratu du: "Aurreko muralen prozesuak oso politak izan dira; biak ezberdinak, eta, era berean, oso aberasgarriak. Hirugarren honek, baina, beste biak gainditu egingo ditu, eta politagoa izango da herri guztia inplikatzeko gero".

Gustura dihardute gurasoek euskaraz, 'e!' txapa paparrean

'E! Guraso' ekimenaren lekukoa hartu dute bigarren taldeko kideek eta euskaraz egiteko gogotsu agertu dira

M.A. ARETXABALETA

Euskaraz bakarrik bizitzeko asteari bukaera eman zioten astelehenean *E! Guraso* egitasmoan diharduten lehenengo taldeko kideek. Eta lekukoa bigarren taldekoek jaso zuten. Izena emandakoen kopuruak, gainera, gora egin du egitasmoa abiarazi zutenetik, eta dagoeneko 150 dira *E! Guraso*-ra batu direnak.

Harrera ona

Txapak banatzearekin batera, lehen taldekoen bizipenak jaso

gura izan zituzten antolatzaileek astelehenean: "Orokorrean, harrera ona izan du ekimenak, eta sentipen txarrik ez du utzi orain arte jasotako balorazioen arabera", jakinarazi dute, eta gaineratu: "Batzuek ez dute aparteko zailtasunik aurkitu eta beste batzuek bai, bereziki euskara ulertu bai baina erabiltzen ez dutenekin". Gainera, guztiek esan dute ekimenarekin jarraituko luketela 2018an.

Datorren astelehenean, hirugarren taldeko gurasoek hartuko dute lekukoa.

Zelan bizi izan duzu astea?



OLAIA ETXENAUSIA
GURASOA

"Uneren batean azalpenen bat eman behar izan dut euskaraz egiteko hautua egin dudala esanaz, baina apartekorik ez, eguneroko hizkuntza dudalako. Alabek bazuten egitasmoaren berri, eta txapa nork daraman begira ibili dira. Ekimena positiboa dela uste dut, ohituren gaineko kontzientzia hartzeko".



BORJA GARITAONANDIA
GURASOA

"Nire inguruko gehienak euskal hiztunak dira; hortaz, ez dit aldaketa handirik eragin. Hala ere, *e!* txapak jakin-mina piztu du. Lantokian bertan ere antzeko dinamika bat egin dugu, eta honek bultzada berria eman dio hari. Ea halako ekintzekin pauso bat aurrera egiten dugun herrian!".

Jou Díaz
Harakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA



Borobilean ikuskizuneko partaideak talde argazkian. KATXIPORRETA

'Borobilean': lan borobila oholtzara

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoak Eskoriatzan izango dira zapatuan, labetik atera berri duten lana estreinatzen. 17:30ean izango da, Manuel Muñoz kiroldegian, eta bizikidetzan sortzen diren arazoan gaineko saioa eskainiko dute

Imanol Beloki ESKORIATZA

Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazo ezagunak Eskoriatzara, Manuel Muñoz kiroldegira, eramango dute euren azken lana bihar, zapatua. Labetik atera berri duten saioa 17:30ean hasiko da eta pailazo taldeak abenduan hogeita hamar urte beteko dituzte, emanaldi berezi batekin izango dira.

Katxiporretako lan berriak *Borobilean* du izena, eta bizikidetzan sortzen diren arazoan eta gatazken gainean arituko dira oholtza gainean. *Marimori*, *Maribel andereñoa*, pailazoan bizilagun erretxina den *Jeronimo*... pertsonaia berriak izango dira ikuskizunean, eta, nola ez, dantza eta kanta berriak ere eskainiko dituzte, txikiaren gozamenerako.

Ipuinak eta diskoa

Lan hori osatzeko, Uxue Alberdik idatzitako kartoizko lau liburuxka batu dituzte: *Nork agintzen du etxean?*; *Nork agin-*

tzen du kalean?; *Nork agintzen du eskolan?*; *Nork agintzen du kuadrilan?* Horrez gainera, hamahiru kantaz osatutako diskoa atera dute; azken hori, Karlos Osinaga eta Joseba Ponce musikariek eta beste hainbat kolaboratzailearen laguntzarekin. Honela azaldu du Joxe Mari Agirretxe *Porrotx*-ek: "Bonberenea gaztetxean grabatu dugu diskoa, 20 urte betetzen dituztelako, guk 30 bezala, eta, hori dela eta haiekin ospatu nahi genuen. Rockero samarra irten zaigu, eta, kasu honetan, pailazok egin ditugu letrak, azken boladan pedagogiaren gainean irten diren gaiez: sentimenduen txokoa, *Porrotx*-ek gona gorria jarriko du kalean, etxean jartzen

**BIZIKIDETZA DA
PIRRITX, PORROTX
ETA MARIMOTOTSEN
'BOROBILEAN'
IKUSKIZUNAREN GAIA**

duen moduan... Etxeko, kaleko eta eskolako gaiez sortu dugu diskoa..."

Gatazkei aurre eginez

Aurrerapen gisa, diskoan bada kanta bat, *Motxila gora* izenekoa. *Motxiladunak* izeneko umeei zuzendutakoa. *Motxiladunek* astebururo ehunka kilometro egin behar dituzte preso dauden senideak bisitatzeko, eta ume horietako hainbatek hartu dute parte kanta osatzen. Abestiaren letra, berriz, Miren Amurizak egin du. "Diskoa oinarria da ikuskizunerako, ipuinekin batera. Sortzen zaizkigun gatazkei aurre egingo diegu, borobilean. Bizikidetzari ate bat zabaltzeko", azaldu du Agirretxek.

Sarrerak salgai

Azaroaren 7a ezkerro salgai daude ikuskizunerako sarrerak, sei eurotan, Manuel Muñoz kiroldegian. Edozelan ere, egunean bertan leihatilan erosteko aukera ere egongo da.

Askotariko ardoak dastatzeko aukera egongo da zapatuan

Atxorrotx Kultura Elkarteak antolatutako ardo dastaketan, berrikuntzak izango dira aurten

I.B ESKORIATZA

Hamaikagarren urtez egingo dute ardo dastaketa. Fernando Eskoriatza plazan izango da eta Atxorrotx Kultura Elkarteak antolatuko du.

Bihar, zapatua, hasiko da, arratsaldeko sei eta erdietan, Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizuna amaitzen denean. Bertan, ardo onduak, kanpoko ardo bereziak, pintxoak eta txistulariek alaitutako erromeria izango dira.

Ardoen antolaketa

Urtero lau ardo-postu jarri izan dituzte antolatzaileek Fernando Eskoriatza plazan, baina aurten, ardoen antolakuntzan berrikuntza bat egongo da: hiru postutan banatuta, bakoitzean lau ardo ezberdin egongo dira, guztiak onduak. Honela azaldu du Juan Luis Zubizarretak, Atxorrotx Kultura Elkartearen lehendakariak: "Hiru multzotan banatuta egongo dira: batean, Euskal Herriko ardoak izango dira, hiru ondu eta zuria eskainiko dute. Beste batean, Espainiako ardoak izango dira, eta han berdin, hiru beltz eta zuria; eta beste postuan,

aurten, berezitasuna izango den Kataluniako postua jarriko dugu. Hain zuzen ere, hango ardoak egongo dira, baina bereizgarri batekin: ardo zuri bat, cava bat eta bi ardo beltz egongo dira postu horretan".

Pintxo berezia

Orain dela hiru urte, Pates Zubia enpresak jarritako foie pintxoak arrakastatsuak izan ziren, eta aurtengo edizioan ere izango dira. Bestalde, urteroko txistor-pintxoak ez dira egongo, eta antolatzaileek, sorpresa moduan, pintxo berezi bat jarriko dute, bertaratzen direnendako.

Batzar orokorra

Zapatuko ekintza horretaz gainera, Atxorrotx Kultura Elkartearen kideek urteko batzar orokorra egingo dute, elkartearen gaineko gaiak lantzeko. "Barne kontuez hitz egingo dugu. Inkernu taberna alokatuta dutenei amaitu egiten zaie kontratua, eta zurrumurruak egon dira itxi egingo dela, baina ez da hala izango. Bestalde, batzordeko kideak berritu egingo ditugu... gauza berriak egiteko asmoz".



CARLOS GARCIA

Toki-Alai taberna irabazle

Eskoriatzan jokatu den bigarren pintxo lehiaketa irabazi du Toki-Alai tabernak. Hain zuzen ere, Altuna harategiko txahal-masaila eta Karoi baserriko gaztaina eta errege-sagarra erabili zituzten Toki-Alai tabernakoek pintxoak osatzeko, eta, hala, 300 euro eta Buztinate buzingintza elkartearen kideek egindako garaikurra jaso zuten.



Areto futboleko senior mailako emakumezkoak talde argazkian. MARTA GARCIA

Aurreko jardunaldian egindako lan bera egiteko asmoz

Eskoriatzak Trumoi Taberna-Eguzki taldearen aurka jokatu du domekan, 12:00etan, Manuel Muñozen

Imanol Beloki ESKORIATZA

Eskoriatzako areto futboleko senior mailako emakumezkoek ondo hasi dute denboraldia; izan ere, sailkapenean bigarren postuan daude.

Pasa den astean, hirugarren jardunaldian, 1-3 irabazi zioten Eskoriatzako neskek Anoeta taldeari, etxetik kanpora, eta, Marta Garcia jokalaria adierazi duenez, taldea sortu zenetik egindako partidu onena jokatu zuten: "Hirugarren jardunaldian, ezin hobeto aritu ginen. Etxetik kanpora sekulako partidua jokatu genuen, eta horrela jarraitu nahi dugu denboraldi osoan".

Hala, taldea sendo dago, eta hurrengo partidura gogo biziz irtengo dira Eskoriatzako neskek. Laugarren jardunaldia domeka honetan jokatu dute, Trumoi Taberna-Eguzki taldearen aurka, 12:00etan. "Ez dugu taldea eza-

gutzen, berria delako, baina etxean jokatzeko abantaila ematen digula uste dut".

Atezain barik, gogor

Amaia Isasmendi Eskoriatzako atezaina lesionatuta dago, eta, horregatik, atezain barik daude Eskoriatzako neskek. "Iaztik jokalarik guztiok jarraitzen dugu taldean, bi jokalarik izan ezik, eta atezain barik jokatzeko zaila da, ez dugu besterik. Horregatik, errotazioak egiten ari gara, eta nolabait funtzionatzen dugun arren, Amaia errekerperatzea ezinbestekoa izango dugu denboraldian emaitza onak lortzeko".

Euskal Ligako mutilek, etxean

Euskal Ligako mutilek ere etxean jokatu dute seigarren jardunaldia, Gernikako Lagunak taldearen aurka. Partidua domekan izango da, 18:00etan, Manuel Muñoz kiroldegian.

Bi eguneko robotika ikastaroa antolatu du Udalak

8 eta 12 urte arteko umei zuzenduta, bi eguneko ikastaroa antolatu du Eskoriatzako Udalak. Lehenengoa azaroaren 19an izango da, kultura etxean, 16:30ean, eta energia berriztagarriekin robot bat egingo dute. Bigarren eguna, berriz, azaroaren 26an izango da, eta, ordu berean, BEE-BOT robot programatzen jolastuko dira.

Makinarekin josten ikasteko ikastaroa, astelehenean

Azaroaren 20an, jostintzan hasi eta josteko makina erabiltzen ikasteko tailerra izango da kultura etxean. Ariketak egingo dira abiadura eta tentsioa kontrolatzeko, ertzak josteko, puntadak doitzeko... eta, horretarako, pertsona bakoitzak bere makina eraman beharko du. Izen-ematea kultura etxean egin beharko da.


Gatz iturburuaren proiektua onartu dute

Osoko bilkuran, Leader 2017 diru laguntzetarako aurkeztu behar den proiektuaren onarpena eta finantzaketa bideak lortzeko erabakia onartu zuten. Proiektuak hiru fase izango ditu, eta gatz ekoizpen planta egitea izango da lehenengo pausoa

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Eguenean, ezohiko osoko bilkura egin zuten Leintz Gatzagako udal ordezkariak, eta gai bakarra tratatu zuten bertan. Leader 2017 diru laguntzetarako aurkeztu behar den proiektuaren onarpena eta finantzaketa bideak lortzeko erabakia hartzea, hain zuzen ere.

Erabakia hartu aurretik, Udalak 5.000 euroko aurrekontu aldaketa egin zuen proiektu horretarako, Leader diru laguntzetan sartzeko puntuatu egiten du eta. 2018ko aurrekontuetarako, berriz, 20.000 euroko partida bat jartzeko konpromisoa ere hartu zuten. Proiektua, bere osotasunean, 64.000 eta 68.000 euro artekoa da; horrenbestez, diru laguntza horren bitartez, falta den finantziarioa lortu nahi da. Lau urteko proiektua izango da, eta helburua da gatz iturburuaren inguruan dagoen Gatz Museoari behin betiko bultzada bat ematea.



Gatzagako ur-errotia. GOIENA

Proiektua hiru fasetan

Gatz Museoaren bueltan egiten diren bisitak eta diru-sarrerak ia hirukoiztu egin dira, baina errekurso gutxiarekin egin dituzte. Honela adierazi du Aitor Larrañagak, Gatz Museoeko lan-

gileak: "Boluntariora lana profesionalizatu egin behar da, eta, bisitetarako prestatuta dagoen arren, gatz ekoizteko guztiz prestatu behar da. Beraz, lehen fasean, gatz ekoizteko planta bat egingo dugu Osasun Sailak eskatzen dituen berme guztiakin".

Bigarren fasean, harrera-gune berri bat eta gatz saltzeko denda berria egin nahi dute. "Santa Columba ermitan lokal handi bat dago, eta denda zein harrera bertan jarriko liriteke. Ermitako lanak egin aurretik, indusketa arkeologiko txiki batzuk egin beharko liriteke".

Hirugarren fasean, aterpetxe bat eta putzu batzuk jarri nahi dituzte. "Aterpetxea eginda, egonaldiak luzatu ditzakegu; izan ere, eskoletako haurrei goiz batekoak soilik eskaini diezaiekegu. Gatz putzuak eginda, berriz, uretan hantak edo gorputza sartuz, gatz urak ematen dituen onurak aprobetxatu ahalko dituzte datozenek".



OIHANA ELORTZA

Sanmilixen arrakastatsuen

Giro aparta izan zen pasa den domekan, sanmilixenetan. Talogileak eta artisauak izan ziren, eta herriko sagarrekin muztioa egiten aritu ziren hiruzpalau herritar. Arrasatetik hainbat joan ziren korrika Gatzagara, duela hiru urte hasitako ekimenari eutsiz; hau da, Behobia-Donostiaren alternatiba gisa. Gainera, Gatz Museoak bat egin zuen jaiarekin.

Debagoieneko mintzalagunak Gatzagara bisitan

Debagoieneko mintzalagunek, aisialdiaz baliatuz harremanak zabaldu eta euskaraz gehiago hitz egiteko, Leintz Gatzagako txokoak bisitatuko dituzte zapatu honetan.

Gatzagara bertaratzen direnek bi bisita egingo dituzte: batetik, Hiruerreketako ibilbidea egingo dute, eta, horretarako, 08:30erako Gure Ametsa jatetxe aurrean egingo dute hitzordua. Handik gora bi kilometroko bidea egin, eta Deba ibaiaren sorlekua ezagutzeko aukera izango dute. Bestetik, Gatz Museo bisitatu dute, gatzaren ekoizpen prozesua ezagutzeko, eta, horretarako, 11:45erako egin dute hitzordua, museoa bertan.

Domekan herritarrak izango dira epaile

El Rincon de Lola tabernako Maria Cobok jantzi zuen domekan Elgetako X. Pintxo Lehiaketako txapela. Publikoaren saria dago orain jokoan. Azken pintxo domeka girotzeko argazki lehiaketa azkarra eta 'Elgeta kantuan' ekimenak iragarri ditu Udalak

Larraitz Zeberio ELGETA

Bigarren urtez irabazi du Elgetako Pintxo Lehiaketa El Rincon de Lola tabernako Maria Cobok. Epaimahaiaren iritziz, lehenengo pintxo domekan aurkeztutako *Lola pil pil* izeneko bakailao pintxoan izan da lehiaketako onena.

Haizeak, Bolatoki tabernak, Maialde landetxeak eta El Rincon de Lolak hartu dute parte aurten lehiaketan eta bina pintxo aurkeztu dituzte. Epaimahaiako kide Jon Irazabalek azaldu du hiru ezaugarri baloratu dituztela: "Zaporea, itxura eta elaborazioarako hartutako lana baloratzeko eskatu digute eta hiruren baturak eman du emaitza". Irazabalek gaineratu du pintxo guztiak izan direla onak. "Ez da pintxo txarrik egon. Tabernariak lana hartu dute eta irudimen handia erakutsi dute. Denek. Zoriontzekoa da izan duten kontu guztia".

Maria Cobok, nola ez, pozik jantzi du irabazlearen txapela. "Oso-oso pozik nago, benetan. Bakailaoarekin egindako pintxoarekin irabazi dugu. Lan handia darama. Nahiz eta herri txikia izan eta lehiaketak lau parte-hartzaile izan, landutako pintxo eskaini nahi genuen, eta uste dut lortu dugula".



El Rincon de Lola tabernako Maria Cobo txapela jasotzeko unean. OIHANA ELORTZA

Domekan, herritarrak epaile

Elgetako X. Pintxo Lehiaketako hirugarren eta azken domeka izango da honako hau. Bezeroek txapelketa irabazi duen *Lola pil pil* izeneko pintxoan berriz dastatzeko aukera izango dute, eta, horrekin batera, taberna bakoitzak aurkeztutako pintxorik onena. Prezioa, betiere, euro bat izango da.

Dastatu bakarrik ez; izan ere, herritarrek pintxoak baloratzeko aukera ere izango dute, eta botoen baturak emango du Publikoaren Saria. Botoa emateko

hiru bide izango dira aurten: tabernetan ipinitako papertxoekin bitartez, Hirix plataforma digital berrian sortutako galdetegiaren bitartez eta *selfie* lehiaketaren bidez. Hiru kasuetan, 30 euroko erosketa-bonua zozketatuko du Udalak parte hartzaileen artean.

Argazkiak eta 'Elgeta kantuan'

Azken pintxo domeka girotzeko, argazki lehiaketa azkarra -12:00etan plazan- eta *Elgeta kantuan* ekimena -13:00etan plazan- izango dira.

Eskolan izan da Irati Anda

Bosgarren eta seigarren mailetako neska-mutikoekin elkartu zen eskalatzailerak gasteiztarra eguaztenean. Eskalatzeko materiala erakutsi zien, eta kirol hori egiteko inguruan dauden leku aproposak aipatu zizkien ikasleei. Bertsolaritzari buruz ere aritu ziren; izan ere, Andaren beste zaletasun handietako bat da. Oraingoan, lagata duela adierazi zuen.



ELGETAKO HERRI ESKOLA

Iraitz Lazkano alkatea 'Harira' saioan izango da

Goiena telebistako azaroaren 21eko *Harira* saioan -21:00- izango da Elgetako alkate Iraitz Lazkano. Herritarrek ere galderak egiteko aukera izango dute. Hainbat bide daude horretarako: *berriak@goiena.eus* helbide elektronikoa edo 688 69 00 07 zenbakia Whatsapp edo Telegram bidez. Galderak egiteko azken eguna azaroaren 20a da.

OHARRAK

Arraunlariak herrian

Elgetako jarraitzaileek bihar, zapatua, egingo diete ongietorria Hondarribia Arraun Elkartekoei. Urteroko bazkaria egingo dute Elgetan.

Podologoa

Erretiratuendako kontsulta hilaren 23rako izango da. Aurrez hartu behar da txanda, 943 76 80 77 zenbakira deituta.

'Go!azen' ikusteko sarrerak herrian bertan salgai

Goibeko Euskaltzaleen Topaguneak abenduaren 9rako antolatutako emanaldietarako sarrerak salgai daude El Rincon de Lola tabernan. Prezioa zortzi euro da. Emanaldiak 16:30ean eta 18:30ean izango dira. Sarrera salmenta martxa onean doa eta lehenbailehen erostea gomendatzen dute. Internet bidez ere eskura daitezke.

PILOTA TXAPELKETA

5. JARDUNALDIKO PARTIDUAK

GAUR, BARIKUA, 18:30EAN

1. Alberto Telleria-Angel Ibarluzea / Iñaki Ugarteburu-Mikel Elkoro
2. Oskar Askasibar-Haritz Gallastegi / Jose Mari Zubiaurre-Gorka Bolinaga
3. Eneko Maguregi-Etor Garate / Eneko Ormaetxea-Alain Valle
4. Oxel Erostarbe-Gorka Arizmendiarrrieta / Oskar Sarasua-Andoni Elorza
5. Ibon Unzetabarrenetxea-Mikel Beretxinaga / Josu Mañarikua-Beñat Arabaolaza
6. Maitena Mañarikua-Uxue Larrea / Rebeka Ubera-Ainhoa Zeziaga

HARIRA

GOIENA TELEBISTA, DENBORALDI BERRIA
AZAROAREN 21EAN, MARTITZENEAN, 21:00ETAN
GONBIDATUA: IRAITZ LAZKANO, ELGETAKO ALKATEA
ENEKO AZKARATEK AURKEZTUTA

BIDALI GALDERA:
POSTA ELEKTRONIKOA: BERRIAK@GOIENA.EUS
WHATSAPP: 688 69 00 07
TELEGRAM: 688 69 00 07

BABESLEA:

goiena[™]
Zu hemen zaude.



ETXEBIZITZA & DEKORAZIOA

- **PROMOZIOAK**
- **IGOGAILUAK**
- **ERABERRITZE INTEGRALAK**
- **ERAGINKORTASUN ENERGETIKOA**
- **AZKEN JOERAK**



UGARTE
AROTEGIA · ALTZARIAK

Proiektuak · Koltxoiak
Horma-Armairuak
Altzariak neurrira
Ateak · Eskailerak ·
Leihoak · Tarimak ·
Egur lanak

ALTZARI DENDA
Ikerleku zeharbidea
Tel.: 943 034630

AROTEGIA
San Juan 1a
Tel.: 943 765491

BERGARA
aroztegia@ugartearoztegia.com



Datuak hobetuz doaz, oro har

Etxebizitza salmenta datuak hobetuz doaz urtetik urtera eta badirudi etxebizitza agentziak krisia gainditzeko doazela pixkanaka; higiezinetan egindako inbertsioak asko hazi dira Estatuan, eta Debagoieneko agentziek ere nabaritu dute joera hori

ESKAINZA BALIAGARRIAK, AKATS TIPOGRAFIKORIK EZ BADAGO.

Badirudi krisia pixkanaka atzean geratzen ari dela. Izan ere, azken urteetan indarberritzen ari da etxebizitza merkatua, eta salmenta kopurua, oro har, gora egiten ari da urtetik urtera.

Higiezinaren Erregistratzaile Eskolak egindako inkesta baten arabera, etxebizitza salerosketak goranzko joera ari dira izaten. 2017ko hirugarren hiruhilekoan, adibidez, 4.357 etxebizitza

saldu dira Euskal Autonomia Erkidegoan –818 berriak eta 3.539 bigarren eskukoak–.

Debagoienean ere nabari da joera hori. Bibai etxebizitza agentziako Zigor Aginagaldere esanetan, bigarren eskuko etxebizitza gehien saltzen direnak. "Urte hasiera indartsua eduki dugu, batez ere, bigarren eskuko etxebizitzetan. Arrasaten, nire ustez, produktu on eta pre-

zio logiko batean zegoen gutzia saldu egin da", azaldu du.

Gelmako etxebizitza

Aurten, irailean, hasi zen Bibai agentzia Gelmako azken 60 etxebizitza saltzen. "2018ko urtarilean hasiko da obra. Nahiz eta fatxada bukatuta egon, barrutik hutsik daude. 2019ko bigarren sei hilekoan emateko intentzioa daukagu, dena ondo



Gelmako etxebizitza, Arrasaten.

GELMAKO ETXEBIZITZAK, ONDO KOKATUTA EGOTEAZ GAIN, KALITATE ONEKOAK DIRA

badoa", azpimarratu du Aginagaldere.

Salmentari dagokionez, ez da kezu: "Bi hilabete inguruan hamabost etxebizitza saldu ditugu, eta hori, portzentaje aldetik, ondo dago; alegia, kopuru interesgarria da".

Etxe horiek badute berezitasun bat; izan ere, erosleak etxebizitza bere gustura jartzeko aukera du, betiere, obra hasi aurre-



24 orduko asistentzia abisu guztientzat

Iraupen-konpromisorik gabeko kontratuak

Orotariko zerbitzua 100€-tik aurrera

Euskarazko zerbitzua

Asistentzia momentu oro Debagoienetik



Itzaltze automatikoa kabinan LED teknologiarekin



Larrialdi telefonoa DOAN IGOGAILU GUZTIETAN

Eskatu aurrekontua

www.bertako.eus • info@bertakoigogailuak.eus
GARAIA Goiru 1 A -20.500 ARRASATE • 943903450





Lorentxokoko etxebizitzak, Bergaran.



Iturrizar plazako etxebizitzak, Aretxabaletan.

LORENTXOKOKO ETXEBIZITZAK ERRENTAN EMATEN DIRA, EROSTEKO AUKERAREKIN

tik. "Erosleek doitu egin ahal izango dituzte, euren gustura jarri. Lurra, ateak, azulejoak, elektrizitatea, eta abar, obraren momentuaren arabera", adierazi du Aginagaldek.

Gelmako etxebizitzak, ondo kokatuta egoteaz gain, kalitate onekoak dira, eta ondo eraikitakoak. 2018ko araudia betetzen dute, eta, horren ondorioz, kalitate handikoak dira. Hori dela

BI, HIRU ETA LAU LOGELAKO ETXEBIZITZAK ESKANTZEN DIRA ITURRIZAR PLAZAN

eta, Aginagaldek espero du gehiena saltzea: "Zalantzarik gabe, Arrasateko etxebizitza onenak dira, eta kokapena ere izugarri ona daukate. Esklusi- boak dira etxebizitza horiek. Horrenbestez, %95 saltzea espero dugu".

Prezioei erreparatuta, etxebizitzaren orientazioaren eta kokapenaren arabera dira. "Orientazioaren arabera, prezio

desberdina dute. Blokeak bi alde dauzka. Orientazio hobea daukaten etxebizitzaren prezioa, hau da, hegoaldera ematen dutenena, igo egin da. Gainontzekoek, mendebaldera ematen dutenek, prezio antzekoa dute", zehaztu du Aginagaldek.

Lorentxokoko etxebizitzak

Grupo Eibar etxebizitza agentziak Bergarako Loretxokon daukan promozioa ere ondo saltzen ari da, agentzia horretako kide Agurne Lujanbiok adierazi duenez. "Duela urte batzuk, gehiago kostatzen zitzaigun. Orain, mugimendu handiagoa dago eta geroz eta hobeto saltzen ari gara".

Lujanbiok nabarmendu du jendeari erraztasunak emate aldera badituztela hainbat eskaintza. Hain zuzen ere, ondoren erosteko aukera izango luketen alokairuak jarri dituzte. "Bezeroek lehenengo %10 ordaintzen dute eta gero, hiru urteko epean, gainontzekoa". Eskaintza onekin jende gehiago animatzen dela aitortu du Lujanbiok.

Bestalde, BEZak kalte handia egiten duela azaldu du. "%10 izaten da BEZA; hori asko da.

Bisitatu etxebizitza pilotua

Tel.: 943 25 38 21 E-mail info@inmobibai.com
Deba kalea 3 - 20500 Arrasate (Gipuzkoa)
www.inmobibai.com

2 logela 200.000 €- tik + BEZa 4 logela 300.000 €- tik + BEZa
3 logela 250.000 €- tik + BEZa

Zure etxebizitza saldu behar duzu?
EZ KEZKATU!!
Erreserbatu etxebizitza bat eta zurea saldu arte ez dugu eskrituraluko.

Nik uste dut lehendabiziko etxebizitza erosten duenari %3-4 baino gehiago ez zitzaioala kobratu behar, %10 asko da. Alde horretatik, gazteei lagundu egin behar zaiela uste dut".

Prezioei dagokienez, bezeroen beharretara egokitu dituzte. "Kalitate onak eskaintzen ditugu, baina prezioak merkatu egin behar izan ditugu aurreko promozioetatik oraingoetara", adierazi du Lujanbiok.

Iturrizarko etxebizitza

Grupo Ortuibar etxebizitza agentziak Aretxabaletako Iturrizar plazan daukan promozioan, aukera zabala dute erosleek. Izan ere, bi, hiru eta lau logelako etxebizitza daude salgai. Bi logelakoak 60 metro karratukoak dira, hiru logelakoak 90 metro karratukoak eta lau logelakoak, 110 metro karratukoak.

Gelmako etxebizitzaren antzera, erosleek aukera daukate etxebizitza euren gustura jartzeko.

Orain arteko salmenta kopurua ona izan da. Gainera, jendeak interesa erakutsi du.

Prezioak mantentzeko joera izan dute eta, batzaz beste, azken

hiruzpalau urteetan ez dira askorik aldatu.

Erregetxoko etxebizitza

Bergarako Erregetxo plazan ere oraindik gelditzen dira salmenta libreko etxebizitza, bi logelakoak -75 metro karratu- eta hirukoak -93 metro karratu-.

Kalitate oneko etxebizitza dira: akustikoki inguruko zaratak ekiditeko prestatuta daude eta etxebizitza guztian zehar erabilitako materiala kalitate onekoa da -egurrezko zoria, adibidez-. Horrez gain, ondo kokatuta daude.

Askotariko bezeroak

Mota guztietako bezeroak dituzte Debagoieneko etxebizitza agentziek, eta, horretan, etxebizitzaren tamainak eta logela kopuruak garrantzia dute. "Grupo Eibarren, gehienbat, jende gaztea izaten dugu bezero, ezkontzeko daudenak, ezkonberriak edota, besterik gabe, bakarrik bizitza erabaki dutenak. Adineko jendea ere izaten dugu bezero moduan, baina besteek baino apur bat gutxiago. Izan ere, ez dute nahi izaten inber-



Erregetxo plazako etxebizitza, Bergaran.

AKUSTIKOKI INGURUKO ZARATAK EKIDITEKO PRESTATUTA DAUDE ERREGETXOKOAK

tzioetan sartu adin horretan", adierazi du Lujanbiok.

Normalean, bi logelako etxebizitzetan 23-30 urte bitartekoak izaten dira erosle eta hiru eta lau logelakoetan 30-45 urte bitartekoak, familia profilekoak.

Azken urteetako daturik onenak Agentzietako kideen esanetan, etxebizitzaren merkatua pixkanaka hobetzen doa, nahiz eta az-

pimarratu duten oraindik ez dela krisia guztiz gainditu. "Okerago ere egon izan gara. Azken hilabeteetan pixka bat jasotzen ari gara", dio Lujanbiok.

Higiezinaren Erregistratzaile Eskolak egindako inkesta berak dioenez, 2017ko azken bi hiruileko hauetako emaitzak 2011tik hona erregistratu diren onenak dira. Beraz, merkatua pixkanaka hazten doala dirudi.



carrascaladapt

sukaldeak bainuak armairuak

**ZEURE NEURRIRA,
ZEURE GUSTURA**

Ekutio 4, Pab. 14-15 • Uribarri Auzoa • 20500 Arrasate
Tel.: 943 79 01 82 • scarrasc_1@infonegocio.com



UGARTE

OÑATI

- > HORMIGOIZKO EGITURAK
- > IGELTSEROTZA
- > ZAHARBERRITZEAK
- > PROMOZIOAK

ERAIKUNTZAK

**943 78 05 54
663 973 164**

ugarte@cnes-ugarte.com





www.grupoeibar.com
Bergara

650 44 21 59
943 31 66 11

www.lorentxoko.com

**Handiagoak. Merkeagoak.
Partekatutako gune gehiago.
Gozamen gehiago. BIZI gehiago.**

2, 3 ETA 4 LOGELAKO ETXEBIZITZAK
119.000 €-TIK AURRERA
TERRAZA HANDIEKIN



**Azken etxebizitza tasatuak.
Ez utzi aukera honi alde egiten.**

**Alokairuan,
erosteko
aukerarekin**

BEREHALA SARTZEKO




GARAJEAK ETA
TRASTELEKUAK
BARNE

Mantentze-lan kontratuak ondo aztertu behar dira

Igogailuen instalazioak eta mantentze-lanak egiten dituzte Bertako Igogailuak enpresan, eta arduradunek uste dute etxebizitza-atarietako ordezkariak arreta handiagoa jarri beharko luketela, alde handiak baitaude enpresa batzuetatik beste batzuetara

Igogailuen ardura atarietako ordezkariena izan ohi da, eta, gehienetan, etxebizitzaz etxebizitza aldatzen doan erantzukizuna da. Bertako Igogailuak enpresako ingeniari Ibai Salazarren esanetan, arreta merezi duen gaia da; izan ere, hobekuntza nabariak lor daitezke eskaintzak ondo aztertzen badira. "Atariko kutxa sarri aldatzen da eskuz, eta gehiago begiratu beharko lirateke kontratuak. Nork bere etxebizitzarako hartzen dituen erabakiei eskaintzen dien denbora bera merezi dute". Aurrekontuak eskatu eta alderatu egin behar direla dio: "Eta ez bakarrik prezioari errepara-



Teknikaria, Bergarako igogailu baten egoera aztertzen. BERTAKO IGOGAILUAK

tuta, kontratuaren mamia ere bai", adierazi du. Enpresak hiru urte ditu eta langileek 10 eta 15 urte bitarteko esperientzia sektorean. Horregatik dio aldea badagoela.

Prezio finkoak

Bertako Igogailuak enpresak prezioekiko duen berezko filosofia nabarmendu du Salazarrek. "Ez gara enpresa merkea. Sektoreko beste enpresek hobetu egiten dituzte gure prezioak. Gakoa kontratuaren edukian dago", esan du. "Gure prezioak publikoak dira, eta finkoak. Hau da, berdinak bezero guztiendako. Egun batetik bestera aurkezten dugu aurrekontua eta ez ditugu prezioak negoziatzen. Eraikinak duen etxebizitza kopurua eta igogailu modelo hartzen ditugu kontuan. Mantenua 100-125 euroko tartean sartu ohi da".

Igogailuen mantentze-lan kontratuen edukia ondo aztertzeke gomendatzen du. "Hor egoten da gakoa", ohartarazten du. "Gure kasuan, urtebeteko kontratuak egiten ditugu eta lehenago bertan behera uzteak ez du penalizazioz. Gainera, mantentze-lan

zerbitzu horretan sartzen dira hileroko bisitak igogailuaren egoera aztertzeke, emergentzientzako telefono linea eta gerta daitezkeen intzidentzia guztiak. 24 orduko zerbitzua eskaintzen dugu astelehenetik domekara, eta hori abisu normalendako ere bai. Beste modu batera esanda, gure kontratuak ez dauka letra txikirik, beste kasu batzuetan gertatzen den moduan".

Konpromisoa euskararekin

Bertako Igogailuak enpresaren beste ezaugarrietako bat euskararekiko konpromisoa da. "Tramite guztiak euskaraz egin daitezke: aurrekontua, kontratua, arreta...", azaldu du Salazarrek.

Mantentze-lan zerbitzua eskaintzeaz gain, igogailuen instalazioa ere egiten dute, eta, bezeroari, dituen beharretara ondoen egokitzen den igogailua aholkatzen diote; ez daude igogailu marka jakin bati lotuta.

Zerbitzu integrala ere eskaintzen dute: arkitektoaren aurreproiektua, obra zibila, diru laguntzen kudeaketa... Gasteizen, Anoetan, Bilbon eta Arrasaten dituzte bulegoak.

Erregetxo
UTE
Bergara



**Oraindik aukeran
kokapen oso oneko
etxebizitzak
Zatoz ikustera!**

Informazio guztia
gure web orrian.

Sartu eta ikusi



www.promocioneserregetxoplaza.com

INFORMAZIO ETA SALMENTA:

ORTELBAR, SL: 943 761 118

LOTZEN, SL: 943 761 123



AZKEN ETXE TASATUA:
196.797,41€ + BEZ

- 3 LOGELA
- GARAJE ITXIA
- 75,54 m2



Bezeroari buruhaustea ekiditeko, Ekitermik enpresan *giltzak eskura* formatua eskaintzen dute. EKITERMIK

Zaharberritze integralak, denborak murrizteko

Arrasateko Ekitermik enpresan argi dute isolamendu, leiho, zoru erradiatzaile eta energia berriztagarriak erabilita %70 aurreztu daitekeela energia kontsumoan. Zaharberritze integralak ere egiten dituzte, bezeroari buruhaustea ekiditeko

Zaharberritze integralak egiten dituzte Ekitermik enpresan. "Obraren inguruko lan guztiak hartzen ditugu gure gain: proiektua, diseinua, baimenak, diru laguntzak... Horrek exekuzio denborak murriztea ahalbidetzen digu. *Giltzak eskura* formatua ere eskaintzen dugu. Bezeroari etxebizitza sartzeko gertu ematen diogu", azaldu du Ekitermik enpresako zaharberritzeen ataleko arduradun Andoni Altubek.

Eraginkortasun energetikoa

Etxean zaharberritzeak egiterakoan garrantzitsua da alderdi energetikoa ebaluatzea eta horrekin batera alor hori hobetzeko neurriak hartzea. Altubek ohartarazten du isolamendu, leiho, zoru erradiatzaile eta energia berriztagarriak erabilita %70 aurreztu daitekeela energia kontsumoan. "Etxea berri gura duenak pentsatu behar du beste hogeit bat urterako obra egingo duela. Alderdi energetikoa ondo begiratzea garrantzitsua da. Gainera, berreskuratu egingo du egindako inbertsioa".

Altubek dio gero eta gehiago direla eraginkortasun energeti-

koari arreta ipintzen dioten etxe-jabeak. "Ez dakit energia kontsumoaren inguruko kontzientzia handitzen ari delako den edo fakturan eragina duelako den, baina, poliki-poliki, jendea hasita dago alor energetikoa aztertzeke eskaerak egiten. Eta etxebizitzan erreforma bat egiterakoan eraginkortasun energetikoa hobetzeko neurriak hartzea erabaki ona dela uste dut", adierazi du.

Arrasateko Garaia Berrikuntza Gunean kokatuta dagoen enpresa kooperatiboa da Ekitermik. Bailarako da lantalde osoa: arkitektoak, teknikariak eta ingeniariak. "Azterketa termografikoak egiten ditugu etxebizitzetan eta kontu handiz zaintzen ditugu detaile termiko guztiak. Sektore energetikoan espezializatuta gaudenez, mimo handiz zaintzen dugu alor hori".

**AZTERKETA
TERMOGRAFIKOAK
EGITEN DITUZTE
NEURRI EGOKIENAK
PROPOSATZEKO**

Aretxabaleta | 4 FASEA (7-8 atariak)

Zure esku dago
2, 3 eta 4 logelako etxebizitzak.

Gutziz hornituriko sukaldeak.

Zurea diseinatu nahi baduzu,
ERRESERBATU!!
Garaiz zabilta!

**GRUPO
ORTUIBAR**

Informazioa: Ortuizal Promociones S.L. en 943 761 118 | 943 794 000
www.grupoortuibar.com | info@grupoortuibar.com | Ibargarai 36 behea | Bergara

Tonu argiek eta egurrak indartsu jarraitzen dute

Ugarte eta Carrascal altzari dende argi dute: bezeroek eskandinaviar estiloa dute gogoko; hala ere, estilo hori apurtzen duten dekorazio piezekin jokatzea ere joera dela diote. Armairuak, ordea, gorainokoak eta hankarik gabekoak dira gustukoena

Etxeko dekorazioan, espazio irekien eta argitsuen aldeko apustua garbia da azken urteetan. "Sukaldea eta sala bateratu egiten dira gaur egungo zaharberrizeetan. Modu horretan, espazio zabalagoak eta argitsuagoak lortzen dira; bien erdian *isla* edo *penintsula* izeneko elementua jartzea da joera. Eta kolore nagusia zuria da", dio Arrasateko Carrascal aroztegi-ko Gemma Carrascalek. Izan ere, estilo eskandinaviarraren helburuetako bat da etxeari goxotasuna ematea. Egurraren eta zuriaren arteko konbinazioak jarraitzen du joera nagusi izaten, baina erosotasunari eutsiz.

Armairuak

Bezeroek, estetikari baino gehiago, erosotasunari begiratzen diote. Hala, hankadun armairuak joera diren arren, Bergarako Ugarte aroztegi-ko Rosa Muradasek azaldu du gorainokoak diren armairuak erostearen aldeko apustua egiten dutela bezeroek: "Horma-armairuak hankarik gabekoak eta behearainokoak gura dituzte gure bezeroek -hautsik sor ez dadin eta lekua aprobetxatzeko-".

Egongelan eta geletan kolore argiak direla nagusi esan dute. Izan ere, elementu ezberdinekin jokatzeko aukera ematen du horrek.

Ukitu informala

Etxe osoa estilo berarekin dekoratzearen aldekoak asko dira; baina Ugarteko eta Carrascaleko adituek diote beste estilo bateko dekorazio elementu batek ukitu informala emango liokeela, etxearen formaltasuna apurtuta: "Niri, asko gustatzen zait bestelako elementuekin ukitu diferentek ematea dekorazioari. Aukeratzen den piezaren arabera, ukitu goxoa, atsegina edo informala lortzeko aukera ere badago eta", dio Muradasek. "Gure aholkua da altzari nagusia zuria jartzea eta bestelako piezen koloreekin jokatzea", dio Carrascalek.



Carrascal aroztegi-ko sukaldea.



Ugarte aroztegi-ko egongela.

Etxea berriztu behar al duzu?

Baimenak!

Laguntzak?

Tramiteak?

Gremio koordinazioa!

GU ARDURATUKO GARA GUZTIAZ!

Giltza eskura formatua aprobetxatu eta ahaztu etxean obrak dituzula!



Etxebizitzak



Baserriak



Dendak, tabernak...



Proiektuak orokorrean

eki termik
efizientzia energetikoa

Aurreztu energian!

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

www.ekitermik.com

ekitermik@ekitermik.com

688 870 219



Agertokia erabat moldagarria izango da emanaldiaren arabera; erabiltzen ez denean erretaula ikus daiteke. ARGAZKIAK: E. AZURMENDI ETA B.U.

Moldagarritasuna, ondareari eutsiz

Abenduaren 24an irekiko ditu atea lehen aldiz Seminarixoa aretoak, Olentzeroren eta Mari Domingiren bisitarako; obra guztirako eta ekipamendu osorako 2.322.633 euro inbertitu dira, eta horietatik 1.435.089 euro lortu dira Jaurlaritzatik eta Diputaziotik

Jokin Bereziartua BERGARA

Abenduaren 24a. Horixe izango da, atzerapenak atzerapen, Errege Mintegiko Seminarixoa aretoak lehen aldiz atea irekiko dituen eguna. Olentzeroren eta Mari Domingiren bisitarako irekiko ditu atea lehen aldiz areto berriak. Elizako elementu garrantzitsuenak mantendu eta ondare hori balioan jartzeko ahalegin berezia egin dute, eta, hain justu, zailtasun teknikoek eragin dute, neurri handi batean, obraren atzerapena. Obra eta ekipamendu osorako aurrekontua 2.322.633 euro izan da; horietatik 1.435.089 euro lortu dira Jaurlaritzaren eta Diputazioaren diru laguntzetatik. Askotariko erabilerak izango ditu aretoak, baina, oraingoz, ez du zinemarik izango. Aretoa horretarako egokitu-ta badago ere, behar den inbertsiorako dirurik ez dago.

Elementu moldagarriak gehienak

Ekipamendu eszenikoan aditua den Andoni Garaizarren arabera, hainbat berezitasun ditu Seminarixoa, baina esanguratsuen artean kokatzen du agertokiaren moldagarritasuna: "Agertokia erabiltzen ez denean, orrazia behean dagoenean, erretaula ikus daiteke. Aldiz, orrazi hori igotzerakoan, elementu eszenikoei erantzuna emateko zerbitzu teknikoa eskainiko digu". Akustika aldetik ere moldagarriak diren panelak ditu areto berriak: "Aurpegi bat xurgatzailea da eta bestea islatzailea. Oso zaratsutsuak

diren emanaldietan aurpegi xurgatzailea erabiliko da eta, esaterako, zuzeneko ahotsa indartu nahi badu, aurpegi islatzailea erabiliko da". Gainera, oihalekin egokitutako ohiko kamera beltzaz harago, maskor akustiko moldagarria izango du: "Elektroakustikarrik gabe, era naturalean, soinua handituko du. Muntatu eta desmuntatu ahalko da, betiere, emanaldiaren arabera". Hori guztia gutxi balitz, elizako hormak berez duen soinua hauspotzeko joera ere mugatu dute.


Obrak, ondarearen eritmoa

Alkateak gogora ekarri duenez, ondarea mantentzeko apustuak markatu ditu obraren eritmoak: "Zailtasunak gaudituz ostean, aukerak ikusten ditugu orain. XVIII. mendeko eraikina dugu XXI. mendeko ekipamendurik modernoena".


ELENA LETE: "XVIII. MENDEKO ERAIKINA DUGU XXI. MENDEKO EKIPAMENDURIK MODERNOENAREKIN"




Atzealdean, argiztapena hobetzeko bi egitura jarri dituzte albo bakoitzean.



Harmailak jarrita 254 lagunendako lekua dago; harmailak kenduta, zutik, 500endako.



Maskor akustikoa egongo da agertoki atzean, muntatu eta desmuntatu daitekeena.



Hormetako panelak: aurpegi batek soinua xurgatzen du eta besteak, berriz, islatu.

Kataluniako errepublika aitortu du udalbatzak

EAJren eta EH Bilduren aldeko botoekin, PSE-EEren kontrakoarekin eta Irabaziren abstentzioarekin onartu zen, osoko bilkuran, Kataluniako errepublika aitortzeko adierazpena; bestalde, aho batez onartu zen hitzarmena Bergarako Musika Bandarekin

Jokin Bereziartua BERGARA

Udal Musika Banda, Kataluniako independentzia aldarrikape-na eta indarkeria matxistaren aurkako eguna izan ziren hizpide eguazten iluntzean eginda-ko ezohiko osoko bilkuran.

150 urte beteko dituen musika bandarekin hitzarmen "garrantzitsu bat" sinatzea onartu zuen udalbatzak, aho batez. Urte eta erdirako akordioari esker, musika banda elkarte izatera pasatuko da, Bergarako Musika Banda izenarekin. Izena berria izan arren, izaera mantendu gura dute. Gainera, bandaren eta Udalaren arteko harremanak legearen eskakizunetara egokitzeaz gain, bi aldeendako onuragarria izango dela dio Elena Lete alkateak: "Musikari guztiak babestea eta bi aldeak gustura geratzea zen helburua eta hitzarmen honekin hori lortu dugu. Egoera aldatuko da, baina ez bandaren betiko izaera". EH Bilduko Agur- ne Barrusok dio egungo gobernuarekin ez dela arazorik egongo bandaren "betiko izaera" hori mantentzeko, baina komeni dela urte eta erdi barru sinatuko den hitzarmen berrian hori ahalik eta ondoen zehaztea: "Pena handia litzateke Bergarako bandak bere izaera galduko balu". Hitzarmenak jasotzen du, besteak beste, urteko diru laguntza 53.620 eurokoa izatea. Laguntza hori 70 musikariz osatutako bandari dagokio; kide gutxiago balira, diru laguntza proportzioan murriztuko litzateke.

Ikuspuntu ezberdinak Kataluniaz Bilkuran eztabaida gehien eragin zuen puntua izan zen Irabazik Kataluniako egoeraren harira aurkeztutako adierazpen instituzionala. Irabaziren eta EH Bilduren artean piztu zen eztabaida; Irabazik, PPren gobernuaren "salbuespen politikak" salatzearekin batera, ez du begi onez ikusten Kataluniako Parlamen-



Indarkeria matxistaren aurkako eguneko adierazpenaren bozketa. JOKIN BEREZIARTUA

MUSIKA BANDAREKIN HITZARMENA: LEGERA EGOKITZEA ETA BETIKO IZAERA MANTENTZEA, HELBURU NAGUSIAK

tuaren alde bakarreko independentzia-adierazpena. Irabazik uste du urriaren 1eko erreferendumak ez zuela bermerik eskaini: "Egoera behartu egin da; ikusita Madrilek 155. artikulua aplikatuko zuela, gu atzerapauso bat ematearen eta hausnarketak planteatzearen aldekoak ginen. Uste dugu erreferendum adostu bat posible dela oraindik".

EH Bilduk gogor kritikatu zuen Irabazik maila berean jarri izana Espainiako eta Kataluniako gobernuak: "Bataren zein bestearen jardunak ez dute zerikusirik. Katalunian, modu baketsuan euren herritarren agindua betetzen saiatu dira; bestetik, Espainiaren erantzun bakarra izan dira errepresioa eta judizializazioa. Ekidistantzia horrek mindu egin gaitu eta, bestalde, planteatzea Madrileko Gobernuarekin elkarrizketaren

bidetik erabakitze eskubidea aitortu eta erreferendum adostu bat egiteko saiakera berri bat eskatzea ez zaigu serioa iruditzen. Estatu espainiarrarekin ezin da erreferendumik adostu, ezinezkoa da". Gainera, gai horren inguruan EAJk irakurketa bera egitea "poztekoa eta oso garrantzitsua" dela dio Barrusok. Irabaziren proposamenak ez zuen aurrera egin, EAJk, EH Bilduk eta PSE-EEK aurka bozkatu zuten eta. Izan ere, Kataluniako autonomiaren suspentsioa gaitzesteko EH Bilduk aurkeztutako mozioak eta EAJk zein EH Bilduk adostutako Kataluniako errepublika aitortzeko adierazpenak onartu egin ziren; EAJk eta EH Bilduk alde bozkatu zuten, alderdi sozialistak kontra eta Irabazi abstenitu egin zen.

Berdintasun teknikariaren isla Udalbatzak aho batez onartu zuen azaroaren 25aren bueltako adierazpen instituzionala: "Udaltean lehen aldiz Berdintasun teknikari bat jarriko dugu eta haren jardunak isla izango du herrian", dio alkateak. Gainera, berdintasun mahai bat sortzear dagoela ere aurreratu zuen.



Jose Mari Rubio lurren-lokomotorraren inguruko azalpenak ematen. IMANOL SORIANO

ZTB jardunaldiekin pozik: "Gero eta bidelagun gehiago dituzte"

Elkarlanak "emaitza esanguratsuak" eman ditu, eta aurtengo "apustu erabakigarria" izan dira gazteendako ekintzak

J.B. BERGARA

Udala pozik dago aurtengo Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Jardunaldiek eman dutenarekin. Jardunaldiok, diotenez, iaz baino "parte hartze handiagoa" izan dute eta "bidelagun gero eta gehiago" dituzte: "Ekimenak Debagoienetik salto egin du dagoeneko. Oihartzuna izan du Euskal Herriko hedabide askotan, eta Euskal Herriko zein Espainiako Estatuan zientzian eta berrikuntzan erreferente diren hainbat erakunde eta eragile alboan izan dira. Elkarlan horrek guztiak oso emaitza esanguratsuak eman

ditu". Aurtengo aldaketei dago-kienez, "apustu erabakigarria" izan da gazteei zuzendutako erakusketa eta tailerretako batzuk eskola orduetara bideratzea, "emaitza are eta hobek" eman dituelako. Eta hor, Wolfram Encounterra nabarmendu dute: "Urte urte gero eta harrera hobe ari da izaten. Aurtengo iazko parte-hartzea bikoiztu da, 100 pertsonatik gora ibili dira".

Amaitzeko, *Non dago emakumea ingurune digitalean?* mahai-inguruarekin emakumeen lana ikusarazi dela ere azpimarratu dute antolatzaileek.

Jau! Haur eta Gurasoen Asanblada abenduaren 2an elkartuko da berriz

Kartzela zaharreko Haur eta Gurasoen Asanbladak ekin dio ikasturte berriari. "Komunikatiboki isilik egon gara, nahikoa lan izan dugu eta!". Azaroko lehen domekan, gaztetxean egotarik izan ez bazuten ere, batzar "garrantzitsua" izan zuten: "Asanbladari izena jarri genion: Jau! Ume bakoitzak bere proposamena bota zuen eta denon artean Jau! izena aukeratu genuen. Bakoitzak botatakoarekin lotu daitekeelako, oso Bergarako izena da eta asko gustatzen jau!".

Hurrengo hitzordua abenduaren 2an izango dute, gaztetxean. Eta gogora ekarri dutenez, atek irekita dituzte taldean parte hartu gura duen edonorentzat.

OHARRAK

1935ean jaiotakoak

Azaroaren 19an Azpeitxi jaiotzean bazkalduko dute. Izena emateko, deitu 943 76 18 52 edo 943 76 21 13 telefono zenbakietara.

1964an jaiotakoak

Azaroaren 25ean Sirimiri jaiotzean afalduko dute. Izena eman behar da Ozaeta kaleko Zerkauzi dendan, eta 20 euro aurreratu behar dira; gaur da izena emateko azken eguna.

1984an jaiotakoak

Azaroaren 25ean Tartufon bazkalduko dute. Izena eman behar da azaroaren 20a baino lehen, 40 euro ordainduta: ES1230080271123673595116.

"Utzi behar izatea oso gogorra izango litzateke"

JOKIN ETXABE AEVELO CICLYNG TEAM TALDEKO TXIRRINDULARIA

Profesionalerako lehen urtea AEBetan egin eta maila handia eman ostean, Euskal Herrian maila berean lehiatzen jarraitzea "oso-oso zaila" dela dio: "Egoera zaila da eramateko"

Jokin Bereziartua BERGARA

Urtea bukatu arte AEBetako Aevolo Ciclyng Team-ekin kontratua badu ere, hurrengo urtean non lehiatuko den ez daki oraindik Jokin Etxabek (Bergara, 1994). Euskal Herrian eskaintzarik jaso ez izana "ulertezina" dela dio, eta AEBetan "asko" hazi dela, ziklista zein pertsona moduan. **Profesionalerako lehen urtea egin duzu AEBetako Aevolo taldean. Zer moduz joan da denboraldia?**

Profesionalerako lehen urtea zela aintzat hartuta eta beti zer hobetu dagoela jakinda, urte ona izan da. Egin ditudan mendiko etapetan lehen hamabosten artean amaitu dut, eta hori garrantzitsua da. Nire buruari erakutsi diot etorkizunean goi mailan lehiatzeko moduan egon naitekeela. Bi edo hiru etapetan lehen bost edo seiren artean egoteko aukera izan dut, baina, arrazoiz ezberdinengatik, autotik geratu egin ninduten. Autotik esandakoa bete behar izan dut, eta orain, neurri batean, pena pixka bat badaukat zenbaki esanguratsua goak lortu ez izanagatik.

Ziklista moduan hazten jarraitzeko denboraldia izan da, hortaz.

Profesional mailako lehen urtean 30 bat lasterketa egin ditut, eta, esandako moduan, mendiko etapetan lehen hamabosten artean



Jokin Etxabe, Aevolo taldearen maillotarekin. DEAN WARREN

egotea lortu dut eta karrera batzuetan lehen seien artean egoteko gai izan naiz. Gauzak ondo egin izanaren sententzia daukat. **Zapore gazirik eragin dizu ezerk?** Aevolorena proiektu berria da; horregatik, gonbidapena jasota genuen lasterketa batzuetan kendu egin digute, azken orduan. Niretzat egokienak zirenak, gainera. Izan ere, egin ditudan 30 lasterketetatik zortzi edo bederatziz ziren mendia zutenak. Gainerakoak esprintean amaitzekoak edo zirkuitu baten bueltakoak izan dira. Hala ere, taldea

oso pozik geratu da niretzat ez ziren lasterketetan ere eman dudana mailarekin; hainbat aldiz jarri naute esprint bideratzaile.

Erronka profesional handia izan da? Eta maila pertsonalean?

Zalantza barik. Euskal Herrian beste txirrindularitza mota bat ikustera nengoen ohituta. Hemen aldapak eta portuak dira nagusi, baina han sekulako garrantzia ematen diete esprintei eta erlojupekoari. Asko ikasi dut profesionalki, baina baita pertsonalki ere. Hango bizimodura eta egunerokora egokitzea ez da

uste daitekeen bezain erraza. Askotan kexatzen gara hemen daukagunaz, baina han zaude-nean konturatzen zara nolako zortea dugun etxean.

Zergatik ez duzu taldean segituko?

Aevolo formakuntzara bideratutako taldea, 23 urtetik beherako ziklistendako egina, eta nik dagoeneko 23 urte dauzkat. Baina pozik daude erakutsi dudana mailarekin eta niretzat taldea bilatzen dabilta AEBetan. Baina han ere gauzak zail daude; izan ere, hiru talde profesional desagertu egingo dira eta AEBetako ziklistek lehentasuna izango dute atzeritarron aurrean. Esan didate oso zaila izango dela, baina esperantzarik ez galtzeko. **Eta Euskal Herrian? Ez duzu etorkizunerako aukerarik ikusten?**

Oso-oso zaila izango da. Amorrua eta frustrazioa eragiten ditu Euskal Herrian proiektu serioak sortu eta norberarekin ez kontatu izanak. Kanpora joan, han formatu, maila ona eman... Baina etxean deirik ez. Aevoloko zuzendariak, AEBetako selekziozko hautagaia denak eta Garmin taldeko zuzendari izandakoak, dio ez duela ulertzen nola ez dudana eskaintzarik jasotzen hemen. Esan dit prest dagoela hemengo zuzendariekin berba egiteko eta nire denboraldiaren inguruan hitz egiteko.

Euskadi-Basque Country Murias taldearen deia espero zenuen?

Bai. Jon Odriozola oñatiarra da eta badaki non egon naizen. Euskal Herriko txirrindularitza aurrera atera behar dugula ari gara saltzen, baina gero, euskaldunak diren ziklistek ez dute lehentasunik. Nik 23 urte dauzkat, gaztea naiz oraindik, uste dut AEBetan nire maila erakutsi dudala –eta hor daude zenbakiak... Beste egoera batean

izan balitz ulertuko nuen, baina horrela zaila egiten zait ulertzea. Pena ematen dit, egia esan. Hala ere, nire eskuetan dagoen guztia egingo dut, ez dadin amaiera izan. Ez dut imajinatu nahi bizikleta utzi behar izatea; urte asko izango ziren, eta profesionalerako heldzea asko kostatzen da. Oso kolpe gogorra litzateke. Oso sententzia arraroa da, zaila deskribatzen. Denborak aurrera egin ahala ixten doaz aukerak eta egoera zaila da eramateko. **Uste duzu goi mailan ibili zarela?** AEBetan hala esan didate. Hango jendea nigatik ari da mugitzen, hori esanguratsua da. Errazena litzateke nigatik ezer ez ematea, baina ez da horrela. Eta izango balitz urruneko euskal talde bat dela... Baina gertu oso gaude, Odriozolak berak errepidean ikus nazake entrenatzen.

Anaia, Eiser Hirumet-en

Beñat-ek, anaia bikiak, Durangoko Eiser Hirumet taldean jardungo du 2018an, afizionatu mailan. 2017a urte zaila izan da Beñat Etxaberentzat, mononukleosi batek bi hilabete eta erdi gelditu izan zuen –*musuaren gaitza* moduan ezaguna—. Gaitza gaintu bitartean kirolki egin barik egon ostean, abuztuan denboraldia amaituzat ematea erabaki zuen. Jokinek dioenez, anaia denboraldi berrirako "ondo eta gogotsu" dago, eta "oso egutegi onarekin".

'Cien crónicas mahoneras'-en aurkezpena azaroaren 21ean

Manu Diazen liburuen aurkezpena Juanjo Lusa kirol kazetariak gidatuko du; Irizar jauregian izango da (19:00)

J.B. BERGARA

Blog batetik sortutako liburua da Manu Diazen (Bergara, 1965) *Cien crónicas mahoneras*. Egileak berak dioenez, "denetarik" aurkituko du irakurleak: "Oso bertako liburua da, bergararrei

interesa piztu ahalko diona. Bergarako iraganeko gaiak eta gaur egungoak, kirol arloko gaiak, kultura arlokoak, hausnarketa pertsonal batzuk, kritika arinen bat edo beste...". Azaroaren 21ean egingo du aur-

kezpena, Irizar jauregian (19:00): "Aurkezpena lagunen arteko topaketa bat izatea nahi dut, liburuan lagun asko dira-eta protagonista". Liburuaren koordinatzaile Miren Azkarateren eta hitzaurrea idatzi duen Juanjo Alvarezen presentzia gainera, Juanjo Lusa kirol kazetari eza-gunak gidatuko du aurkezpena.

Liburua hamar eurotan erosi ahalko da hilaren 21eko aurkezpenean; etekinak San Pedro elizako Stoltz-Freres organoa berreskuratzea bideratuko dira.

San Silvestre probarako 230 plazak astebetean agortu dira

Hankaluze Trail taldeak 230 lasterkarirendako lekua egin dute, eta aurten, nobedade moduan, bikote moduan parte hartzeko aukera ere eskaini dute. 50 bikote plaza atera dituzte eta 18rendako lekua dago oraindik. Aurten emakumeen presentzia bikoiztu egingo da: "35 emakume izatetik 70 emakume izatera pasatuko da. Oso zifra onak dira".

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

*Txahal, idi,
txerri, bildots,
untxi eta
baserriko oilaskoak.*

Matxiategi 8. BERGARA
Tel.: 943 76 15 09



Laskurain, Vega, Nogueiras, Ugalde, Sanz eta Moñux, Udal Pilotalekuan. IMANOL SORIANO

Kanpoko eskaintzak lotzen dihardute orain

Zapatuko eta domekako emanaldiak bukatuta, atzera begira jarri da Valen Moñux, 'Alizia musikala'-ko zuzendaria: pozik dago emaitzarekin eta oraingo honetan egin duten aurrerapausoarekin. Gabonetan eskainiko du Goienak telebistak musikala

Arantzazu Ezkibel BERGARA

"Lurrikara handi bat izan zen aste bukaera, maratoiaren bukaera"; horrela azaldu du Valen Moñuxek aste bukaeran bizitako. Behobia lasterketa domekan izan zela aprobetxatuz, lasterketa batekin alderatu nahi izan du musikaleko zuzendariak eurek egindako lana. "Lan handia egin dugu, asko kostatu da eta talde handi bat egon da atzean lanean", gaineratu du.

Aurrerapausoa izan da

Alizia musikala-rekin arriskatu egin dute musika eskolako kideek, "aurrerapausoa" izan da, orain arte egindakoarekin alderatuta. "*Alizia* eta *Peter Pan* oso antzerakoak dira; Ingalaterratik datorren ipuin formatuko lana", azaldu du Moñuxek. "Niretzako, oso garrantzitsua zen formatua ez errepikatzea; *Peter Pan*-en kasuan, musikal klasikoak egin genuen, ortodoxoa, alegia. Oraingo honetan, aldiz, formula berri bat egin nahi

nuen, gauza berriak egiteko desiratzen nengoen", dio, eta gaineratu du: "Teknologiaren gaia sartu genuen; izan ere, gaur egun, ume guztiak galdetzen dute nonbaitera iritsitakoan: 'Badago wifia?'".

Zuzeneko arazo txikiak

Hainbat bideo-animazio sortu dituzte musikalean zehar eskaintzeko -100 bat bideo-. Eta horiek guztiak egiten ordu mordea sartu dituztela azaldu du Moñuxek: "Bideo guztiak guk egindakoak izan dira. Muntai horiek asko konplikatu du musikaleko lana. Gidoia egin eta bideo-animazio horiek guztiak egiten ia urtebete eman dut. Nola egin ikasi behar izan dut; izan ere, aurrez ez nekien nola egiten ziren bideoak. Oso pozik nago azken emaitzarekin", azaldu du Moñuxek.

Hain zuzen ere, teknologia berriak zuzenekoan izan dezakeen eraginari nolabaiteko beldurra zioten antolatzaileek. Eta,

horrelakoetan askotan gertatzen den moduan, teknologiak huts egin zien emanaldi hasieran. "Istripu txiki bat izan genuen, baina, zorionez, lehenengo bideoan izan zen. Ondoren, ondo joan ziren gainerako guztiak", gaineratu du.

Aurrera begirako ibilbidea

Beste musikalekin egin izan duten moduan, kanpoan ere eskainiko dute *Alizia musikala*. Azaroaren 25ean Beasainera joango dira. "Beste kontaktu batzuk ere izan ditugu, baina oraindik ixteko ditugu saio horiek", azaldu du Moñuxek.

Goiena telebistak Gabonetan eskainiko du domekan grabatutako ikuskizuna; eta, gainera, DVDa argitaratuko dute musikalekin.



Alizia musikaleko erretratu guztiak ikusteko, eskaneatu QR kode hau telefonoarekin.



Labaka eta Egizabal taula gainean. BIBAKULTURA.EUS

Feminismoaren begiradatik sortutako emanaldi umoretsua

'Erradikalak gara' bertso eta bakarrizketa saioa eskainiko dute gaur, 20:00etan, Aroztegi aretoan

A.E. BERGARA

Bertsoa eta antzerkia uzartuko dituzte Ane Labakak eta Beatriz Egizabalek Aroztegi aretoan. *Erradikalak gara* ikuskizuna sortu dute Lasarte-Oriako sortzaileek. Labaka bertsolaria da eta Egizabal, berriz, antzezlea eta ipuin kontalaria.

"Bi emakume elkartu gara eta mailetak kontraesan bezala dakartzagu, bertso eta bakarrizketa formatuan"; horrela aurkeztu dute proiektua. Umorea-ekin landutako ikuskizuna dela nabarmendu dute, erroetara iritsi gura duena.

Udal Musika Bandak zaindariaren eguna ospatuko du domekan

Musikarien zaindaria, Santa Zezilia -azaroaren 22a da eguna-, ospatuko dute domekan Udal Musika Bandako kideek. Ohikoa den moduan, kontzertua eskainiko dute Udal pilotalekuan, 12:30ean. Domekarako prestatu duten egitaraua da: *1832*, Alfredo G. Chirlaque; *Zampa*, F. Herold; *City of stars*, J. Hurwitz, Chirlaqueren moldaketarekin; *The phantom of the opera*, A. Ll. Webber; eta *Eloise*, P. Ryan.

Eguna kalejirarekin hasiko dute musikariek: 10:30ean izango da hori. Kontzertuaren ondoren, gainera, anaiarteko bazkaria egingo dute Zumelaga jatetxean. Giro onean ospatuko dute eguna.

Bizipenetatik abiatutako gaiak

Herriko kultur gintzan eta feminismo sarean jardun izan dute elkarrekin Labakak eta Egizabalek Lasarte-Orian. Hain zuzen, hortik abiatu zen elkarrekin lan egiteko gogo eta ideia. Ikuskizunean landutako gai asko euren bizipenetatik abiatuta egin dituzte. Besteak beste, feminismoa, euskaltzaletasuna, aniztasuna, sexua eta indarkeria dira lantzen dituzten gaiak.

Gaur, egubakoitza, izango da bertso eta bakarrizketa emanaldia, Aroztegin, 20:00etan. Sarre-ra 8 euro izango da.

Amaia Arantzabalen akuarelak ikusgai daude Nahikarin

Nahikari tabernan zabaldu du erakusketa Amaia Arantzabal margolari arrasatearrak. Akuarelak egiten ditu Arantzabalek, eta bere lanetako gai nagusia paisaiak izaten dira. Nahikarin jarri dituen lanetan, Debagoieneko, Jacako (Huesca) eta Toursko (Frantzia) paisaiak ikusteko aukera dago. Guztira, hogeimargolan eraman ditu hara. Horietatik batzuk, gainera, paisaiak abstraktuak dira: "Abstraktua egitera ausartu naiz. Izan ere, akuarela txiki batzuk egin ditut, eta oso gustura geratu naiz emaitzarekin", azaldu du Arantzabalek. Abenduaren 10era arte egongo da zabalik erakusketa hori.

Industrialdea, Eztala eta Iraetako tunela aztergai

Martitzenean egin zuten azaroko ohiko osoko bilkura, eta, mahai gainean jarritako gai-zerrendaz gain, bestelako gaiak ere landu zituzten: industrialdea, Eztalako aldagela aurrefabrikatua eta Iraetako tunela, besteak beste

Maidar Arregi ANTZUOLA

Hainbat gai onartu zituzten martitzeneko ohiko osoko bilkuran. Tartean, Goizper enpresaren eskaerari lotuta, Antigua auzoan daukan lur industrialaren egokitzapenerako xehetasun azterketa onartzea. "Goizperrek, daukan aterpea ixtea gura du eta bertan orain ez daukan metro batzuk eraikitzea. Kontua da gune horretan Goizperrek ez daukala hor gehiago eraikitzeko aukerarik. Baina ondoan badauka beste orube bat eraikitzeko baimenarekin. Hortaz, onartu duguna da ezin eraiki dezakeen azalera hori bestetik kentzea", argitu du Antzuolako alkate Beñardo Kortabarriak.

Horrekin lotuta, ezinbestez atera zen gaia izan zen industrialdearen egungo egoera. Izan ere, Antzuolako Udalak Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailetik ezezkoa jaso berri du. Baina zein da egoera une honetan? "Egoera da orain dela urtebete berdina. Norabide jakin batean lan bat egin genuen esku artera etorri zitzaigun aukera bat aprobetxatuz. Eta ezustekoa etorri zaigu. Orain urtebete bezala, ez daukagu industrialderik eta enpresek aktibitatea garatzeko tokirik ere ez dute. Orain, burmuina estutu eta ikusi behar-



Osoko bilkuran, botatzen. MAIDER ARREGI

ko dugu ea Antzuolan behar horri erantzuna emateko beste tokirik badaukagun", argitu du Kortabarria alkateak.

Mozioak

Kataluniako errepublikaren gaineko bi mozio aurkeztu ziren: bat, EH Bilduren eskutik; eta bestea EAJk aurkeztua. Eta biak onartuak izan ziren. Miren Gallastegi sozialistak aurkako botoa eman zuen: "Elkarrizketaren aldeko apustua egiten dugu eta epaileak dioena errespetatzen dugu; hala ere, uste dugu irten-

bide judiziala ez dela arazo politiko baten emaitza izan behar".

Iraetako tunela

Osoko bilkurako gaiez gain, Iraetako tunelaren egoera ere landu zuten. Izan ere, Gipuzkoako Diputazioak hasi ditu ura konpontzeko lanak. "Urte eta erdiren ostean, hasi dira Iraetako tunela konpontzeko lanak. Espero dugu urtea bukatu baino lehen lan horiek bukatzea eta bidegorriko zati hori herritarrendako berriro erabilgarri egotea".



BEÑARDO KORTABARRIA

Lurraman ospatu dute senidetzea

Ehun bat lagun joan dira Miarritzera, Aiherraren eta Antzuolaren arteko senidetzea ospatzera. Han, aihertarrak batu zitzaizkien –baita bezperatik eta asteburu osorako aurrez joandako gazteak ere–. Lurramako feriaz gozatu dute aurtien; baina baita bazkariak, musikak eta parranda giroak ere antzuolarrek eta aihertarrek.

Eñaut Elorrietak kantaldia eskainiko du domekan

Gernikarrak bakarkako saioa egingo du domekan, 18:30ean, Torresoroan. Bere ibilbideari errepaso egingo dio, kantu ezagunenak aurkeztuz, gitarra lagun duela. Oraindik badaude sarreak eta gaur liburutegian eta udaletxean eros daitezke. Domekan ere jarriko dira salgai.

Elorrietak bere mundu ikuskerak gerturatuko die ikus-en-

tzuleei, sortu zituen kantuen bitartez: biluzik, alegia.

Gernikan jaio zen Eñaut Elorrieta, 1975ean. Lugarri folk taldean hasi zuen musika ibilbidea. Gayarre musika eskolan musika eta gitarra klasikoko ikasketak egin zituen. Ken Zazpi taldearen sortzaile, konpositore eta kantaria izan da urte askoan; bederatzi disko grabatu dituzte elkarrekin.

Hala, gitarra eskuan duela bere ibilbideaz gozatzeko aukera izango dute ikus-entzuleek.

Iritsi da aldagela aurrefabrikatua

Eztalako futbol zelaiaren dagoeneko jarri dute Udalak enkargatutako aldagela aurrefabrikatua. Baina aldagela hori jartzeko, bertan zegoen estalpea edo aterpea lekuz aldatu dute eta, hain zuzen ere, ohiko aldagelen eta bulegoaren aurrean jarri dute.

Hala, aldagela aurrefabrikatua taberna ondoan jarrita dago, erabilgarri.



Eztalan jarri duten behin-behineko aldagela. MAIDER ARREGI

Auzoko ekimena bueltan da eguaztenero

Auzoko programa berriz ere martxan da ikasturte honetan. Euskaratik urrun daudenak euskarara gerturatzea da Auzokoren helburu nagusietakoa. Debagoienean dagoeneko sei herritan daude abian Auzoko taldeak. Antzuolako Auzoko eguaztenero Olarango lehen gelan elkartzen da –17:30-19:00–; atek irekita dituzte.

Karta txapelketa eta gaztaina erre jana, Landatxopen

Azaroan jokatuko da erretiratuen Herriko Mus Txapelketa. Sailkatutakoek eskualdeko txapelketan hartuko dute parte. Izena emateko epea azaroaren 24ra arte zabalik dago eta interesa dutenek elkartean bertan eman dezakete izena.

Bestetik, bihar, erretiratuek gaztaina erre jana egingo dute elkartean, 18:00etan.



Udaleko Hezkuntza Saila, hiru ikastetxeak eta Topagunea ari dira elkarlanean egitasmo honetan. KONTZEJUPETIK

Herria eta ondarea hobeto ezagutzeko bidea

Herriko ondarea transmititu gura duen proiektua da Hurretik eta orain arte prestatutako ikasmateriala LH-1eko eta LH-2ko ikasleen eskura jarriko bada ere, tertulia saioak egingo dira, herritar orok bere ekarpena egin dezan

Oihana Elortza OÑATI

Herriko ondarea batzen, jasotzen, ari dira transmisioan ez galtzeko. Material guztia ia prest dute, oso aurreratuta dago lan hori, eta datorren ikasturtean eskuragarri izango dute LH-1eko eta LH-2ko ikasleek herriko ikastetxeetan. "Oñati non kokatuta dagoen, ondoko herriak zeintzuk diren, ze mendi dauden hemen edo zein errekek zeharkatzen duen erakusten zaie umeei ikastetxeetan. Lan hori egiten da. Gainera, Natura Eskolako eta Turismo Bulegoko irteerak ere egiten dira eta hor ere jasotzen dugu herriari buruzko informazioa. Baina harago joan gura dugu proiektu honekin. Hau da, ze ohitura zeuden, ze kantu, ze pertsonaia edo ze pasarte historiko, adibidez. Hori jasotzea eta hori zabaltzea da gura Hurretik egitasmoarekin", azaldu du Hezkuntza zinegotziak, Nerea Zubiak.

Udalaz gain, herriko hiru ikastetxeak eta Topagunea ari dira proiektua gauzaten. Eta lan

talde horrek adostuko du ikasmaterialaren edukia eta hartu behar duen forma. Horretan ibiliko dira, Topagunearen ardurapean, Josu Zubia, material didaktikoari forma ematen, eta Mirari Sagarzazu, ilustratzen.

Tertulia saioak

Ikasmaterial hau 2018-2019 ikasturterako prest egongo da eta Lehen Hezkuntzako lehen bi mailetak irakasleek ikusiko dute euren ikasgaietan nola txertatu. "Maila horietan hasiko gara eta gero ikusi beharko dugu beste mailetak ikasleendako ere prestatuko den", dio Zubiak.

Baina Hurretik egitasmoa ez da bakarrik ikastetxeetara mugatuko. Gainerako herritarren

JASOTAKO MATERIALA EUSKARRI DIGITALEAN ERE JARRIKO DUTE, SAREAN EGONGO DEN BLOG BATEAN

gana ere iritsi gura du eta hori herri eragileen bitartez egingo dute tertulia saioak antolatuz. "Urtarriletik martxora bitartean izango da hori. Denok ditugu ekarpenak egiteko proiektu honi eta horixe jasotzea da asmoa", esan du hezkuntza zinegotziak. Ikus-entzunezko bat ere prestatuko dute.

Interneten

Ikasmaterial guztia sarean ere jarriko dute, edozein momentutan kontsultatu ahal izateko moduan. "Blog batean sartuko dugu jasotako material guztia eta hortxe egongo da, herritar guztien eskura. Modu horretan, gainera, audioak sartzeko modua ere izango dugu; kantuak, esaterako. Gainera, etengabe elikatzen joango da. Informazioa gehitu ahal zaio edozein momentutan eta osatzen eta aberastan joango da bloga", azaldu du Nerea Zubiak. Bloga irailean jarriko dute ikusteko moduan, ikasturte hasieran.

Olaitturri estaltzea jasoko du EH Bilduk 2018ko aurrekontuetan

Ehun proposamen baino gehiago jaso ditu buzoietan; legegintzaldi plana eta ekarpenak ere izan ditu kontuan

O.E. OÑATI

Azaroaren 30ean egingo den osoko bilkuran bozkatu dute datorren urteko aurrekontua. Udal Gobernuak prest du txostena eta aurreko urtekoa baino handiagoa izango dela dio; 18.781.000 euro guztira. "Aurrekontu proiektua lantzerakoan bereziki zaindu da finantza oreka egokia mantentzea, eta, ondorioz, aurrezki arrunt garbia duen aurrekontua da, zorpetze maila oso baxukoa", zehazten du Udal Gobernuaren prentsa oharrak. Gaineratzen du Ongizate eta Berdintasun alorretan "gastu soziala mantentzeaz gain, gizarte larrialdiak eta programa psikosozialetarako diru garrantzitsuenak indartu" egin direla. Baita Haurrak eta Gazteria batzordea ere, "ludotekak eta gaztelekuaren kudeaketa kontratu berri batekin". Astean eman

dio asmoen berri Udal Gobernuak oposizioari.

Inbertsioak

Inbertsioei begira, kiroldegirako 300.000 euroko partida bat jaso du Udal Gobernuak obrak hasi ahal izateko proiektua esleitzeko, eta beste 50.000 euro Olaitturrirako exekuzio proiektua ere jaso da; hor erabilera askotariko espazio estali bat egitea da plana. Hurrengo hila-beteetan, inbertsio horien zenbatekoak zehaztuta daudenean, urte anitzeko inbertsio plan bat prestatuko duela dio oharrean Udal Gobernuak, "ekonomia plangintza batez lagundurik".

Mendiko kale eraberritzea, Kasablankan jolasgune bat egitea eta auzoetako urbanizazio lanekin jarraitzea ere gura du Udal Gobernuak. Baita Auzotazuna programarekin ere.

Kupoko diruaren erabilera kritikatu dute jeltzaleek

Kupotik jaso den diruaren erabilera kritikatu du EAJko udal taldeak. Jeltzaleen iritziz, kupotik jasotako 379.000 euroak udal zergak eta tasak jaisteko erabili beharko liriateke, eta ez kaleratutako kale-garbiketako langileentzat epaitegiak ezarritako 240.000 euroko kalte-ordaina ordaintzeko. Adierazi dute langileei eragin dizkien kalteen

konponbidearekin ados daudela, baina ez EH Bilduren Udal Gobernuaren erabakiarekin.

Urriko osoko bilkuran esandakoa berresteko prentsa oharra bidali du EAJko udal taldeak eta adierazi du "379.000 euroak oñatiarren mesedetan" erabili behar direla, "eta ez, inondik inora, Udal Gobernuaren kudeaketa txarra ezkutatzeko". Erabakia alkate dekretuz hartu izana ere salatu dute jeltzaleek, "EAJri proposamenak aurkezteko aukerarik eman gabe".

Ikas materiala batuko dute Tindufeko kanpalekuetarako

Eskolarako motxilak, boligrafoak, margoak, liburuak, koadernoak... batuko dituzte datorren astelehenetik aurrera Tindufeko (Sahara) kanpalekuetarako. Hermansoloña elkarteak antolatuko du bilketa eta denda hautan batuko dute materiala: Haritza eta Hirukar liburu dendak, Eurodenda eta Irizar, Altuna eta Urzelai estankoa.

Hermansoloña elkarteak Jose Antonio Urteagak azaldu duen moduan, Kale Zaharrean duten lokalean ere batuko dute ikas materiala, "baita panpinak, kirola egiteko oinetakoak, era guztietako motxila eta lo zakuak ere". Bidalketa gastuetan laguntzeko, kontu korrantea zabaldu dute Laboral Kutxan, gura duenak dirua sartzeko.

Ikas materiala batzeko kanpaina abenduaren 16an amaituko da, Elkar Hezik antolatuko duen elkartasun azokan.



Aratz Losada, Jon Lopez, Josean Urmeneta eta Anton Sierra bibotea utzita BiziPoz tabernan. MIREIA BIKUÑA

Badabil Movember berriaz prebentzioa gogorarazten

Barrabletako eta prostatako minbiziak kontzientzia zabaldu gura duen egitasmoak gero eta bibotedun gehiago batzen ditu urtetik urtera. Gaitza izan duen Josean Urmeneta 'Xolonpo'-k bere kasua kontatu gura izan du aurtengo kanpainan

Oihana Elortza OÑATI

Movember hilabetea da azaroa eta Oñatin oso nabarmena da hori. Urtetik urtera gero eta gizonezko gehiago ikusten dira bibotearekin kalean eta aurten ere itxura hori dute askok hilabete hasieratik. "Barrabletako eta prostatako minbiziaren gaineko kontzientzia zabaltzeko egitasmoa da hau eta medikuarengana joateko mezua ere zabaldu gura dugu aurten", dio Movember Oñati taldeko Jon Lopezek.

Minbizia

Gaitz horri lotuta Markel Irizarren aurpegia egon ohi da gehienetan, baina ez da minbizi hori izan duen bakarria. Josean Urmeneta *Xolonpo* oñatiarrak ere izan du, adibidez, eta 60-65 urtetik gorako oñatiar dezentek dutela dio hark.

Prostatatua izan zuen *Xolonpo*-k. "Lantegian egindako ohiko osasun azterketa batean antze-

man zidaten. Minbiziaren arrastoak ikusi zituen medikuak eta, bere gomendioa jarraituz, kendu egin zidaten prostata. 2015eko otsailean antzeman zidaten, eta urte bereko apirilean kendu prostata. Eta hori barik bizi naiz azken bi urte hauetan".

Ordutik hona, azterketak egiten jarraitzen du. "Prostata kendu ostean badaude bi arazo gairitu beharrekoak: lehenengo, txiza egiten ikasi behar duzu berriaz, baina gorputzak azkar ikasten du hori. Bigarrena da sexua izatea. Baina hori ere ikasten da eta gairitzen da. Ni ondo bizi naiz eta uste dut zortea dudala garaiz antzeman zidatelako eta arazoa konpondu zelako. Beste batzuek ez dute

**HILAREN 25EAN
EGINGO DUTE
BIBOTEDUNEN AFARIA
ETA ORIGINALENAK
SARIA IZANGO DU**

nik adinako zorterik izan. Horregatik, oso garrantzitsua da prebentzioa. Osasuna zaintzeko da. Analitika arrunt bat egitea nahikoa da prostatako minbizi duzuen edo ez ikusteko eta edozein momentutan egin dezakezu".

Sexua izateko fase horretan egindako azterketa batean, dena ondo ez zihoala ikusi zuten medikuek, eta tratamendua hartu zuen berriro. "Duela urtebete izan zen, 2016ko azaroan. 35 saio jaso nituen eta harrezkero ondo nago. Sarri egin beharko ditut probak bizi naizen bitartean, baina ondo nago. Proba horiek eginda ere ondo bizi daiteke".

Kontzientzia

Duela bost urte jaio zen Movember mugimendua eta urtetik urtera jende gehiago batu da egitasmoa. Aurtengo bibotedunen afaria hilaren 25ean egingo dute, Iturritxon. Jon ile apaindegian edo Ongi tabernan eman behar da izena. Bibote originalenak saria izango du.

NIRE USTEZ



MAITE IRIZAR

Gaur inbertitu, bihar libertitu

Gure artean opariak egitea ez da kontu berria. Denok egin diogu noizbait erregaluren bat estimatzen dugun jendeari.


Urtea amaitzean den egun hauetan, berriz, Espainiako loteria nazionala da senideen eta lagunaren artean bitxi preziatua. Askok oparitzen dute dezimoren bat, eta beste askok, obligazioz edo, oparitu dietelako itzultzen diete oparia, norbaitek zerbait oparitzen duenean bueltan jasotzeko oparitu izan balu bezala.

Oparia ez dakit lagunari edo Espainiako diru-poltsari nori egiten diogun, baina kortesiazko gurpil-zoro honek euskaldunak, behintzat, ez gaitu aberastuko. Are gehiago, euskal herritarrak omen gara loterian diru gehien gastatzen dugunak, marka da gero! Horko dirua Euskal Herrian geldituko balitz, sikiera...

Alde ederra genuke diru ekarpen hori euskal kultura babesteko ekimenak kontsumitzeko eta sustatzeko erabiliko bagenu. Jasotzen duenak eskertuko digu, euskal zaleek ere bai, eta, nola ez, inbertsioa egin duenak baita. Saria ziurra litzateke guztiontzat.

Iaz baino istripu gehiago

Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailak emandako datuen arabera, 2016an hamabi istripu izan ziren Elorregitik hormigoig-makina dagoen biribilgunera bitartean; bi lagun larri zauritu ziren eta zazpi, arin. Aurten, azaroaren 8ra arte, beste hamabi izan dira kilometro eta erdi horretan; pertsona bat larri eta bi arin zaurituta. Argazkiko istripua azaroaren 10ean izan zen.



ARGAZKIJABEAXXXXXXXX



LFI

Anuaría saria, Letraz-endako

Diseinu grafikoko Anuaría 2017 sari nazionala irabazi du Letraz taldeak. Bartzelonan izan da sari banaketa eta hantxe izan ziren Letraz taldeko Leire Fernandez, Eduardo Herrera eta Maria Perez. "Oso pozik gaude. Azken detailea ere kontuan hartzeko egiten dugu lan gogor, eta ikusi dugu baloratzen dela lan hori", adierazi du Leire Fernandez oñatiarrak.



Potx eta Lotx pailazo bikotea, martitzeneko aurkezpenean. MIREIA BIKUÑA

Sudur-gorriek algaraz jarri nahi dute herria

Algaraz egitasmoa aurkeztu dute asteon; egitasmoaren zutabeetako bat da Potx eta Lotx pailazo bikotea. Ikuskizuna eta diskoa labetik atera berri dutela etorri dira, gainera: 'Herriko festetan' ikuskizuna abenduaren 28an aurkeztuko dute, gaztelekuan

Arantzazu Ezkibel OÑATI

Sudur-gorri bikote berria sortu da herrian: Potx eta Lotx. Bikote ederra osatzen dute, elkarrekin ibiltzen dira "jolasten eta dantzatzen". Martitzenean aurkeztu zuten egitasmoa: Josu Zubia eta Itziar Arkauz dira pailazoak, eta Danel Teran eta Ander Murillo izango dituzte

laguntzaile lanetan, beste zenbait pertsonaia antzetzten. Irazan Antzerki Guneko kideak dira laurak.

Algaraz egitasmoa

Algaraz egitasmoaren barruan kokatu behar da Potx eta Lotx pailazo bikotea. Egitasmo berri horrek pailazogintza du oinarri,

eta diziplina hori landuta gizar-teko hainbat esparrutan eragin gura dute: "Eskoletan, enpresetan... umeei bakarrik ez, helduei zuzendutako egitasmoa ere bada", azaldu dute aurkezpenean.

Euren asmoa sormenari lotuta ekintzak egitea da: ikuskizunak, abestiak, dantzak... "Pailazogintzak lantzen ditu gizakiaren

oinarrizko balioak. Sudur gorriak ipinita nolakoak garen erakutsi dezakegu. *Clown*-ak ez dauka mugarik", esan dute.

Potxek eta Lotxek Valentziako Los Hijos de Augusto *clown* eskolan ikasi dute, Jesus Jara eta Amaia Prieto irakasleekin.

Auskalomendiko jaiak

Dagoeneko prest dute Potxek eta Lotxek euren lehenengo ikuskizuna: *Herriko festetan* du izena. Potxen eta Lotxen osabak gertatu izan du urte askotan Auskalomendiko jaietako askari handia, merendola. Bada, dagoeneko nekatu da osaba zeregin horrekin, eta merendola antolatzeko ardura bi sudur-gorri pasatu die.

Festa eguna iritsi denean, ordea, Potxek eta Lotxek ahaztu egin dute merendola gertatzea; hala, hor hasiko da euren lana. Merendolarako gauzak bilatzeko ikusleen laguntza beharko dute pailazoek. Ikuskizuna abenduaren 28an estreinatuko dute, gaztelekuan: 17:00etan izango da, 3 euroren truke. Sarrerak gaztelekuan egongo dira salgai –herriko beste dendaren baten ere badute sarrerak jartzeko asmoa–. Nabarmendu dute familiarendako ikuskizuna dela: "Helduek ere jolasteko beharra izaten dute, beti!", gaineratu dute Potxek eta Lotxek. Ordu eta laurdeneko ikuskizuna izango da. Aurkezpenerako "urduri" daudela azaldu dute.

Lana abenduan aurkeztuko duten arren, datorren urteko martxotik aurrera ibiliko dira ikuskizunarekin alde batetik bestera.

Diskoa Durangoko Azokan

Ikuskizuna bakarrik ez, diskoa ere sortu dute Potxek eta Lotxek. Ikuskizunaren izen bera izango du, *Herriko festetan*, eta Durangoko Azokan jarriko dute salgai, Lankuren erakusmahaietan, 10 euroren truke. 12 abestiz osatutako diskoa da –10 abesti berri eta beste bi Potxek eta Lotxek grabatutakoen moldaerak–.

Herriko beste elkarte batzuen laguntza izan dute diskoa sortzeko: hain zuzen, Txinparta bertso eskolako kideek egin dizkiete letrak eta musika Josu Zubiarena da. "Oso abesti politak egin dizkigute bertsolariek", azaldu dute Potxek eta Lotxek.

Lankurekin lankidetzan

Diskoa eta ikuskizuna zabaltzeko asmoz, Lankurekin lankidetzan jardungo du Algaraz egitasmoak –kultur ekitaldiak sortzeko eta antolatzeko giza zein baliabide kulturalak ku-deatzen dituen enpresa–.

IKUSKIZUNERAKO SARRERAK 3 EUROREN TRUKE DAUDE SALGAI GAZTELEKUAN

'Leire galeria' argazki onena

Aloña Mendiko mendi sailak antolatutako *Mendia eta natura* argazki lehiaketako epaimahaiak eman du bere iritzia. *Gizakia mendian* atalean, Borja Abarrategik jaso du Oñati saria *Leire galeria* lanarekin. Xabi Matak eta Jabier Camachok jaso dute sari nagusia.

Argazki sarituak astelehenetik aurrera egongo dira ikusgai kultura etxean, 18:00etatik 20:00etara.



BORJA ABARRATEGI

Kirola eta babesletza landuko dituzte

Debagoieneko Mankomunitateak, Artemanek eta AZK-k antolatuta, babesletza estrategikoaren gaineko mahai-ingurua egingo dute eguaztenean, 18:00etan, Santa Ana aretoan. MUko Susana Azpilikueta, Ulmako Raul Garcia, Ampoko Ane Bergaretxe eta Laboral Kutxako Kepa Koldo Ortiz de Urbina Estivariz izango dira gonbidatuak. *Debagoiena. eus*-en eman behar da izena.

Mahai-inguru hori kirol elkar-teak eta komunikazioa lantzeko jardunaldien barruan sartu dute. *Zure kirol elkar-tearen komunikazioa hobetu nahi?* hitzaldi zikloa egin dute: azaroaren 8an Arrasaten egin zuten hitzaldia eta azaroaren 15ean Bergaran.

Patrua kalean egingo du emanaldia Vallsek

Juan Valls bakarlari oñatiarrak *La chunky sessions* diskoa aurkeztuko du domekan, Patrua kalean, 19:45ean –eguraldi txarra bada, gaztetxean–. Vallsek sortutako zazpi abesti ditu diskoak, denak ingelesez. Musika akustikoa, folk eta rock ukitua duten abestiak dira.

"Azaroan Oñatin aurkeztu gura nuen diskoa, baina dagoeneko eskaini ditut beste kontzertu batzuk: Donostian, Sopelan, Asturiasen...", azaldu du Vallsek. Udan Glasgowko La Chunky estudioan grabatu zuen diskoa Vallsek, Johnny Smillieren gidaritzapean. Txaketua, Pako eta Boga tabernetan dago lana salgai 5 euroren truke.

'Bonba', 'Gontxa' eta orain 'Goros'

FUTBOLA Azken hamarkadan Realaren atzealdea defendatzen dabiren hirugarren arrasatearra da Andoni Gorosabel, eta lehenagokoak diren Kortabarriaren, Sagastaren, Aranbarriren eta Luis Mari Rekarteren taldean dago jada

Xabier Urzelai ARRASATE

Partidu gutxi batzuk behar izan ditu Andoni Gorosabelek (Arrasate, 1996) Realeko atzeko lerroa defendatzeko adina maila badiela erakusteko. Ez zuen debut erraza izan, baina Levanteren kontrako porrotak (3-0) ez zuen kikildu. Kopan, Arrasatekoarekin berdegunean, Realak 0-1 irabazi zion Lleidari, eta aste gutxira, Europan, Vardarren kontra amestutako partidua jokatu zuen *Goros*-ek –halaxe deitzen diote lagunek–. Hala, takada batean, arrasatearrak hiru torneotan ordezkatu du Reala.

Egia da Vardarren kontrako partiduan kontrarioak erraztasunak eman zituela, Blazevski-k ez ziola aparteko buruhausterik eman, baina Gorosabelek txukun egin zituen gauzak, eta duela hilabete gutxi Bigarren B mailan jokatzeko ibili dela kontuan izanda, patxada erakutsi zuen baiolarekin, *temple*-a.

Bada, garai bateko Kortabariak, Sagastak eta Aranbarriak utzitako hutsunearen ondotik, azken bi hamarkadetan rekarretarrek edo, gertuago, Mikel Gonzalezek betetako eginkizuna errepikatzen dator beste arrasatear bat.

UDAKo harrobikoa

Andoni Gorosabelek Joma taldetik egin zuen saltoa UDARA, gazte-gaztetan. 2007-2008 denboraldian alebin mailako taldean jokatu zuen –argazkien– eta kadete mailan joan zen Realera. Bada, talde txuri-urdinarendako egin zuen *azterketa* hura gogoan du orduko UDAKo kirol zuzendari Igor Arenazak: "Villabonan egin zituzten Realeko probak, eta, gurasoek egun hartan ezin zutenez Andoni probetara era-

"ODRIOZOLARI EZ DIO POSTUA KENDUKO, BAINA AUKERA HAU APROBETXATZEN DABIL"

"BIGARREN B MAILAN JOKATZETIK EUROPAN JOKAZERA PASA DA; EZ ZAIU URDURITASUNIK NABARITU"

"BERDEGUNEAN ERRAZ EGITEN DITU GAUZAK ETA, GAINERA, KONFIANTZA DU AURRERA EGITEKO"

RAFA MUNGIA, KAZETARIA

man, nirekin etorri zen. Jon Mikel Arrieta zen orduan Realeko kategoria horretako begiralea, egun gazte mailako taldean dagoena. Haren anaiarekin Eibarren jokatu nuen, eta banuen bere berri. Gorosabelen gainean egon ginen berbetan, hark ere ikusi zion zerbait, eta UDAn jokatzeko duen moduan jokatu beharrean –hegaleko erdilaria zen orduan– atzeko lerroko modukoa zela iruditu zitzaion. Eta, taldean geratzeko ahalegina egingo zuela esan zidan". Esan eta bete.

Hor egoteak duen balioa

Futboleko –eta elite mailako kiroleko, orokorrean– ondo jokatzen aparte momentua aprobetxatzeak duen garrantziaz egin dio berba Rafa Mungia kazetari arrasatearrak GOIE-



UDAKo ohorezko infantilen taldean

Ezkerretik hasita, goiko ilaran: Manex Larzabal, Mikel Crespo, Mikel Arizmendiarieta, Andoni Gorosabel, Asier Sanchez, Ioritz Saez de Gordoia eta Aitor Magallanes. **Erdiko ilaran, ezkerretik:** Beñat Arrieta, Beñat Illaramendi, Santi Morales, Erik Badillo, Adolfo Martin, Jon Aranburu eta Ander Gilletto. **Behoko ilaran, ezkerretik:** Aritz Garai, Joseba Garcia, Ugutz Rosado, Jon Ugarte, Markel Saez de Gordoia, Dabid Martin eta Jon Guridi.



Andoni Gorosabel, Vardarren kontrako partiduan, eskuin hegaletik erdiraketa bat egiten. De la Be...

NARI: "Begi bistakoa da Gorosabelek ez diola Odriozolari postua kenduko. Azken urteotan ez dudalako Odriozola modukorik ezagutu, izugarria da mutil hori egiten dabilena. Baina gehienok oso garbi daukagu donostiarrak ez duela Realean askorik iraungo, eta hutsune hori betetzeko hautagai izan daitekeela erakusten dabil Gorosabel. Orain arte ikusitakoagatik, ondo egin ditu gauzak, eman dioten aukera aprobetxatzen dabil. Berdegunean ez du ezer ikusgarririk egin, baina neurria eman du partiduko guztietan. Gauzak erraz egiten ditu, eta partiduek aurrera egin duten neurrian konfiantza hartzen duela erakutsi du. Bote prontoan, badirudi ez duela aparteko alderik sumatu Europan edota Bigarren B mailan jokatzeko artean, eta horrek ematen du zer pentsa, denak ez dira horretarako gauza".

Eusebiok emandako aukera

Bada, azken urteotan Beasainen (2014-2015), Berion (2015-2016), eta Real Unionen (2016-2017) utzita jokatu ostean, Realak aukera eman dio berriro ere, eta hilabete gutxitan aurrerapauso

handia eman du: "Eusebio gazteei aukerak ematearen aldekoa da, eta zerbait ikusi zion Gorosabeli talde nagusiarekin denboraldi-aurrea egitera eramateko. Bazekien Odriozolak ezingo zituela partiduko guztiak jokatu, Carlos Martinez min hartuta dago eta Zaldua Leganesen dago utzita. Eta Gorosabel hutsune hori ondo betetzen dabil", dio Mungiak.


Bada, horixe bera azpimarratzen du, hain zuzen ere, Igor Arenazak: "Heldutasun handia erakutsi du azken hilabeteotan gertatu zaion guztiaren aurrean. Udan izan nintzen Andonirekin berbetan, eta lasaitasun handiz esan zidan Realekin egingo zuela denboraldi-aurrea. Burua bere tokian zuela ikusi nuen, lasai zegoen, eta, 21 urte dituen gaztea dela kontuan izanda, atentzioa eman zidan horrek".

Sanseko jokalaria da

Andoni Gorosabelek egin dituen adierazpen apurretan –Realak ez die Sanseko jokalariei elkarriketak ematea baimentzen, arau hori dute– azpimarratu du garbi daukala orain momentuan Sanseko jokalaria dela: "Odriozola oso jokalaria ona da, eta nire



Ione Oyanguren egindako gol ederrean Arrasatekoak egin zuen erdiraketa. REAL SOCIEDAD



Rafa Mungia, Gorosabelekin, eman dituen elkarrizketa apurretako batean. R.MUNGINIA

asmoa da ematen dizkidaten aukera eta minutu guztiak aprobetxatzea. Alde horretatik, Eusebiori, eman didan aukera izugarri eskertzen diot".

Zazpigarren arrasatearra

Horrenbestez, lehenengo taldearekin debuta eginda, Realekin jokatu duen zazpigarren arrasatearra da Gorosabel, Jesus Mari Aranbarri (43 partidu), Juan Sagasta (25), Inaxio Kortabarria (394), Luis Mari Lopez Rekarte (96), Aitor Lopez Rekarte (338) eta Mikel Gonzalezekin (299) batera.

Cresporen heriotzak kolpatuta

Bestalde, Mikel Cresporen heriotzak askorengan izan du eragina -abuztuan Pirinioetan hil zen-; adibidez, kategoria txikietan elkarrekin jokatu zuten UDAko taldekideen artean. Andoni Gorosabel zen horietako bat: "Gertaera triste haren aitzakian harremana izan dugu berritri", dio Arenazak: "Taldea hartako jokalariek ondo gogoratzen ditut: Ibon Perez, Markel Gordoa, Andoni Gorosabel, David Martin, ondoren eskalada aukeratu zuen Jon Aranburu, Mikel Crespo bera... Talde polita osatzen zuten".

HOCKEYA Ione Oyanguren Mexikon egoteko lanean dabil

Datorren urtean egingo dute Mexikon izotz hockeyko munduko txapelketa, eta Ione Oyanguren aramaiorak torneoan egoteko lanean dihardu.

Asteburuan izotz hockeyko lauko torneoak jokatu dute Granadan, eta bertan, aurrez aurre izan dira Espainiako Selektzioa, Hungaria, Polonia eta Britainia Handia. Hala, Espainiako Selektzioko atea zaintzen lan azpimarragarria egin du Oyanguren. 18 urtez azpiko selektzioan jokatu duen lehenengo aldia izan da, eta partiduan zehar Britainia Handiko jokalariek zazpi aukera izan zituzten, aurrez aurreko jokaldian, Ione gainditzeko. Bada, bigarren zatian Charlotte Edgar-ek baino ez zuen lortu Ione gainditzea (1-1); partidu amaieran egindako penalti jaurtiketetan Aramaiokoak bikain jarraitu zuen, lau jaurtiketatik hiru geratuta, eta horri esker, Espainiako Selektzioa hirugarren sailkatu da torneoan.

ESKUBALOIA Fagor Industrialek eta Bergarak etxean

Kategoria ezberdinetan, baina bi talde horiek etxean jokatu dute asteburuan. Batetik, Fagor Industrialek Txikipolit hartuko du Zubikoan domekan (12:00). Eta adi talde horrek: sailkapenean laugarren dago, eta aurreten, besteak beste, Basauri ezustekoa emateko kapaz izan da. Oñatiarrak, berriz, Gasteien irabaztetik datoz. Ez zuten partidu ona egin txantxikuek, baina halakoetan da garrantzitsua puntuak batzea.

Kategoria berean, berriz, Ford Mugarri Arrasatek Basaurin jokatu du (12. orrian informazio gehiago), eta Gipuzkoako Txapelketan norgehiagoka garrantzitsua jokatu du gaur, egubakoitza, Bergara Soraluze -20:30, Labegaraieta-. Urnieta hirugarren postuan dago sailkapenean, eta laugarren dago Bergara, puntu bat gutxiagorekin. Edu Orgazen taldeak hainbat baja ditu, baina hori ez da eragozpena izan azken asteotan maila ona erakusteko.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

EMAK. EUSKAL LIGA

Bizkerre-Arizmendi L.
Zapatua. 16:00. Getxo.

OHOREZKO ERREGIONA.

Aretxabaleta-Amaikak
Domeka. 16:30. Ibarra.

Mondra-Touring
Zapatua. 16:30. Moiategi.

Hondarribia-Bergara
Zapatua. 15:30. Hondar.

ERREG. PREFERENTEA

Antzuola-Ordizia
Zapatua. 16:00. Eztala.

Ikasbe.-Aretxabaleta
Domeka. 15:30. Azpeitia.

Tolosa-Mondra
Domeka. 15:30. Usabal.

Aloña Mendi-Bergara
Domeka. 16:30. Azkoaga.

LEHEN ERREGIONALA

Anaitasuna-Aloña M.
Zapatua. 15:30. Azkoitia.

Arizmendi-Eibartarrak
Zapatua. 18:00. Ibarra.

OHOREZKO GAZTEAK

Aloña Mendi-Ilintxa
Zapatua. 18:00. Azkoaga.

Eibar-Mondra
Zapatua. 15:45. Unbe.

Aretxabaleta-Bergara
Zapatua. 16:00. Ibarra.

ARETO FUTBOLA

MAILA NAZIONALA

Aretxabaleta-Alipendi
Domeka. 10:00. Ibarra.

EUSKAL LIGA

Mondrate-Gora Bilbao
Zapatua. 17:30. Musakol.

Eskoriatza-Gernikako
Domeka. 18:00. M.Muñoz

GAZTEAK, LIGA NAZION.

Gora Bilbao-Eskoriatza
Zapatua. 18:30. Bilbo.

GIP. HIRUGARREN MAIL.

Stokke-Mondrate
Zapatua. 16:00. Donibane

GAZTEAK

Summa Al.-Mondrate
Zapatua. 12:15. Donostia.

EMAKUMEZKOAK

Eskoriatza-Trumoi Tab.
Domeka. 12:00. M.Muñoz

SASKIBALOA

EBA

MU-Easo Loquillo
zapatua. 18:30. iturripe.

GAZTEAK, EUSKAL LIGA

MU A-Easo Elkar
Domeka. 12:15. Musako.

GIPUZKOAKO SENIOR

MU-A Atletico S.
Domeka. 17:30. Musakol.

Alde Zaharra-Aloña M.
Zapatua. 20:00. Donostia.

SENIOR, BIGARREN M.

Bergara Sora.-Bosteko
Zapatua. 16:30. Labega.

SENIOR EMAKUMEZKO.

Eskoriatza (atsedena)

ESKUBALOA

EUSKADIKO TXAPELK.

Fagor Ind.-Txikipolit
Domeka. 12:00. Zubikoa.

Basauri-Ford Mugarri
Zapatua. 16:30. Basauri.

EUSKAD. EMAKUMEZK.

Berango-Aloña Mendi
Zapatua. 17:00. Berango.

GIPUZKOAKO TXAPELK.

Soraluce BKE-Urnieta
Gaur. 20:30. Bergara.

Eibar-Sesifiena Aloña
Gaur. 20:00. Eibar.

GIP. BIGARREN MAILA

Bergara (atsedena)
Arrasate-Hondarribia
Domeka. 12:00. Iturripe.

ERRUGBIA

EUSKADIKO TXAPELK.

Ordizia-Kanpan. ART
Zapatua. 18:30. Moiategi.

PILOTA

OÑATI

Gaur, 18:00etan, eskuz binako zortzi partidu. Kategoria guztietakoak.

ARETXABALETA

Egubakoitza, 19:00etan hasita, eskuz binako bost partidu.

ANTZUOLA

Egubakoitza, 19:15ean hasita, eskuz binako bi partidu.

BERGARA

Egubakoitza. 19:15ean: Eskuz binako hiru partidu.

ESKORIATZA

Egubakoitza. 19:30ean: Eskuz binako partidu bat.

ARRASATE

Egubakoitza. 20:30ean: Eskuz binako bi partidu bat.

Mondrak Touring hartuko du eta UDAK, Amaikak Bat

FUTBOLA Hamar jardunaldiren ondoren lider den Bergarak Hondarribiaren zelaian jokatu du zapatuan

X.U. ARRASATE

Mondrak (16 puntu) eta Aretxabaletak (16 puntu) etxean jokatu dute hamaikagarren jardunaldia, eta bi taldeek dute etxeko zaleen aurrean irabazteko premia. Arrasatearrek joan den astean 2-1 galdu zuten Tolosan. Partidu lehiatua izan zen, detaile txikiak erabaki zuten norgehiagoka, eta, tolosarrak, 96. minutura arte izugarri sufritu bazuten ere, partidua irabazteko gauza izan ziren. Bihar, berriz, Davilaren eta Romeroren mutilek Touring hartuko dute,

joan den astean Bergararen kontra 0-3 galdu zuen taldea.

UDA, Garaipena lortu ezinka

Aretxabaletak bost aste daromatza partidurik irabazi barik eta ez da ohikoa kategoriako erreferenteetako bat horrela ikustea. Joan den astean 0-0 egin zuten Irunen, eta domekan, hamaikagarren dagoen Amaikak Bat taldearen bisita izango dute.

Bergarak (16 puntu) ikusgarri jarraitzen du; bihar Hondarribira hamaikagarren garaipenaren bila joango dira.

'El caserío' zarzuela eskaintzeko irrikan

Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak lau emanaldi egingo ditu Amaia antzokian: bihar, etzi eta datorren astean beste bi; 'Arrasate.eus'-en eta leihatilan, hamazortzi eurotan, eros daitezke sarrerak. Harreman GKer laguntzeko zozketak ere egingo dituzte

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE Zarzuelaren hilabetea izaten da azaroa Arrasaten, orduan izaten dira Izaskun Murgia Elkarte Lirikoaren emanaldiak. 2005ean eskaini zuten Jesus Guridiren *El caserío* estreinatuko dute bihar, zapatua, 19:30ean, Amaia antzokian.

Hamazortzigarrena dute. Euskaraz egin zuten aurrekoan, eta gazteleraz oraingoan.

Otsaila ezker lanean

Atzo, eguena, egin zuten azken entsegu orokorra, eta jendearen aurrean erakusteko deseatzin daudela kontatu zuen Cristina Cubillo sopranoak Arrasate Irratian. *Igo autobusera!* saioan izan zen atzo, Mikel Izurrategirekin eta Mertxe Salaberrirekin.

Otsailean hasi eta, harrezkero, ia astero elkartu dira estreinaldira bitartean. Hiru kideok, baina, eskarmentua dute zarzuela kontuetan. Orain dela hamahiru urte egin zuten papera errepikatuko dute hirurek. Cubillo, Ana Mari da: "Urte eta esperientzia gehiagorekin, baina pertsonaia bera antzeztuko dut; hala ere, berriz ikasi behar izan dugu testua, ahaztuta geneukan eta. Sasibil baserriko loba naiz ni, Tio Santirekin (Igor Ganboa) eta Lander Oiangurenekin



El caserío antzeatzen, astelehenean, Amaia antzokian. IZASKUN MURGIA ELKARTE LIRIKOA

antzeztuko duen Joxe Mielekin batera". "Ni Eustasia, umorezko pertsonaia; kantuan baino, berba gehiago egiten dut. Sagardotegiko jabea naiz, etxeoandrebata, guztiei txilioka ibiltzen dena", dio Salaberririk. "Eta ni Txomin naiz, baserriko morroia", dio Izurrategik. "Ganaduarekin arduratzen naiz eta tartean maitasun istorio batzuk izango ditut. Umorezkoa da aurten ere nirea".

Gertukoa, abesti ezagunekin

"Izugarri gustatzen zait lan honetako musika, nahiz eta nire

papera zaila den, tesitura agudoa da...", dio Cubillok, obraren ezaugarri musikalei buruz galduta. "Guridiren musika oso ezaguna da guretzat, hor daude: zortzikoa, ezpata dantza, *Pello Joxepe*...", gehitu du Salaberririk.

Harreman GKeren zozketa

Lau otarre zozkatuko dituzte; emanaldi bakoitzean bana. Hori horrela, euro baten truke txartelak erosteko aukera izango dute ikusleek, Indiako Ankur umezurtegiari laguntzeko helburuarekin.

Amodiozko gutunak idazteko eta esaldiak asmatzeko garaia

Jardun Euskara Elkartearen urteroko lehiaketan parte hartzeko epea zabalik dago, urtarrilaren 7a bitartean

A. A. BERGARA

Hogeita seigarren aldia du Bergarako euskara elkarteak abiatu duen Amodiozko Gutunen Lehiaketak, eta 2003an edo lehenago jaiotakoek har dezakete parte.

Orain arteko sariketetan moduan, jatorrizkoak, argitaratu gabeak eta euskaraz idatzita behar dute izan; eta lehiakide bakoitzak gura beste eskutitz aurkezteko aukera du, baita aurreko urteetan sarituak izan ez diren lanak ere. Idatziek gutun forma izan behar dute eta DIN-A4 orrietan eskuz eta ordenagailuz idatzita aurkeztu ahal izango dira, baina lanen luzera ezingo da bi orrialde baino gehiagokoa izan.

Esaldien bigarren lehiaketa

Posta arruntez –Jardunen bulegora bidalita, hau da, Errotalde

jauregia z/g, 20.570 Bergara, da helbidea–edo posta elektronikoz amodiozkogutunak@gmail.com–bidali behar dira gutunak, urtarrilaren 7 baino lehen. Esaldien lehiaketan parte hartzeko epea, baina, urtarrilaren 25ean amaitzen da.

Jardunekoek ez dute adin mugarik jarri; hortaz, edozeinek har dezake parte aurten bigarren antolatutako esaldien sariketean. Gutunetan moduan, lan guztiek jatorrizkoak, argitaragabeak eta euskaraz idatzitakoak izan behar dute eta gura beste esaldi aurkezteko aukera dago. Aurrez aipatutako posta elektronikora edo 605 71 24 69 telefono zenbakira mezuz edo Whatsapppe bidali behar dira.

Informazio gehiagorako edo zalantzak argitzeko, Jardun.eus atarian edo, bestela, 943 76 36 61 telefono deituta.

Laburbira 2018 zirkuiturako euskal film laburrak biltzen

Sortzaileen lanak ezagutarazi, euskaraz ekoizten jarraitzeko bidea eman eta ikusleei Euskal Herrian ekoiztutako zinemaz gozatzeko aukera emateko helburuarekin sortu zuen Topagunek, orain dela hamabost urte, Laburbira.

Urte osoan zehar jasotzen dituzte lanak, baina, oraindik ere, abenduaren 15a bitartean, pro-

posamenak helarazteko aukera izango da, Leire@topagunea.eus helbidera bidalita: "2015etik hona ekoiztutakoak, fikziozkoak eta hamazortzi minututik beherakoak izan behar dute. Abenduaren 15a baino geroago jasotzen ditugunak 2019ko Laburbirarako gordeko ditugu", diote antolatzaileek.

Otsailaren 28tik martxoaren 28ra arte erakutsiko dute bilduma berria. Iazkoa Euskal Herrian, New Yorken, Londresen eta Parisen eskaini zuten.

HUHEZINEMA

GOIENA TELEBISTA, 'SAIO BERRIA'

AZAROAK 24, 21:00 ETA 23:00

goiena
Zu hemen zaude.



Abiatzear da seigarren Kantari karaokea

Azaroaren 20tik 24ra bitartean eman daiteke izena, urtarriletik aurrera grabatuko diren saioetan parte hartzeko. Gainera, bestelako profila duten artistei ere Kantariren oholza gainera igotzeko proposamena egin diete saioaren bultzatzaileek aurten

Aitziber Aranburuzabala ARRASATE
Goienak Debagoieneko udalen eta ikastetxeen laguntzarekin antolatzen duen karaoke saioa da Kantari. Bi urtean behin egin da, eta abiatzear da seigarren denboraldia. Amaia Txintxurretak eta Aitor Agirianok gidatuko dute saioa.

Datorren astean, izen-ematea
7 eta 11 urte bitartekoek izango dute parte hartzeko aukera, eta, aurrekoetan legez, hiru eta bost kidek osatutako taldeetan. Ikastetxeetan jasoko dute izena emateko informazio orria. "Orri horretan azalduko da izena emateko zer egin behar den: *Goiena.eus* atarian sartu eta bertan egongo da *Kantari izena eman* txokoa; bertan klik egin, eta kito. Azaroaren 20tik 24ra bitartean eman behar da izena. Datuak ondo betetzea garrantzitsua da, posta elektronikoa bitartez komunikatuko garelako eurekin aurrerantzean", azaldu du Amaia Txintxurretak.

Grabazioak, lau herritan
Urtarriletik aurrera Aretxabaletan, Arrasaten, Bergaran eta Oñatin grabatuko dituzte saioak. "Udalekin harremanetan ari gara aretoak lotzeko", dio Agirianok, eta zera gaineratu du



Aitor Agiriano eta Amaia Txintxurreta, Kantari saioko aurkezleak. GOIENA

Txintxurretak: "Parte hartzaileen zerrenda osatu eta Gabonetarako talde bakoitzari bere kantua emango diogu. Kantu berriak sartuko ditugu aurtengo zerrendan eta horiek lortzeko bidean ere ari gara; aurreratu dezakegu Huntza taldearen *Aldapan gora* eta *Inondik inora* izango direla. *Blogak.goiena.eus/kantari* blogean joango gara informazioa eguneratzen; kantuen koreografiak ere hor daude".

Horrekin lotuta, bestelako profila duten artistei ere taularen gainera igotzeko gonbidatu

pena egin diete aurkezleek: "Gurasoren eta aitona-amonaren bat edo beste hurbildu izan zaigukantuan gustura egingo lukeela esanaz. Kultura elkarteetan atak jotzen ari gara, gonbidatu bereziak izan daitezten; edozelan ere, animatzen direnak jar daitezela harremanetan gurekin".

Gasteizen ere egingo dute
Datorren astean grabatuko dituzte Kantariren kapitulu berriak Gasteizen. 320 neska-mutiko izango dira oraingoan.

'Estitxu gogoan' dokumentala aurkeztu dute Zinebi jaialdian

Lapurdikoko kantari ezagunaren bizitza laburbiltzen du askotariko lagunen adierazpenak jasotzen dituen lanak

A. A. ARRASATE
Franck Dolosorrek idatzi eta zuzendu du Estibaliz Robles-Arangiz Bernaola *Estitxu* (Beskoitze, Lapurdi, 1944 - Bilbo, 1993) euskal kantariari buruzko lana. Baleuko etxearekin ekoiztu du

eta Iban Gonzalez eta Ramon Larrabaster izan ditu lankide.

Etxetik jaso zuen kanturako zaletasuna: abeslaria zuen ama eta Soroak laukotea osatu zuten haren lau nebek. Estitxuk berak ere ahizpekin laukote bat osatu

zuen, baina bakarlarari moduan, gitarra eskuetan, egin zuen ibilbide nagusia. 48 urte zituela hil zen, sei urtez minbiziaren aurka borrokatu ondoren. Hala ere, hamabost disko grabatu eta nazioartean askotariko emanaidiak eskaini zituen.

Eguaztenean estreinatu zuten, Bilboko Zinebi jaialdian. Herriz herri erakutsiko dute orain: Senperen, Beskoitzen eta Durangon dituzte dagoeneko datak finkatua -*Franckdolosor.com* atarian dago egutegia ikusgai-.

Goiena Klubaren txokoa

Goiena Klubeko azaroko sariak!



Liburu sorta

Parte hartzeko sariaren izena:
Liburuak



Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko,
sarrerak.

Parte hartzeko sariaren izena:
Arrikutz

ARRIKUTZ
GRATIBO DUA



Otarrea

Bidezko merkataritzako
produktuak.

Parte hartzeko sariaren izena:
Otarrea

www.harremandenda.org

Bidezko Merkataritzako produktuak

PARTE HARTZEKO:

E-postaz: kluba@goiena.eus WhatsApp: KLUBA "Sariaren izena"

[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira. Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

Indararen dagoen LEFPI 15/1999 legearen arabera, jakinarazten ditugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuen Itzategi automatizatu baten bidez direla. Datu-billetea honen helburu bakarra da indararen dagoen sustapena gestionatzea.

Estalidies cango dugu datuak sartzeko, baina zuzentzeko edo ezabatzea, helbide honetan dagoz: kluba@goiena.eus

Irabazi bi lagunendako otordua

LARRINETXE JATETXEARI ESKER

Begiratu *Puntua* aldizkari *Otorduan* atala eta hartu parte!

943 25 05 05 kluba@goiena.eus

KLUBA *Jatetxea*
[bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

puntua

Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartelaren abantailaz gozatzeko...



Bazkidetu zaitez: 2017 (azarotik aurrera): 20 euro.
Deitu: 943 25 05 05. kluba@goiena.eus

goienakluba[™]
Euskara irabazle, denok irabazle!

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

101. SALDU

Oñati. Uharkalde auzoan, 45 metro koadroko babes ofizialeko etxebizitza salgai. Sukalde-egongela, bainugela, logela bat, terraza handi eta zoragarria, garaje plaza eta trastelekua. Telefonoa: 699 01 44 12

103. ERRENTAN EMAN

Elgeta. Elgetan etxebizitza ematen da errentan. Bi logela, egongela, sukaldia eta komuna. Jantzi, bizitzeko prest. Telefonoa: 650 23 10 19

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate. Hiru logelako etxebizitza behar dut, erdigunean edo bertatik gertu. 675 70 88 67

Bergara. Etxebizitza behar dut errentan hartzeko. Urgentea da. Telefonoa: 696 84 19 51

Bergara. Etxebizitza haru nahi dut errentan. 657 43 24 65

Debagoiena. Baserría edo lursaila duen etxea hartuko nuke errentan. Partekatzeke ere gertu egongo nintzateke. Telefonoa: 669 64 11 31

Debagoiena. Neska euskaldun arduratsua batek etxebizitza ekonomiko bat behar du. Urgentea. Telefonoa: 655 84 42 49

105. ETXEA OSATU

Arrasate. Logela ematen da errentan erdigunean. 691 28 53 25

Arrasate. Pertsona bat behar dut etxebizitza partekatzeke. 618 28 91 28

Bergara. Logela bat hartuko nuke errentan. Bakarriz bizi den pertsona nagusien batekin bizi eta laguntzako ere gertu nago, errenta ordainduta ere. Telefonoa: 943 03 77 12 (Maite)

2. GARAJEAK

201. SALDU

Bergara. Garaje moduan erabil daitekeen 79 metro koadroko lokala saldu edo errentan ematen da erdigunean, Burdiñatan. Telefonoa: 607 34 90 43

4. LANA

401. ESKAINTZAK

